

O T H O I T Z A Z.

Pietaz ad omnia utilis est.
Arras onda othoitz egitea urhats guzietan.

Giristino maiteak,

Ifernuko etsai gaistoak bigauza ditu partida gehienik: othoitz bat, eta komunioea bertze. Zer nahi egiten du, erlisioneko bi urhats handi hoietarik giristinoen gibelatzeko. Errabia belzean dago Jainkoaren kontra. Eta gibel-arazten baditu giristinoak othoitzetik eta komunioetik, Jainkoari khentzen dio ohorerik handiena, eta giristinoeri laguntzarik beharrenean ardies-teko bidea.

Horra zertako giristino bat, etsai gaistoari kontra egitea gatik, behar da baliatu erlisioneko urhats guziez Jainkoaren gorestekoko. Berzalde, g. m. Jesu-Kristok othoitz egitera her-tsatzen gaitu guziak; I bere erakaspenaz, II. bere etsenpluz, III. zuen baithako beharorduez.

I

Lehenik bere erakaspenez. Othoitzaz mintzo delarik, zer dio bada Jesu-Kristok? Adi zazuz: (Othoitz egin behar da bethi eta othoitz egite-tik sekulan ez baratu. Luc. 18,1. Kasu hemen, g. m; Jesu-Kristok ez du erraiten othoitz egitea ondela bakharrrik, edo biziki balios; ez; bainan

othoitz egitea manatzen du; othoitz egizue bethi ez naski bethi arrasorioak eskuetan atchikiz, ez denbora guzia elizan iraganez, ez eta ere bethi belhaniko egonez; Bainan, dio Jon doni Paulok, Jainkoaren ohoretan eginez gauza guziak, hala-nola jan-edanak, egun guzietako lanak, biziko ur hats guziak. I Cor. IO, 31.

Eta nahiz othoitzaren amodioa gure bihotzetan phistu, edo suhatsu, nahiz ezarru gutarik ba kotcha grazia amhitsu ardiesteko bidean, Jesu-Kristok erraiten dauka: (galda zazue eta emana izanen zaitzue; bilha eta amhituren duzue; jo eta idekia izanen zaitzue.) Beraz graziaz ardiestekotz, galdatu behar da; ez uste izan galdatu gabe deusere ardietsiko duzuela. Athea idekitzekotz, jo behar da; bertzenaz hetsia egonen zaitzue. Gauza bat aurkitzekotz bilhatu behar da; bilhatzera bermatzen ez denak deusik ez du hatzemanen.

Bainan hain gare lotsa errechak; beha egoiteak lester unhatzen gaitu; nahi ginuke galdatzen duguna berehala ardietsi. Ez badugu lasterchko ardiesten, edo sobera luzatzen badu galdatzen dugun graziak, etsimenak hartzen gaitu. Jesu-Kristok bazekien gure laburtasunaren berri. Horra zer tako dio: (Haur batek gose denean galdatzen badu ogi puska bat bere aitari, hurek emanen othe dio ogiaren orde harri mokhor bat? Eta aitzina galdatzen badio ogiarekin jakitzeko arrainkia, emanen othe dio suge bat arrainaren orde? ez naski: eta zuek balinbadakizue galdatzen dautzeteneri gauza on emaiten, zenbat gehiago, zuen Aita zernetan denak ez diozkate emanen gauza onak fidantziarekin galdatzen diozkateneri? Math. 7, 9, IO.

Eta ez duzue berehala ardiesten galdatzen duzuen grazia? ez othoi lotsa. Egizue othoitz.

Huna Kananean ama bat. Debruak nola nahi derabil kio bere alaba. Jesu-Kristo ikhusten du bidean doala. Hasten zaio berehala oihuka, erranez: Othoi! othoi! Jauna urrikal zaite ene alabaz, debruak zer egiten dio. Jesu-Kristok hastean ez dio behatzen ere. Orduan ama dohakabeak berriz: Othoi! Jauna urrikal zaite ene alabaz, debruak ez dio nehun onik uzten.

Jesu-Kristo gelditzen da eta erraiten dio: Zer uste du eta haurren ogia chakhurreri emaitera ethorris naizela? Arrapostu horrek lotsatzen othe du ama dohakabe hori? gehiago baizik ez du sustatzen. Egia da, dio ihardesten, bainan chakhurrek ere ez othe jaten beren nausien mahai netik erori ogi purusketarik? Eta orduan, Jesu-Kristok: Oi emaztea, ala handia baita hire sines tea! egin bekin hik nahi dudan bezala. Eta ordu berean haren alaba sendatua izan zen. Math. IO, 22

Othoitz egin behar dugula, eta othoitzean ez garela unhatu behar, ez da berez dudarik. Othoitz egin gabe zertan ginitazke? nola ihardok bethi bekhatuari? nola garhait bethi etsai galdatzen tentamenduak? nola zapha bethi gure jaidura makhurrak? Horra zertako dion Jesu-Kristok: atzarriak zaudezte eta othoitz egizue, ez zaitzeten eror tentamendutan, eta herioak harra-pa ez zaitzaten ohargabeen.

Erraiten ahal dugu bekhatoros gehienez otoi tzik ez dutela egiten. Hulako haurra doi-doia atheratzen ohakotik, doi-doia hasia da mintzatzen, eta jadanik zernahi badarasa; zertako? ez du lakotz bere burhasoetarik othoitz egiten irasi. Hulako gizon gaztea, halako neskatza gaztea, zer nahi itsuskerietan pulunpatzen dire; zertako? othoitz egin ez dutalakotz gehiago egiten. Hulako gizon adinekoak, berebilo churien azpian

eta jadanik zango bat hobian izana gatikp zertakoez du gczatzea baizik bilatzen? ez da dudarik othoitz egitetik gelditua delakotz. Ba, g.m. gizo- n& othoitzza utziz geroztik errechkiegiten du behkhatuan.

AA

Bainan Jesu-Kristok ez du deusere erakatsi berak lehenik egin gabe. Othoitz egitea manatzen dauku; bainan berak egin du lehenik othoitzErran ditake, Jesusen bizia izan dela othoitz luze bat ohakotik eta hobiraino. Doi-doia eginik dago gizon Birjina Mariaren sabel garbian, eta jadanik egiten dio othoitz hau bere Aitari, dio Jon doni Paulok: Ene Aita, ez ditutzu onhartu aberezko sakrifizioak, ez zintzulakotz gehiago gustatzen; bainan eman dautazu gorphutz bat; huna beraz nun naizen ekharria zure nahiaren osoki egitera. H, ap

Hogoi eta hamar urthe iragaiten ditu Nazare teko etche ttipian Josep eta Mariarekin, lanetik bizi dela eta gainerateko denbora othoitzean doremala, Azken hiru urthetan Ebanjelioa hedatzen du Judeako hiri herrietan. Egunaz badabilia jende argitzen; gauaz igaiten da mendri zenbaiten gainera, bere Aitari othoitz egitera.

Othoitzean da oraino apailatzen sakramendurik hendienaren egitera, Ogia bere Gorphutzera eta arnoa bere odolara Khanbiatu baino lehen, othoitz egiten dio bere Aita zerukoari. Eta athe ratzen da aphaalruko salatik othoitz egiten duela eta bere apostolueri azken abisuak emaiten ditula. Olibetako baratzeraz helzen delarik, uzten ditu bere apostoluarik errenez: (atzarriak zaudezte eta othoitz egizue. Eta bera joanik urrunchago

ahuspekatzen da, erraiten duelarik: (ene Aita, ahal badaite, zure nahia hala bada, atsegabezko kalitz hau urrun dadila ene ganik; bizkitarteon ez bedi egin ene nahia bainan bai zurea.) Eta gero badago othoitzean alchatzeko tenorea ethorri artio.

an Khurutzeari itzaten dutea? othoitz egiten du oraino. (Ene Aita, barkha zakote ez dakite zer ari diren; edo oraino: ene Aita, ene Jainkoa, zertako bada nauzu abandonatu? eta azkenean hiltzen da, bere arima ederra ezartzen duelarik bere Aitarene eskuetan. Ba segur Jesu-Kristoren bizi guzia iragan da othoitzean; eta nolako otroitzean Zein khartsua ahal Jesusen othoitzal Zenbat oheratzen bide zuen Jainkoa! Zer atsegina egiten ahal zion bere Aita zerukoari! Eta zer grazia baliosak ardiesten ahal zituen guretzat!

111

Bada, g.m., phondu huntan bezala, Jesu Kristok erraiten dauku: Eman dautzuet etsenplua, nik nola egin baitut, zuek ere hala egin dezazuen. Sainguek egin dute Jesu-Kristok egin izan duena. Egin dute othoitz, eta othoitzari esker ardietsi dituzte fagorerik berezienak. Zer ari othoizen Andre dena Maria, Gabriel aingeruak ekharri ziolarik Jainkoaren ama egin behar zelako berria, Othoitzean, Zer ari zen san Frantses Asisokoa Jesu-Kristo mintzatu zitzaiolarik Khurutzeafika baten ahoz? othoitzean. Noiz zuen ardietsi Jesu sen ganik Ponzionkalako barkhamen handia? othoitzean zagolarik, Ba sainduen bizitzea hor da le khuko, othoitzak indar handiak dituela Jainkoaren hunkitzeako, Jainkoaren ganik grazia baitezpadakoen ardiesteko.

Bainan aditzen zaituztet: badu hunenbertze denbora Jainkoari galdatzen diotzala hulako grazia, halako fagorea; eta ez dut oraino ardietsi ahal izan? Segurkiago ardiestea gatik, hartu ditut ararteko bada Jesus, bada Ama Birjina, bada sailduak, Jainkoak ez nau oraino entzun.

Bainan Jesu-Kristok nahi duen bezala, bilhatu duzue oroz lehon Jainkoaren erresuma? Menturaz galdatu duzue zuen arimen onetan ez zen zer-bait; nori daki Jainkoak entzun bazintuztete, sekulakotz galduak zinezketen? Eta uste duzue entzutea litakela zue kaltetan litakoen gauzaren amaitea?

Sartzen naiz ohehetasunetan. Othoitzean galdatu duzue, imagun, gorputzeko osagarria; Jainkoak ez zaituzte entzun; zertako? Bazakien osagarria emanez ofentsatuko zintzela beharbada, zuen osagarriaz baliatuko zinezetela bide makhurretan ibilzeko eta azkenean galzeko. Zenbateko ez dute Jainkoa zerbitzatzeko oritasunean, eta osagarriara itzuli direlarik ez dire hasi Jainkoaren ofentsatzen? Beraz grazia handiagoa ogin dautzua zuek galdatzen zintzela ez emenez.

Othoitzean galdatu duzue hulako lanbidean ongi joaitea, urte buru batetik bertzera aise khurutatzekoaren izaitza. Jainkoak ez zaituzte entzun. Bazakien Jainkoak aisean bizitzekoa emanez, zuen lanbidean nahi bezala joanez, sobera estekatuko zinezetela beharbada mundu huntako gauza ezdeuseri, eta gero ahentziko mundu huntako gauza ezdeuseri. Bazakien ahentziko zintzela bertze munduan direla guk bilhatzeko eta maitatzeko gai diren ontasunak. Ez othe zen zuen onetan izan zintzen lurreko ontasunez chuhurrerian, bainan bertze munduko ez gozatzeko bidean?

Othoitzean galdatu duzue hulako edo halako

suerte onaren izaitza, hulako edo halako bizipidearen ardiestea. Jainkoak ez zaituzte oraino entzun; zertako? Bazakien segur galdatzen zintzela emanez, jarriko zinezetela egun batez, bekhatu egiteko bidean, zuen arimen galzeko hirriskuminean.

Ba naski ongi egiten duzue osagarriaren galdatzea, bainan lehenik galdatu diozuelarik galdatzen bihotz onez jasaitzeko grazia, eta haren nahi sailduaren egiteko indarra. Gai datzen ahal diozkatzue lurreko ontasunak, bainan lehenik galdatu diozkatzuelarik zerukoak. Galdatzen ahal diozue hulako edo halako bizipidea, bainan ez delarik zuen salbamenduaren kontrako bidea.

Bainan Jainkoak ez baditu bethi emaiten lurreko ontasunak gure kaltetan litazkeelakotz, bethi emaiten ditu arimarentzat galdatzen diren graziak. Beraz galda lehen-lehenik manamenduen bururaino beiratzeko grazia, edo oraino bere estatuko eginbideen bethetzeko grazia; galda bekhatu bethi urruntzeko grazia, eta oroz gainetik heriotze saildu baten egiteko grazia. Horra galdatuz geroz Jainkoak bethi emaiten dituen graziak.

Aita familiakoa zare? galda orduan zure familiari bethi etsenplu onaren emaiteko grazia, zure haurren giristinoki alchatzeko laguntzak eta argiak. Ama familiakoa zare? galda zure othoitzean bideonean haurren gidatzeko eta atchikitzeko grazia. Gazte zarezte? galda jaidura makhurren zaphatzeko grazia, munduko galbideetarik eskapatzeko grazia.

Jende jainkotiarretarik zarezte? galda lehenik bururaino sailduki bizitzeko grazia. Giristi no ephelatarik zarezte? galda khartsuago izaitzeko grazia. Bekhatorosak zarezte? galda lehenbait lehen bekhatutik atheratzeko grazia.

Eta azkenean, galda dezagun guziek gure itzalaren suntsitzeko grazia. Jende minhorrak behar du gadatu ezti izaiteko grazia; jende jauzkorrak bere buruaren jabe izaiteko grazia; jende bekhaztiak emale izaiteko grazia; jende jeloskorrak bertzeen onaz ez ilhutzeko grazia.

Ah! g. m. zuen arimako gaitzen sendatzeko egin behar bazinituzte bide luzeak, iragan itsasoak, egin gastu handiak, zuen osasuna bera galdu, edo galzeko hirriskuan ezarri, ez zinukete gibelera egin behar; holako bat egiten dute anhitzek zenbait sosen irabazteko. Baina ez dute urrun joate beharrik arimako gaitzen sendagailuaren hatzemaiteko. Egizue baxharrik othoitz eta fainkoak emenen dautzue, arimako gaitzak sendaturik sainduki bizitzeko eta hilzeko grazia.

Jainkoa behar dela baitezpada maitatu.

Diliges Dominum Deum tuum. Luc IO, 27.
Maitatuko duzu zure Jainko Jauna.

Giristino maiteak,

Amodioa, horra beraz Jainkoak galdatzen daukum gauza bakharra. Amodio horren izaiteko, Jainkoak zer ez du egiten? Lehenik manamendu batez hersatzen gaitu, edo oraino deitzen zeru-lurreko izaiten arartekotz, edo azkenean gomitatzen bere ongieginez. Jainkoa ez duze maitatzen? ostikatzen duze manamonduetan hersiena, erhokeriarik handienara erortzen zarete, eskergabetasunik belzenaz ihardesten duze zuen ongiegillerik handienari.

I

Jainkoa jendo eta gauza guzien Nausi oroz gainekoa da. Eskua badu guzietan manatzeko. Mana dezake nahi duen guzia. Nehork ez lioke ihardoki behar. Bada manamonduetan handiena zein egin du? amodioaren manamendua. Eta zer? manamendu baten beharra othe ginuen Jainkoaren maitatzeko? Jainkoak ez othe gaitu beretzat egin? Nork eman dauku izaitea? ez othe Jainkoak? Nork eman dauku ontasunak? osagarria? eta bizitzekoa? ez othe Jainkoak oraino? Eta egun batez igurikitzen dugun bethiereko zoriona, nork emanen dauku? Jainkoak bethi. Eta hoik guzietan gatik aski itsu eta bihotz gogorrekoak gare manamendu baten beharra izaiteko Jainkoaren maitatzera gure sustatzeko?

Manamendu baten beharra othe da adiskide eta ongiegile baten maitatzeko? Ez naski: nehork manatu gabe erakusten duze zuen amodioa adiskide

bati edo ongiegile bati, ofreitzen diozkatzue zuen zerbitzuak, bihurtzen zuen eskerrak. Gehiago; heieri atsegin egitea gatik, heien ikhustatea bilheiera atsegin egiten duzue oraino? maitatzen hek maitatzen dituztenak, hastiatzen hek hastiatzen dituztenak, heien on-gaitzak behatzen zuen on-gaitzak bezala.

Urrunago noa: manamendurik gabe, den gutienik maitatzea merezi ez luketen kratuta higungarri batzu ez othe dire batzuetan maitatzen? ba naski: Zenbat jendek ez dute beren amodioa salzen kreatura higungarri batzueri eta oraino burua eta osagarria galzerainokoa? Bertze zenbaterik kreatura tzar bat maiteagoz ez bat zangopean emaiten beren aipua, ohorea, kontzientzia, eta libertatea? Jaidura tzar batek zenbat ez ditu hor tarainokoa sorhaitzen eta itsatzen?

Eta Jainkoaren aldarat ez ginitazke izanen bardin suhar? Jainkoa hain ona eta amulsua da guretzat, bere izaitze hain da maitagarria, eta haren aldarat bakharrrik izanen ginitazke ezagutzarik eta amodiorik gabe? Hain guti giduzke ezaguturen Jainkoaren fagore eta ongieginak, beharko baitugu manamendu berezi bat haren maitatzeko? Eta oraino manatu eta izaiten balu bethi? bainan ez: anhitzek ez dute Jainkoa maitatzen.

Bizkitartean, Jainkoaren maitatzea baino gozogorik othe da deus munduan? Jainkoaren maitatzeak ez othe gaitu zinez handitzen? Hauts eta erhauts baizik ez gare; Jainkoa neurrigabe handi da. Eta orduan ez dea harrigarri ikhustea neurrigabeki handi den Jainkoa ahalzen neurrigabeki ttipi den gizonari erraiterainokoa: othoi, maita nezak. Ba segur harrigarri baita ikhustea Jainkoa ez bakharrrik nahi dela izan gizonen zerbitzua, ez bakharrrik atsegin duela gizonen maita dezaten, bainan oraino asarre gaitzean sartzen

dela ez badugu maitatzen, eta gainera gaztigurik ikharagarrienez mehatxatzen gaituela.

Dohatsu dauzkatzue zuen buruak munduko handi batek bere zerbitzuko hartzen zaituztenean; kreatzar batek zuen amodioa onhartzen dautzuenean, eta orduan nola egonen zinazkete Jainkoa maitatu gabe? Jainkoa maitatuz ez duzue maitatzen izaterik maitagarriena, errege guzien gaineko Erregea, Jaunen Jauna? Jainkoa maitatuz ez duzue maitatzen bakharrrik maitatzea merezi duen Izaitzea?

Bertzalde amodioaren manamendua baino errechagorik bethetzeko othe da deus? Jon doni Juanik dio: Jainkoaren manamendua ez dire dorpheak. Mandata ejus non sunt gravia. Joan 5, 3. Erlen eztiak ez du gizonaren ahoa hala gochatzen nola Jainkoaren maitatzeak baitu gizonare bihotza atseginez bethetzen. Ps. 118, 103. Jainkoa zinez maitatzen duenak bere gustuz ikhasten du zenbat den gozo eta atsegingarri Jainkoaren maitatzea. Gustate et videte quoniam suavis est Dominus. Ps. 34, 9 Ba Jainkoaren maitatzeak ezartzen du gizonaren bihotza zinez dohatsu. Jainkoa maitatzen duenak hasten du zeruko dohatsuen bizitzea lurrean delarik oraino, eta ardiesten du eternitate guzian bizitze horren izaiteko grazia.

Bada Jainkoaren maitatzea hain gozo denaz geroz, eta haren maitatzeko emaiten daukun manamendua hain errecha bethetzeko, maita dezagun bethi eta suharki gure Jainkoa, bihur diotzogun gure go-goeta guziak, ez dezagun izan gehiago ez arimarik, ez bihotzik, ez indarririk Jainkoaren maitatzeko baizik.

II

Bertzalde, g.m. Jainkoa ez othe da bere izain neurrigabeki maitagarria? Norbait maite duzuenean, maitatzen duzue edo bere edertasunaz choratzen

zaituztelakotz, edo zuentzat ona delakotz. Eta zenbategi batez ere baita maite duzuen ederrago eta perfektuago, hantegatez gehiago duzue maitatzen. Bada, g.m., egun ba eta bihar ez den kreaturak baten edertasunak choratzen bazaituzte, kreatura haren edertasun iraganakorra aski bada zuen amodioaren arditeko, zenbat gehiago ez zaituzte choratu behar bethikoa eta bertze guzien ithurburua den edertasunak, zenbat gehiago ez duzue maitatu behar edertasun guziak dituen Jainkoa?

Zer ditzake lurreko izaite guzien edertasunak Jainkoaren edertasun bethierekoaren aldean? Itzal bat eta oraino gutiago. Idek-situue fedezko begiak? Hara iguzkia bere argi ederrarekin; hara izarak beren distiadura gozoarekin; hara lurre bere mila arbola motekin, bere mila lore suertekin, bere mila fruitu bereziekin; hara urhea bere hori choragarriarekin, hara zilharra bere churi distiantarekin; hara bertze gainerateko harri balios guziak. Zenbat aldiz ez gare choratuak gelditu ikhugarri hoiuen aitzinean? zenbat aldiz ez gaituzte alegerratu? Orduan zer izan behar da izaite hoiuen Kreatzaile eta Jainkoa? Munduko izaite hutsetan erain bada hoinbertze edertasun nolako edertasunak ez ditu ekharri behar bere izaitean?

Mirets ditzagun nahi bezenbat lurreko izaite edertasunak, baina ez gaiten han geldi, mundutar itxak gelditzen diren bezala. Balia gaiten sainduak bezala kreaturen edertasunak, Jainkoaren edertasunarekin alchatzeko, Jainkoaren amodio osora helzeko. Erran dezagun san Agustinek bezala: lurreko izaiteak eder eta choragarriak dire; baina zenbat ederrago eta choragarriago ez da gure Jainkoa?

Holachet egin dute sainduak; hola egin du bereziki san Frantses Asisekoak. Zeru gaineko iguzki eta izarrek alchatzen zuten san Frantsesen gogoa Jainkoaren bethiereko argiraino; lurreko lore eta

gauzen edertasunak bazeraman Jainkoaren edertasun choragarriaraino; itsasoaren zabaltasunak Jainkoaren baztergabotasuna miresteraraino; lurreko mila fruituek Jainkoaren ontasuna goresteraraino. Ba zoru eta lurreko izaite guziek sustatzen zuten Jainkoaren gerota gehiago choratzera, haren gerota gehiago maitatzera, haren gerota hobeki zerbitzatzera.

Eta ikhugarri berareh aitzinean nola gaude ezachoil eta mutu bezala? nola gaude arima eta gorputz bethi lurrera, sekulan kasik alchatu gabe gure gogoa Jainkoraino? Zertako ez dugu hasten mundu huntarik egun batez Jainkoaren graziarekin batuta egin nahi duguna? Nola behar ginitazkeen ahalgetu eta urrikitan! Jainkoaren edertasunak baino diru phurruska batek zenbat ez ditu choratzen? j Jainkoari baino gehiago atsegin zikhin bati zenbat ez dute atchikitzen! Anhitzek, horra nori duten salzen Jainkoari bakharrik zor dioten amodio! eta horra oraino nor duten beren jainkotza hautatzen? Bada nahi ginitazke chede hortan bizi, eta bizi heriotzeraino Jainko egiazkoaren mersprezioan? nahi ginitazke Jainkoaren aitzinera joan aithortzera bortchatuak, mundu huntan izan dugula bihotz bat eta amodio bat gauza guziak maitatu dituen Jainkoa salbu? ez naski: beraz itzul gaiten lehenbailen Jainkoaren ganat; har dezagun egundik chede zinezkoa Jainkoa oroz gainetik maitatzeko eta bertze gauzak haren amoregatik. Ikhusi duzue Jainkoak hori dauku manatzen, lurreko izaite guziek hortara gaituzte deitzen, baina miletan gehiago gomitatzen gaitu bere ongieginez.

III

Jainkoa bethidenik orhoitu da gutaz, eta denbora bethe denean eman gaitu mundura. In perpetua caritate dilexi te, ideo attraxi te. Jer. 31, 3.
Jainkoak amodio berezi bati esker egin gaitu orai-

no jende. Eman dauku, alimaleri eman ez diotena, adimendu bat haren ezagutzara helzeko, bihotz bat haren baharrik maitatzeko, libertatea haren merzimenarekin zerbitzatzeko. Amodio berezi bati esker oraino, Jainkoak atchikitzen gaitu bizirik, emaiten dauku osagarria, eta igortzen egun guzietako hazkurria.

Zertako ditu egin zeru-lurra beren izaito guzietan? gu maitez eta gure zerbitzuko. Gehiago, aingeruak berak, bethi bere inguruan dituen izpiritu dohatsuk berak, noientzat egin ditu? guretzat eta gure laguntzeko, gure gerizatze mundu huntako behar-ordu eta galbide guzietan. San Agustinek dio: Jainkoak eman dauzku zeru-lurreko izaito present bezala, aditzerat emaitako zenbat maite ginituen. Manera amici et arhas sponsi.

Eta hoinbertze ongieginen aitzinean egonen ginitazke Jainkoa maitatu gabe? Zer? Jainkoak hoinbertze egiten guretzat, eta ez ginakoko ezagutzarik emanen? Jainkoak ez zuen batere gure beharrik; aski dohatsu zen gu gabe; baina bere amodio neurri gabea gutaz orhoitu da. Eman dauku diot berri ere izaito, bizitzea, senditzea, jendetasuna, eta giristino bilhakatzeo grazia paregabea. Bere eskas egin du gure gorphutza, gorphutz horri eman dio bere iduriko egin arima bat. Egiten ahal-ginituen harri mokhor bat, edo lore fluch bat, edo lur reko har ezdeus bat; egin gaitu jende eta giristino Egun guzietan igortzen du bere iguzkia gure urhatsen argitzeko, izarrak gure gaben alegeratzeko eta argitzeko, eta lurreko mila fruituak gure hazteko. Eta gero izanen direla gizonak Jainkoa maite izanen ez dutenak, gehiago: ofentsatuko dutenak?

Norbait egin dautzuenean fagorerik ttipien presentik chumeena, ezagutzaz betheak zarezte harentzat eta haren maitatzerat ekharriak zarezte zuen baitharik? Eta Jainkoaren alderat, haren ganik izan ondoren dituzten guziak, ezagutzarik

gabe eta ezachoil izanen zinaitzete? Baina hola egin lezakeenak aberea baino beherago jaute lita-ke? Eteheko aberak ezagutzen dute berna nausi eta jatera emalea, eta beren araberrako eskorrak bihurtzen diozkate? Eta gizonak ez luke ezagut-zen bere ongiegilerik handiena eta beharrena? eta zerbitzaturen litako gehiago dena Jainkoak eman dohainez eta presentez haren ofentsatzeko Oi belzkeria.

Oraino hortan baratzen balire Jainkoaren ongieginak? Zer ez du egin Jainkoak gure arimen salbatzeko? Gure lehen burhasoen bekhatuak guziak galdusk ginen; sorthu behar ginen debruaeren esklabo izaitoko mundu huntan eta haren iferruko lagun eternitate guzian. Jainkoak zer egiten du? Igortzen du bere seme bakharra lurrera, bere odolaz gure bekhatuaren erreparatzera, eta bethiereko heriotzetik gure atheratzera. Eta gero ez ginukeela maitaturen Jainkoa berak hainbertze maitatu gaituen ondoan?

Egin duen baino gutiago eginez salba gintzazkeen Jainkoak. Nahi izan balu sor zitakeen hantitasun eta nasaizia guzien erdian sefritze beharrik izan gabe. Zer du hautatzen zenbat maite ginituen frogetzeko? sortzen da ttipi eta aez handi, bizitzen da gabezia eta ez nasaizia; atsegadi beak hersten du eta ez zorionak onakotik eta hoinbertze. Jesusen bihotzeko hasgorapen bat, nigara ttintta bat, odol chorta bat, urhats bat zirela kotz neurrigabeki baliosak, aski zitakeen munduaren erosteko eta gizonen salbatzeko. Baina ez zitzaion hori aski Jesusen amodiocari. Jesu-Kristok nahi izan du eraman bizitzerik hertsiona; nahi izan du bere odol guzia ichuri, chortakachortaka Olibetako baratzean. burrustan azotatu zuten salhan, ibalka Kalbarioko mendian. Zertako hoinbertze oinhaze? holako heriotze ikharagare

ria? Guri erakusteko zenbat maite ginituen!

Errana da iguzki aldeko jendaia batzuek adit-
searekin misionesten ahotik, Jainkoak egin ditu-
en miragarrikeria guziak zenbat maite gintuen e-
rakusteko, harrituak erran zutela: Ah! zenbat
den ona giritinoen Jainkoa! Guk zenbat gehiago
es dugu erran behar: zenbat den ona, zenbat maita-
garria hoinbertze maitatu gaituen Jainkoa!

Bainan zer erranen zuten jendaia hek, jakin
balute giritinoen artean badirela Jainkoa, ez
pakharrik maitatzen ez dutenak, bainan oraino a-
hantzen eta laidostatzen dutenak? Ez othe da an-
hitz giritino eskergabe hoierrunkan? Zenba-
tek ez dute ofentsatzen hainbertze ongi egin dio-
ten Jainkoak hainbertze maitatu dituen Jainkoa,
sobera ahantziz, sobera mersprezatuz, sobera osti-
katuz manamendu guzietan lehena eta handiena?
amodioaren manamendua.

Berant bada berant, g.m. has gaiten egundik be-
deren bihotz guziz Jainkoaren maitatzen. Jainkoak
manamendu batez hertsatzen gaitu, zeru-lurreko
izaiten bidez mila gomitu egiten dauzku, bere
ongieginenez bortehatzen bezala gaitu. Ez gaitu bil-
baka Jainkoaren etsai haren manamendurik handiena
zela nahi ostikatuz, ez eta ere aski erho gure
meneko izaitiak baino beherago jausteko, ez eta
ere aski eskergabe ongiegilerik beharrenaren mers-
prezatzeko.

J A I N K O A R E N M A I T A T Z E A Z

Plenitudo legis est dilectio. Rom.13,10
 Jainkoa egiazki maitatzen duenak bethetzen ditu
 manamendu guziak.

Giristino maiteak,

Jesu-Kristo predikatzen ari zelarik egun batez,
 legeko erakasle bat hurbilzen zaio erranez haren
 tentatzeko bezala: Nausia, legeko manamenduetarik
 handiena, zein da? Jesu-Kristok ihardesten dio:
 Maitatuko duzu zure Jainko Jauna zure bihotz gu-
 ziaz, zure arima osoaz, zure izpiritu betheaz, horra
 manamenduetan handiena eta lehena.

Amodio saindua, g.m. ezar dezagula bertze ber-
 thute guzien parrean, ikhus dezagula bere ithurbu-
 ruan, beha dezagula haren ondorioeri, agertzen zau-
 ku guzietarik miretsagarriena, Jainkoaren begietan
 atsegingarriena. Nola hori? berehala jakinen duzu
 zue.

I

Fedea, Esperantza, eta Karitatea, deitzen dire
 dakizuen bezala, berthute teologalak. Ez dauzku
 sortzeak emaiten, ez ditugu gure lanaz ardiesten,
 gure ahala gainditzen dute. Nundik heldu zauzku
 beraz? Chuchen-chuchena Jainkoaren ganik. Zerta-
 ko emanik zauzku? Chuchen-chuchena Jainkoaren
 ganat alcha gaiten gure izaite guziaz, gure gogo-
 etez, gure lehiez, gure egintza guziez.

Fedea berthute handia da; esperantza ere ber-
 thute baliosa da; baina ezartzen baditugu kari-
 tatearen aldean, ikhusiko dugu karitateak gandi-
 tzen dituela. Major horum est caritas. Hala du
 erakasten Jon doni Paulok. Fedeari esker sinas-
 ten ditugu Jainkoak erakatsi egia guziak; espe-

tzari esker igurikitzen ditugu Jainkoak hitzeman ontasun guziak; baina amodio sainduari esker, karitateari esker Jainkoa den guziaz jabetzen gare kreatura bati doakon izarian.

Fedeak eta esperantzak izanen dute akhabantza bat. Zerura helzen garenean Jainkoa ikhusiko dugu itzalik gabe, buruz-buru, den bezala; gozatuko gare orobat igurikitzen ginituen ontasun guziez. Baina amodio sainduak ez du ez hastapenik, ez akhabantzarik. Amodio saindua, karitatea, Jainkoa bezala bethidanikakoa da. Trinitate sainduko hiru Presua adoragarrien artean bethidanik alha da amodio saindua, karitatea. Jon doni Juanik deitzen du Jainkoa, bethi maitez dagon izaitea. Deus caritas est. I Joan. 3,4.

Baina Jainkoaren amodio sainduak gaindi egin du gizonaren bihotzera. Geroztik amodio sainduak sustatzen duen gizona, Jainkoa zinez maitatzen duen girstinoa, Jainkoaren baithan dago, eta Jainkoa haren baithan. Amodio sainduak osoki batzen du girstinoa Jainkoari eta Jainkoa gizonari. Jesu-Kristok ez othe du erran: Haren baithara et horriko gare, eta haren baithan eginen dugu gure egoitza. Veniemus et apud eum mansionem faciemus Amodio sainduak nola duen handitzen gizona! Trinitate sainduko hiru Presuekin bat egiten du. Harritzeko dea gero Jainkoak atsegin berezi batekin onhartzen badituere karitatearekin egin obra guziak! Holako obrek bihurtzen diote Jainkoari o horerik handiena. Amodio sainduak sustatzen duen girstinoak Jainkoa maitatzen ez baitezpada sariaren esperantzan, baina oroz gainetik Jainko delakotz, Jainkoa bere jitez, bere izaitez neurri-gabeki maitagarria delakotz.

Bertze izaite guziak ere maitatzen ditu, baina Jainkoaren gatik, Jainkoak egin dituelakotz. Herra zertako fedea balinbada berthute guzien zimentua, hura gabe ez bada ez erlisionerik, ez gi-

ristinotasunik; esperantza ere balinbada berthute guzien gorputza bezala, girstinoki bizitzeko indarra; karitatea berthute guzien arima bezala da. Karitateak diote emaiten bertze berthute guzieren bizia eta balioa. Jainkoa maitatzen ez duenak bere fedea hila bezala du; alferretan igurikitzen ditu Jainkoaren ontasunak, eta ahalagoko berthute guziek baliorik ez dute Jainkoaren begietan.

Emagun, g.m. badazkitzuela lurraren gaineko hitzkuntza guziak; aingeruek bezenbat jakitate ere baduzuela, geroan ethortzekoak diren guziak ezagutzen dituzueka; emagun oraino amonietan emaiten dituzuela zuen ontasun guziak; odol guzia iohurtzen duzuela oinhazerik ikharagarrienen erdian; baina karitatearik, Jainkoaren amodiorik ez duzue, orduan munduko errumesenak zarezte, zerukotzat deus onik ez duzue egiten Jainkoaren begietan deusik ez duzue irabazten. Nihil mihi prodest. Luc 21,2.

Kontralat, Jainkoa zinez maitatzen duzue, haren manamendu guziak beiratzen dituzue, gauza guzietan Jainkoaren ohorea bilhatzen duzue, orduan amonietan eman dukezen ardit bakharrek ardiesten dautzue sekulako saria, eman dukezen baso urak merezitzen dautzue bethiereko bizitzea. Matt. 10,42. Eta guzia laburki erran dezadan, bazinituzte ere bertze berthute guziak, baina Jainkoaren amodiorik ez, egiten bazinituzte ere obra on suerte guziak, baina Jainkoaren amodiorik gabe, zerukotzat deusik ez duzue irabazten. Aldiz Jainkoa zinez maite duzue, orduan bertze berthute guziak badituzue. Ppenitudo Legis est dilectio.

II

Baina aditzen zaituztet: Amodio sainduak nola duke horrenbertzeko botherea? Ochtian erran dautzuet karitatea eta Jainkoa gauza bera direla. Deus caritas est. Amodio saindua den lekhuari Jainkoa aurkhitzen da, eta Jainkoa den lekhuari amodio sain-

dua. Amodio sainduaren indarrak du Jainkoa bere baitharik ather-arazi. Bainan amodio saindua nundik da atheratzen? Bihotzetik. Eta norat doa? Bihotzera. Amodio saindua Jainkoaren bihotzetik da jausten gizonaren bihotzera. Oñ bihotzaren balioa. Jainkoaren indarrak bethetzen du amodio sainduak sustatzen duen bihotza, Jainkoa zinez maitatzen duen gizona.

Bihotzak derabilia gizona. Bihotzak du akhulatzen edo atehikitzen. Bihotzak ditu gizonaren baithako bothere guziak berotzen eta añahtutzen. Bekhatuak, egia da, ahuldu eta nahasirik ezarri du gizonaren izaite guzia. Bekhatua dela medio, gorputzak zer nahi izanen du jasaiteko, eta ongi borrokatu den ondoan behar-ordu guziera buruz, hilen da, hants eta erhauts bilhakatu da. Gizonak izana zuen adimendua bortcharik eta indarrak gabe gauzen ezagutzeko eta jujatzeko, eta bekhatua dela medio, gauzarik beharrene jakiteko indarrak handiak egin behar ditu. Eta oraino zenbat aldiz ez gare errebelatzen gure gogoeta eta jujamenduetan?

Zorionekin, bekhatuak utzi du gure baithan chutik, bainan jorik, bainan ahuldurik, bothere bat. Ongi gidatzen delarik bothere hori gai da Jainkoaren graziarekin batean gora alchatzeko gizonaren izaite guzia, Bothere hori zein da? Bihotza. Amodio sainduak sustatzen duen bihotza, norik erran zenbat den aberats? Norik erran halako bihotzaren lehiak zenbat diren sainduak, esperantzak zenbat handiak, zenbat gora haren nahikundeak, eta zabal gutziak? Gizonaren bihotza? bainan lurra bera ere baino zabalago da, itsasoa bera baino barnago, mundua bera baino handiago.

Gure bihotza bethe dezakeenik, bainan lurrean ez da deusere. Nahi dut baditutzuela lurreko ontasan suerte guziak, ohore mota guziak, atsegin suerte guziak, lurrak eman ditzazkeen on suerte guzientz jabe zareztela. Zuen bihotzak othe luke ordu-

an bederen galdatzen duen asegarri osoa? Lurreko gauza guzien gozamina izan eta erraiten ahal othe zinukete: orai ez dut deuseren eskasik, orai zinez dohatsu naiz. Ez segur: Zalomon erregeak izan ditu nehorik izaitekotz lurreko gozamen guziak; eta gero zer dio? Omnia vanitas. Lurreko gauza guziak deusik ez direla, gizona zer nahi atsegabeez bethetzen dutela, afflictio spiritus.

Gizona egiña da Jainkoaren bakharrrik maitatzeko, Jainkoaz beraz gozatzeko. Debaldetan dabila gizon handikoia lurreko ohoren ondotik, bere bihotzaren asetze gogotan; alferretan dabila diru gosea lurreko ontasunen ondotik bere bihotzaren bethetzeko chedetetan; debaldetan dabila gizon lohia lurreko atseginen ondotik bere bihotzaren zoriontatzeko nahikundeetan, bethi huts bat geldituko zaio bethi zerbaite izanen du eskas.

Eta orduan, g.m. harritzeko dea, gizona khechu balinbadabila ere Jainkoak bere amodioaz bethetzen ez duen denbora guzian? harritzeko dea Jainkoa bakharrrik nahi bada ere izan gure bihotzaren nausi, nahi bada ere bakharrrik gure bihotzaz gozatu? Gizonak higa dezala bere gorputza esku lanetan, bere adimendua buru lanetan, Jainkoak ez du hor deus gaistorik hatzemaiten, zer diot? eginbide bat egiten dio. Bainan gizonaren bihotza? ah! hura handiegi zaio uzteko behere huntako gauza ezdeusetan barraiatzera.

Jainkoak beretzat egin du gizonaren bihotza. Eta bihotz horren izaiteko zer ez du egiten? Zertako da jautsi zerutik lurrera? gizonaren bihotza beretu nahiz. Zertako hil da khurutze baten gainean? gizonaren bihotza erreskiago beretzat gatik. Zertako egin ditu sakramenduak? gizonaren bihotza bere gamat alchatzeko. Zertako du egin zerua? gizonaren bihotzaz osokiago gozatzeko. Zer diot?

Jainkoa: bainan eskale egin da gizonaren bihotzaren izaiteko. Adi zazue: Praebe, fili mi, cor tuum mihi. Prov. 23, 26. Ene haurra, othoi emadak hire bihotza. Oi eske harrigarria! Jainkoari ez zaio sobera aphaltzea gure bihotza amoina bat bezala eskatzerainokoan.

Ah! gizonaren bihotza ikhustean, Jainkoak ikhusten du bere obrarik baliosena. Amodio sainduak bethetzen duelarik ikhusten du atseginezko lekhu bat ikhusten du paradisu berri bat. Bainan bere galdeaz ez du ardiesten gure bihotza? orduan mansamendurik hertsiena egiten dauka. Aita bezala galdatuz ez badiogu emaiten, Nausi bezala galdatzen dauka bihotza; orduan ere ez diogu emaiten, gartzigurik ikharagarrienez mehatchatzen gaitu. Eta badirela gizonak beren bihotza kreatura higugarri bati salzen dutenak! Batzuek emaiten dute beren bihotza ohore ezdeus batean truk; bertze batzuek salzen dute sos pharruska zenbaiten izaiteko; bertze anhitzek atsegin lohi batez gozatzeko.

Ba anhitzek Jainkoa baino maiteago dute arguluaren hazkurri den ohore ezdeus bat, edo oraino zikhokzeriaren hazkurri den sos zikhin bat, edo azkenean lohikeriaren hazkurri den atsegin ahalgegarri bat. Oi belzkeria! Miletan zoroak bekhatu mortalean bizi diren gixistinoak! Egiten dituzten othoitzak, amintak, ikhartzten dituzten izerdiak beren lanen erdian, egiten dituzten obra on guziak deusik ez zaizkote baliatzen zerukotzat. Amodio saindurik gabe ez da obra on egiazkorik, ez eta bihotz behar bezalakorik.

III

Athetik dezagun beraz gure bihotza Jainkoarentzat. Ezen bihotzetik atzeratzen bada ere aski tzarra denean bere amodioa kreatura higugarri bati salzeko; bizkitartean ongi gidatzen delarik

Jainkoari leial dagolarik nolako gauza miresgarrien egiteko ez da gai?

Gizona amodio sainduak sustatzen duelarik gai da gauzarik harrigarrienen egiteko. Gai da bertzen onetan dituen guzietarik biluzteko, biziaren beraren emaiteko. Gai da azkenean heriotzearen beraren garhazitzeo. Fortis est ut mors dilectio. Cant. 8, 6. Ez dazue menduraz sinesten.

Hara martirak; hitz bakhar bat erran bezate; salbatzen dituzte beren ontasunak eta beren bizia berre. Kheinu bakhar bat egin bezate? harritze oin hazen ordo izanen dituzte harritzeko ohoreak. Bainan hitz erramez, Jainkoari arnegatzen lukete, kheinu hura eginez, beren sinestea ukha lezakete; eta Jainkoari hitzemana dute leial egonen zaizkola azken hatseraino. Zer eginen dute orduan? Beren sinestea ukhatu baino, Jainkoari arnegatu baino, nahiago izanen dute batzuek burregoen ezpataz beren buruak lrronak erortzen ikhusi; bertze batzuek lehoinen letain eta hortzen artean beren gorputzak pharruskatzen ikhusi; zenbaitek errota horzdunen artean beren menbroak zathikatzen ikhusi; bertze askok beren gorputzak bizirik larrutzen ikhusi edo bizirik erretzen.

Eta nor dire holako oin haze izigarrien pairatzaileak? gizon egin batzu? jite azkarreko gizon batzu? indar handiko gizon batzu? ez: frangotan emazte ahul batzu dire, edo oraino haur hotz batzu, edo azkenean zahar ezindu batzu. Badoazi heriotzeare ez bihotzak ilhunik bainan lorietan phesta betetara bezala. Eta ez dire hor gerthakari bakhar batzu, miliunka izan dire gixistinoak beren bizia eman dutenak. Eta orai dudarik gabe galdatzen dautzue: Nola mirakulu jasan dituzte lorietan holako oin haze ze ikharagarriak? erranen dautzuet: Jainkoa maitez.

Bainan odolezko martiren aldean zenbat bere na-

hitarako martir? Bere nahitarako martirio horrek ez ditu odolazkoak bezala jendeak hunkitzen. Ez da ba gutiago hertsia eta miresgarria. Odolezko heriotzea laster iragaiten da; bere nahitarako heriotzeak badirau bizi guzia. Bere buruari bararik gabe ukho egitea, egun oroz khurutzearen alegaraki kharreatzea, ez da deus bertzerik baizik martirio luse baten pairatzea. Eta zenbat holako martir ez da bazterretan?

Goazen gogoz Klarizen komentu batetara. Galda dezogun grilla haren gibelean dagon serora gazteari: Etchean hain ontsa zinen; zertako zaude orai hor soinko latz batez jauntzia, bizitzerik hertsiena eramaiten duzula? Inardetsiko dauku: Jainkoa maitez.

Euna orai aphez gazte bat. Ontasun, burhaso, aiskide, eta sort-herriak utzirik badao itsasos handira paganoen erdian bizitzera eta ahal badute helen salbatzera. Zertako du egiten holako sakrifizioa? erranen dautzuet hemen ere: Jainkoa maitez.

Holako obra miragarriak egiten ditu amodio sailduak munduan barna. Nola ditake ez dituela gure bihotzak sustatzen? Ez da dudarik, Jainkoa bakharririk maitatu behar bidean hura salbu zer nahi maitatzen da. Ah! egundik bederen g.m. has zaitezte zuen amodioaz saildukiago zerbitzatzen. Galda zazue Jainkoari bere amodio sailduaz susta ditzala zuen bihotzak. Hortarakotz egizue othoitz, eta oroz gainetik egizue maiz komunione saildua. Onduan ariko zarezte zerukotzat lanean, orduan zuen bihotz tza izanen da zinez Jainkoaren egoitza, orduan izanen zarezte Elizaren hastapeneko giritinoak bezala indarrez betheak erlisioneko urhatseri bururaino jarraikitzeke, orduan ardietsiko ditutze amodio sailduari Jainkoak nitzeman diozkan ontasun bethierekoak, halabiz.

Haec est voluntas Dei: sanctificatio
vestra.

Jainkoaren nahia hau da: saildu zai-
tezen. (I Tho. 4,3.)

Christino maiteak,

Beha nagonean munduaren erdian, jende gu-
zia mugimendutan ikhusten dut. Batzu badao-
zi laneko tresnak bizkarrean bizitzekoaren
irabazterak; bertze batzu badabilza harat hu-
nat uskhila bat zzurikatuz eta denbora ezin
iraganaz. Zenbait ari dire josteta plazetan,
bertze zenbait lanean lehertuak landa edo
phentzetan. Anhitz badautzi botigetan gauza
baino gezur elgarri saketzen dutela; bertze
anhitz beren etxetan lanak ezin eginez khe-
chu-khechus dabilzala. Eta azkenean, ikhus-
ten ditut batzu erregina edo paupifien pare
sphainduak doazila, bertze batzu eskaleak
iduri philda toharrekin jauntziak.

Eta dena mugimendutan dagon mundu horri
beha nagolarik, zerutikako boz bat aditzen
dut, diola: Unum est necessarium; gauza ba-
khar bat bilha oroz lehen. Zein da gauza hu-
ra? Saildu izan zaitozten. Saildu izaltea,
horra gure mundu hurbato lan baltezapadako.
Ez othol izi; saildutzen, ez da zuek uste
azuzen bezain lan gaitoa. Berehala ikhusi-
ko duzue.

I

Guziak izan behar narate saildu. Jainko-
ak hortarako egiti zaituzte; gixistino izai-
teak hortara zaituzte hortatsen; men onik
haudiena ere da, saildu izan zaitozten.

Aditu duzue Jon doni Paulok zer duen erran: Jainkoaren nahia dela, saildutzera berma zaitzeten. Ez zaitzekete nehola ere nahi horren kontra joan; ez zarete zuen buruen nausi; non estis vestri. Osoki Jainkoarenak zarete. Jainkoak zaituzte egin. Beinan egilea ez othe da bere obraren nausi, obra ez othea egilearen ontasuna. Beraz Jainkoaren ontasunak zarete.

Egin dezake zuetarik nahi duena. Nahi duen lanaren egitera herra zaitzazkete. Ez zinukete zuenik erraiteko: zertako hau? zertako ez hura? Ichil-ichila Jainkoak eman lanari lotzea, horra zuen egitekoea.

Jainkoak zer dantzue galdatzen? Saildutzera berma zaitzeten. Berak huna zer dion: izan zaitzete saildu, Ni zuen Jainko Jauna saildu naizen bezala. Sancti estote quia ego sanctus sum.

Jainkoak egin zaituzte zerukotzat; bainan zerura helzeko, ez othe da saildu izan behar? thonarik ttipienarekin dena ez ditake zerruan sar, diote Iburu sailduak. Apoc. 21, 27. Jainkoak nahi du gizon guziak salba diten. Thim. 2, 4. Beinan salbatzeko ez othe da izan behar egiazki saildu. Gizon bezala ez da beraz zuentzat saildutea baino eginbide hersiagorik munduan.

Gristino bezala, zenbat gehiago? Izaitea gristino eta saildu, ez othe da kasik bardin? Gristino izaiteak ez othe du saildu izaitea galdatzen? Apostoluek deitzen zituzten lehen gristinok sailduaren izenez. Gens sancta.

Gristinok izan behar dire oraino Jesusen dizipulu. Eta dizipulua ez othe da izan behar bere nausilaren iduriko? Iurreko gauzeri esteakatuak zarete? ez zoazte khurutzea soinean Jesusen ondotik? orduan ez zaitzete Jesusen dizipulu. Eta badakizue, g.m. Jesus saildu da; behatuaren itohura bera ez dezake jasan. Bere etsaiek desafiatzen dute; bainan debaldetan. Erraiten diote: egundaino ikhusi nauzue bekha-

turik ttipienaren egiten? Beraz nahi bazarete Jesusen dizipulu izan, berma zaitzete saildu izaite-ra, eta sekulako higuat zazue bekhatua.

Bertzalde, g.m. zuen onik handiena ere ez othe da saildu izaitea? Saildu izaiteak ez zaituzte bakharririk ezartzen dohatsu bertze munduan, bainan oraino mundu huntan berean. Noliz zarete zinez dohatsu? ez othe zuen eginbide guzia bethe duzuenan?

Erraiten dantzute maiz: hulakoa dohatsu da, aberats delakotz; halakoa dohakabe da, errumes delakotz; behar bada zerrorrek ere erran dukezue. Ez da ba hola. Aberats guziak ez dire dohatsu; eta errumes guziak ere ez dire dohalabe. Gerthakari hori egun guziez begien aitzinean dugu.

Barneko gozoak, bihotzeko bakeak, horra zerk duen ezartzen gizona zinez dohatsu. Eta barneko gozoa, bihotzeko bakea, ez ditazke sal ez eros. Ez dire diruz ardiesten, are gutiago lurreko gauza eta atseginen arartekotz. Nor da beraz bihotzeko bakeaz eta barneko soseguaz gozatzen? Konzienzia garbi duena; bainan nor atchikitzen du bere konzienzia garbi? saildutzera bermatzen denak.

Izan zaitzete beraz saildu, eta izanen zarete zinez dohatsu mundu huntan; zenbat gehiagi bertzean? Badakizue, g.m. ez dire heriotzean akhabatzen gauza guziak. Edo gare salbatzen edo gare danatzen; edo gare zerurat igaiten bethiorako zorionaz goatzera, edo gare ifernurat jausten sekulako oin hazen erdira. Bainan saildu ez denik ez da zerruan sartzen; eta ifernurat nor doazi? saildu ez diren guziak. Orduan batere bere ethorkizunaz grinatsu dena egon othe ezachol sailduteko lan handiari buruz? Oraino saildutea hain gaito baliz?

II

Igorria banaintz hunat zueri erraitera: abe-

rastu nahi zarete? zoazte hulako tokira; han hatzemanen duzue urhe mia bat. Edo ohoretara heldu nahi zarete? zoazte hulako erregearen ganat; fagore handi bat egin nahi dautzue. Edo lurreko atseginez gozatu nahi zarete? zoazte holako tokira; han hatzemanen dituzue. Ah! erduan zer kharrarekin ethorriko zinaizketen ene aditzera. Nik erran guziak chuchen betheko zinuzketela!

B

Bainan ez: ez naiz hemen holako gauzen bilhartzera zuen sustatzeko. Deusik ez zaizkit zuentzat lurreko ontasunak, lurreko ohoreak, lurreko atseginak. Badut hoberik zuentzat. Ezen hemen naiz zueri erakasteko nola bil sekulako ontasunak, nola hel sekulake ehoren erdira, nola jar sekulako atseginez gozatzeko bidean. Nahi zaituztet dohatsu ezarri ez bakharrik lurrean, bainan oraino zerran; ez denbora batenzat, bainan eternitate guzikotzat.

Saindu izan behar zaitzelako orhoitzape-nak harritzen zaituzte menturaz. Uste duzue saindu izaitzea biziki nekhe dela; ez othoi harri, are gutiago lotsa. Saindu izaitzea ez da zuen indarrez gorageko lan bat. Saindu izaitzeko ez uste izan utzi behar direla bere ahaide eta adisidiek; behar dela joan desertura edo komentu batetara; behar dela ichuri bere odola, eta jasan oin hazerik ikharagarrienak; behar direla egin mirakulnak edo Elizaz saindutzat atchikia izan. Holakorik egin gabe izan ditake saindu. Zer duzue beraz egin behar saindu izaitzeko? Manamenduak beiratu, ahalik eta hobekiena.

Jesu-Kristok bathaleaz egin zaituzte zerruko premm. Zein handi! Izan zaitzete errege edo enperadore; hori baizik ez bazarete, deusik ez zarete. Herioari aski zaio minuta erdi bat erregetasunaren zueri khentzeko; herioak ezartzen zaituzte gizonik erremesena.

baino aphaltago, Bainan izan zaitzete giristino, ezizenez bakharrik, bainan egiazki, bihotzez eta obraz? Guzien gainetik zoazte; herioak berak handitzen baizik ez zaituzte.

Zer du ba egin behar giristinoak hoin handi izaitzeko; erran nahi baita, saindu izaitzeko? graziazko estatua eder atchikiz bizitzeko? Jainkoaren hamar manamendu, Elizarenak sei, orotara hamasei manamendu beiratu. Ez da anhitz; munduak gehiago dauka galdatzen. Munduko justiziaren eskuetara ez erortzeko, badakizue zenbat manamendu dituztuen bethetzeko? milaka; eta ez duzue hor deus gaiztorik hatzemaiten.

Giristino izaitzeko, saindutasunera helzeko, hamasei manamendu bakharrik beiratu. Eta sobera gaizto hatzemanen zinukete hamasei manamendu hoikien beiratzea?

Zer duke bada gaiztorik manamenduen beiratzeak? Jainkoaren maitatzea bihotz guziaz? Bainan Kreatzailearen, aitarik hobezarenaren, amulsuenaren maitatzea baino errethogorik, zuzenagorik eta gozoagorik othe da deus? Jainkoaren otheiztea goitz-arats othe da ba biziki gaizto? Bainan ez gare errumesak, Jainko maitearen eskaleak? Jainkoaren benedizioeak ez dituzte behar zuen gorphu-tzantzat, eta haren graziaz zuen arimentzat? eta anhitz gostatzen da benedizioe eta grazia hoikien galdatzea?

Zer duke orobat gaiztorik Jainkoaren izen sainduaren errespeturekin erabilzeak? burho eta sakretarik beiratzeak? Haur onak indar handiak egin behar othe ditu bere aitaren ez laidosatzeko? bere ongiegilearen ez madarikatzeko, bortoia handia egin behar othe du bihotz oneko jendeak?

Ez zaut bada iduritzen biziki gaitzoago dela Igande eta Besta-buruetan meza bat entzunez eta lan debekatuetarik beiratzuz Jainkoaren oharatzea. Arimak ez othe du irabazten Igande egunetan othoiz eginez eta gorseguen egenez? Zenbat eritasun eta gaitz gutiago litakeen munduan Igan egunak sainduki iragaiten balire eta jondea soseguan balago!

Zer duke oraino gaitzorik familiako eginbideen bethetzeak? burhaso batek bere haurren ez giristinoki alchetzeko, eta haur batek bere aita eta amaren ez errespetatzeko ez othe date izan behar mastro bat?

Zuen ustez nun dukete beraz manamenduek beren hersitasuna? Giristino lagunari, zuen haurrideri kalterik ez egitean, ez beren bizian, ez beren ohorean, ez beren ontasunetan? Baina zer behar da hortakotz? ez izan ez mihitzarreko gizon bat, ez gizon hilzailo bat.

Gaitzoago othe da gogoeta, solas, eta agintzen gainera atzarria egoitea? gogoz, hitzez eta obraz lohikerian ez pulunpatzea? Baina garbi bizitzeko zer behar da? Orhoitu jende dela, giristino dela, bathaioak Jesu-Kristoren haurride egin gaitzela; hitz batez bere burua errespetatu. Garbitsun saindua zango pean ezarri, lohikerian pulunpatuz ez othe da jausten jende salbata baino behezago eta bilhakatzan alimalea ere baino higungarriago?

Menturaz Elizaren manamenduak gaitzoago dire bethetzeko? kofesatzeak zer du baina borthitzik? Gizon batek egin balu sekulako galexak edo hilzea merezi duen belzkeria bat; eta erraiten badiote gero, aithorrak hire belzkeria jubearen beharrira eta barkhamendua izanen duk; aithor horren egitea gogorrei hatzemanen othe luke? ez naski. Bada ko-

fesatzeak ez othe du bekhatorosa seklako galaretarik libratzen? Gero erregeak onaren onez gomitatzen balu bere mahainean jartzera, bietan erraite beharrik othe luke? ez naski: Baina zeru lurren erregeak ez othe ditu gomitatzen bekhatoros urrikitu guziak bere mahainean jartzera?

Barur etamshe egitea aphur bat gostatzen zaizkitzue, badakit. Baina ere badakit barur eta mehe eginik egundaino ez dela nehor hil. Hala-hala besta sobera egiteak sobera jateak eta edateak badute zenbait igorrik hil herrietara. Beraz Elizak barur egitea manatzean, gure gorputzeko eta arimako ona bilhatzen du.

Oraino bakharrrik bazinezte saindutzeko lanean, bazinukete lotsatzeko arrazoin. Baina ez zaizte bakharrrik; Jainkoaren grazia ez duzue hor zuen laguntzeko? Graziarekin, zer nahi egin ditake, graziarekin sakrifizi- orik handienegiteko gai da gizona; eta izaiten du grazia hori galdatzen duenak.

Bertzalde, Jainkoak ez dantzue zueri gal-datzen sakrifizio handi-handi hetarik. Zer bada? manamenduen leialki beiratzea bakharrrik. Egun artio nahi dut gauza hertsietan beiratu ditutzuela. Hemendik aitzina, beirakitzue gauza ttipienetan orobat; erran nahi baita, bekhatu mortaletik bezala beira zaitezte bere nahitarako bekhatu bebialetarik.

Egun artio, nahi dut, bethe ditutzue zuen estatuko eginbideak; hemendik aitzina, bethezkitzue leialtasun hersiako batekin, chade hobetan, sinezte biziago batekin, khar handiako batekin.

Egizue hemendik aitzina Jainkoaren oho

ratzeke chedetan, egun artio egin dukozuena
lurrekotzet, mundarentzat. Egizue hemendik
atzena Jainkoak nahi duelakotz, Jainkoari
atsegia egiteko, egun artio egin dukozuena
zuen burutara edo lurreko onen emendatzeko
chedetan bakharrik.

Eginzkitzue ala jatea ala edatea, ala
lana, ala munduko urhats guziak, ala erlisi-
oneko urgats guziak, ala bertze zer nahi, e-
ginzkitzue guziak Jainkoaren gloriako, eta
zuen arimen salbamendurako. Egizue hola eta
biziko zarete. Biziko lurrean sailduen bizi-
tzeaz, eta egun batez zeruan, hautetsien
bizitzeaz.

ESPERANTZA SAINDUAREN INDARRAZ.

Spos illorum immortalitate plena est.
Sainduen esperantza bothiereko bizitzearen
jabe da. Sap. 3,4.

Giristino maiteak,

Erran dukezue frangotan: Erlisioe saindu-
ak, kasik bethi, bizitze hertsira deitzen gaitu.
Bethi khurutzez eta penitentziaz mintzo zaiku.
Manatzen ditu kasik bethi naturalezari min egi-
ten dioten urhatsak. Bizkitartean ez da bethi
hain garratz. Baditu urhats eztiak ere. Baditu
gure bihotzeko zaurien eztigailuak. Eztigailu
hoietarik bat da Esperantza saindua.

Esperantza saindua gabe zertan ginitazke?
Jeinkoak bere ontasun neurrigabeen ez zezakegun
oman Esperantza saindua baino deus gozoagorik
mundu huntako atsegabeen eztitzeko. Eta huna
zertako?

I

Itchura guzien arabera, gizonaren mundu
huntako bizitzea zer da? gauzarik hitsena, pia-
iarik hertsiena. Sor, paira, eta hil, horra hiru
hitzez, gizonaren lurreko bizitzea. Bethi eta nun
nahi, barnez eta kanpo, atseginarean ondotik ga-
bilza, eta ororen buruan, ez dugu atsegaberik
beizik hatzemaiten.

Gizonak denbora guti du mundu huntan bizi-
tzeko, eta dena ere, dio Job sainduak, zer nahi na-
higabe suertez bethea du. Brevis vivens tempore
repletur multis miseriis. Job 14, 1. Pairatzeko
baditugu biziko atsegabeak, heriotzoko hersturak,

gorphutzeko eta bihotzeko gaitzak, arimako eta kontzientziako khechadurak. Hots itzul gaiten eskun, itzul esker, goazin aitzina edo gibelerat egin dezagun, atsegabea bethi ondotik dugu. Ez dauku uzten aphur baten onik lurraren gainean.

Goazin gogoz ohako baten aldera? zer dugu ikhusten? haur bat garhasiaka, eta nigarretan. Behar-orduak, errezeluak, eta mota guzietako minak harrapaka lotzen zaizko haurrari sorthu orduko. Ez dute uzten hobira jaitsi den artio. Handitzen dea? lanak hartzen du bere besoetan, ez mainatzeko, baina bai hersteke, eta piraka-piraka higitzeko. Kan ditu orobat bere jaidurak, bethi galdez eta sekulan ezin aseak, bethi jauziak eta sekulan ezin apazatuak. Gerochago gainera heldu zaizko biziko mila egitekoak, buru hausteak, us-tegabekeriak, beren ondorio hertsiekin.

Eta oraino hortan akhabo balire gizonaren lurreko atsegabeak! baina ez: hoiien aldean, bertze mila behar-orduk tirapilkatzen dute oraino alde guzietarat. Bekhatuan eroriz geroz, itsumen-duz joa du bere adimendua. Ez dakigu frangotan, guretzat zer den on eta zer gaisto; eta hortakotz gerthatzen zaiku askotan gaistoenaren hautatzea, gure kaltetan denaren ondotik ibilzea. Eta gero zenbat gaitz mota edugu bethi aldean mehatzatzen gaituztela? Zer bihotz minak ez ditugu jasaiteko gure barnean, zer nahigabe khiratsak etchean, zenbat gaistakeria etsaien aldetik, zer galzeak gutienik ustean!

Zahartzeak bederen ekhartzen balaiku zer-bait onik? Zahartzean? baina bizi iraganeko behar-ordu, eta nahigabe guziak ethorriko zauzku betan gainera. Zahartzearekin, jasanen ditugu haurtasuneko ahulezia eta errezelu guziak, gaztetasuneko ilhundura, ilusione eta gabezia guziak;

eta oraino dorpheago baizik ez, ditugulakotz hobeki ezagutzen eta gehiago senditzen.

Heriotzeak berak, urrunduko othe ditu gure ganik atsegabe guziak? ez: herioa hurbilduago eta atsegabea saminago baizik ez zauku eginen. Ikhus-tan maite ginituen guzietarik berechtera goazila aphur baten buruan akhabo garela; deusik ez garela izanen; hil eta berriz Jainkoaren jujamenduek igurikitzen gaituztela; baina heriotzeko orenean atsegabeak gaindi eginen dauku?

Horra bizkitartean, g.m. gizonak zer duen igurikitzeko lurraren gainean, ohakotik eta hoberaino. Gizonaren lurreko atsegabeak frangotan haundire saminak, ez baita arraro ikhustea guziz ere egungo egun tzarretan, sinestorik gabeko jende batzu beren buruak chahutzen gehiago ezin jasanez atsegabeen zimikoak. Eta zer sendagailu behar da holako gaitz handien sendatzeko? Bada ere holako sendagailurik? eta balinbada nun hatzeman? Lurreko gozamenetan? baina bakhartrak dire lurreko gozamen hoik izan ditzazketenak; denak ere ez othe dire hutsak eta enganakorrak?

Ba naski urrunetik behatzen bazeote, zer nahi hitzemaiten dute; kanpoz eder dire; itchuraz badaukate zorion, bake, eta atsegin. Baina lurreko gozamen hoik eskuratzen direa? gizona atzinean baino hutsago, eta atsegabeaz minduago baizik ez dute uzten. Zer diot? lurreko gozamen anhitzek jendea aberetzen eta aphaldurik baizik ez dute erartzen; batzuek alimalea bera baino ere aphalago ezartzen dute. Lurreko gozamenik garbienak berak, handik edo hemendik, samindurak phozindatzen bozala ditu. Zer nahi egin, ez othe dire heriotzean bederen galdu behar? Lurrean ez da egiaiko gozamenik, bakhar batez kanpo; sein da hura? atsegabea.

Ez da munduan atsegabeko gabeko jenderik; atsegabeak hersten ditu pobreak bezala aberatsak, langileak bezala nausiak, azpikoak bezala buruzagiak. Beraz atsegabeen arras urruntzeko ez bada ere, bederen heien eztitzeko gizonak badu baitezpadako sendagailu baten beharra.

Bainan diot herriz ere, othe da holako sendagailurik? Ba, g.m. Bada bat; eta oraino segura, botheretsua, oroz gainekoa. Hura da esperantza saildua. Jainko bat azkon helburutzat, haren erresuma gozamentzat, haren zeru ederra egoitzatzat, haren loria neurrigabea, haren zorion ezin gozoagoa saritzat, haren eternitate dohatsua iraupentizat: giristinoak, horra zer duen egun batez igurikitzeke. Baduke deus hoberik bere nahigabeen eztitzeko? bere bihotz minen arintzeko? bere gaitzen gochatzeko?

II

Beraz, g.m. ethor zaizkigula gainera alde batetik gabezia, atsegabea; bertzetik errezelua eta mota guzietako gaitzak, eta ethorriko zaizku, ezen pairamenari lurraren gainean ez da nehor eskapatzen. Bainan huna zer daukun erraiten esperantza sailduak: orhoit zaitezte bekhatuan eroriz geroz gizona sortzen dela pairatzeko. Bizkitartean ethorriko zaitzue egun bat, handik harat ez baituzue gehiago jasanen ez goserik, ez egarririk, ez hotzik ez berorik, ez gaitz bihirik. Zuen gorputza orai hilkor da, gaitzak alde orotarik hersten du; bainan egun hartan phiztuko da lorios eta eder eta kasik izpiritu bilhakatua. I Cor. 15, 42.

Oraino zenbait denboraz jasanen dituzue gabeziak eta eritasunak; bainan ordainez Jainkoak ez daitzue hitzemaiten sekularo onatasunen nasai-
zia, eta harritzeko zorionaren bethetasuna? Ps. 35, 9
9 I. Mundu huntuako atsegabeak laster itzalio dire
guretzat; eta erdietsiko daukute aldiabatzetik

gabeko dohatsutasuna. Eta orduan, g.m. ez othe gi-
nake erran behar Jon doni Paulok bezala: ene boz-
kario guzia ezartzen dut Jesusen pairamenetan; ene
chore guzia Jesusen khurutzean. Gal. 6, 14.

Zuen eginbideari leial zaudeztolaketoz, jende
gaistoek belzten, laidostatzen, eta higuntzen zai-
tuztea? orhoit zaitezte Jesu-Kristo zuek baino
lehen belztu, elhorriz khoronatu, azotatu, higundu,
eta khurutzeфикату dutela. Bertzalde, ez othe dugu
lehenik Jesusekin pairatu behar, gero haren zori-
onean phartalior izaiteko? Rom. 8, 17.

Eta Jesu-Kristok zer erran du Ebanjelio sain-
duan? Dohatsu nigarrez daudenak, heientzat baitago
zeruko erresuma. Zeruan ez da gehiago ez heriotze-
rik, ez dolurik, ez nigarririk, ez auhenik, ez pairame-
nik, atsegabeen denbora iragana delakotz. Zeruan
gozatuko gare bethiereko bakeaz, sekulako zorionaz,
eta neurrigabeko ontasunaz. Orhoitzapen hunek ez
othe gaitu bozkarioz gaindi ezarri behar mundu
huntuako atsegabe guzien erdian?

Jaidura makhurrek ere nahi gaituzte gibela-
tu gure eginbidearen bethetzetik? adi-zazue espe-
rantza sailduaren hitz salbagarririk: ez ahantz,
dauka erraiten, ez ahantz mundu huntara ethorri ga-
rela gudukatzerara. Job 7, 1. Izan othe ditake sain-
du indarririk egin gabe? beroki gudukatu gabe? jai-
dura makhurrak zaphatu gabe?

Beraz ez lotsa: Jainkoak ez du nahi izan gi-
ten gure indarrez gorego tentatuak. I Cor. 10, 13.
Gure indar hutsekin deusere edo arras gauza guti
egin badezakeregu, guziak ahal ditugu azkartzen gai-
tuenaren medioz. Joa. 15, 5. Eta Jainkoak gurekin ba-
da noren baldur izaiteko dugu? Rom. 8, 31.

Jaidura guziek betan setia gaitzazkete, ge-
rhait, sekulan. Deusek ere munduan, ez heriotzeak,
ez bizitzeak, ez gaistoen laidoak, ez lausengatzai-

ohorek, ez zeruko botherek, ez ifernuko etsaiek, ez izaitze bihi batek, ez dezakegute kien bihotzetatik Jesu-Kristoren amodioa, ez gaitzakete geldiaraz Jainkoaren maitatzetik. Jainkoa zinez maitatzen duenak erraiten du santa Theresak bezala: edo paira edo hil.

Bizkitartean, g.m. guduan ari garelarik barteanean gorphutzeko behar-orduen eta bertzean ari garen mako gaitzen kontra, denbora badao bere bidean, heriotzea hurbilzen ari zauku. Eta zer da heriotzea? Munduko atsegabe guzietarik handiena, ikharagarriena. Herioa bethi aldean dugu bere sega-lazgarriaz istant guziet mehatchatzen gaituela. Gutienik usteen joko gaitu, oraino urrun daukagu behar bada; eta jadanik sakhia egiten hasia dauku, khentzen gaitu maite ginituen guzien aldeetik, beresten gaitu lurreko gauza guzietarik, beresten gure buruaren ganikan ere, khenduz srima gorphutzetik. Ezartzen gaitu denbora laburrez izenik ez duen gauza bat bezala. Heriotzeak, horra zertara gogoratzatzen ichil eta bat.

Eta ordu handi eta lazgarri hortan, zerk ahikiko gaitu etsimendutan erortzetik? Zerk emanen dauku aski indar ez lotsatzeko? Esperantza saindua. Sinestearen argia eskuan, esperantza saindua eremaiten gaitu hobiz bertzaldere, alchertzen du ethorkizuna gordea daukan estalia, haizurten ditu ilusionezko eta beldurrezko hedoiak, eta ezartzen gaitu bertze munduko gauza choregarrien aitzinean.

Esperantza sainduari esker, g.m. heriotzea biltzekatzen da guretzat lo ezti bat; ez gure izaitze guziaren suntsitze bat, bainan bizitze berri baten hastapena. Esperantzari esker, heriotzea agertzen zauku atsegabe eta gaitz guzien akhabantza, eta sekulako zorionaren hastapena. Heriotzean egia da uzten ditugu lurrean maite ginituen guzirik; bainan ez gare bethikotz elgarretarik beres-

ten. Esperantza saindua erraiten dauku: aitzintzen baizik ez dituzue zeruko lorialat, ethorriko zaizkitzue hek ere laster zeru bererat, eta han ez zarete gehiago elgarretarik berechiko.

Eta ikhusgarri horren aitzinean gaudelarik, gure bekhatuaren orhoitzapena heldu zauku gogorat? Jainkoaren jujamenduen orhoitzapenak lazten gaitu? ez lotsa; nahi dut zuen bekhatuak jadanik urriki minekin kofesatuak ditutzuela. Jainkoak ez du erran: behin barkhatu bekhatuez ez naiz gehiago orhoitzen. Egia da Jainkoaren jujamendua garratzak direla; bainan ez ahantz Jainkoa Juje bezain ongi Aita dela, eta oraino Aitarik hoberena, amulsuena, eta Jesu-Kristo guretzat othoitzean dagola.

Esperantza saindua zer segurtamena ez dauku emaiten? Esperantza saindua ezartzen gaitu herioa bera baino azkarrago. Esperantza duen giritinoak ez othe luke maite behar hilzea? ez othe lioke hel egin behar? Jainkoari lehenbailehen batzea gatik ez othe luke erran behar bihola Dabid erregeak bezala: Ondikotz! ala luzea baita ene lurreko desterrua! Ps. II9, 5. Noiz bada ethorriko zaut Jainkoaren ikhusteko zoriona? Ps. 54, 3. Nork emanen daukit urtzoari bezala hegalak bethiereko bakera eta sosegura heizeko? Ps. 54, 7. Jon doni Paulok ere zion: Jesu-Kristo da ene bizia, eta zorion bat zaut hilzea/Mori lucrum. Nork oraino berechiko nau gorphutz hilkor huntarik. Rom. 7, 24 San Frantses Asisekoak ere zion hilzerakoan: ez da goizegi, ongi ethorri herioari, idekikon baitaizkit zeruko atheak.

Esperantza saindua horra nola dituen lurreko atsegaboak ez titzten; horra nolako estigailuak dituen ichurtzen gure biziko gaitzen gainera; horra nola gaitzen azkartzen heriotzeko oren lazgarrian. Sekulan ez dugu Jainkoa aski benedikatuko emanik holako sondagailua gure gaitzen sonda-

tzeko eta atsegabeen ezititzeko.

Gehiago dena Jainkoak nahi du esperantza hori baitzezpada izan dezagun. Manamendurik hertsiena egiten dauka. Denbora eta urhats guzietan nahi du gure esperantza guzia haren baithan ezar dezagun. Dio, profeta baten ahoz: jakizue zuen Jainko Jainak nahi zaituztela lagundu zuen biziko behar-ordu guzietan. Nahum I, 7. Jainkoaren nahia gabe deusere ez da gerthatzen. Jainkoa gauza guzien Nausia da. Eritzen zarezte? ez nehoen gain eman zuen gaitza; Jainkoak zaituzte jotzen. Sendatzen zarezte? uste duzue monturaz erremediook zaituztela sendatu; bainan ez; Jainkoak dautzue osagarria igortzen. Job 5, 18. Jainkoak nahi duena egiten du heriotzea hala-nola bizitzeaz.

Gizon gaistoak saminki jazartzen zaizkitzue? Ez suminduren sar, oraino gutiago mendeka. Justu-eri egin tzarkeriak Jainkoak berak nahi ditu mendekatu. Ps. 145. Ez izan oraino biharamunaz grifia sobera; gose amikatuak daudeneri Jainkoak igortzen atsetzekoa. Ez orobat lotsa zuen atsegabeen erdian; atsegabeak lehertuak dauzkaneri Jainkoak esku emaiten diote eta kontsolatzen ditu.

Zer nahi gaitzek jo zaitzaten, gabeziak hala nola eritasunak, ez sekulan gal Jainkoaren baithako fidantzia. Zuen behar-ordu guzietan hel egiozue Jainkoari. Galduak zareztela segur bazinezte ere ez gal zuen esperantza, egizue Abraham patiarrak bezala. Segur ez zaretela tronpatuak izanen.

ELISIONE SAINDUARI
DARRAI ZKON GOZACARRIEZ

Pax multa diligentibus Legem tuam.
Beira manamenduak, eta bake handiaz gozatuko
zarezte. Ps. 118, 165.

Giristino maiteak,

Aingeru bat bethi badago giristincaren alde
an. Aingeru horren izena, nahi duzue jakin? Deit-
zen da: Erlisioe saindua. Erlisioe sainduak
dio seguratzzen bekhatoros urrikituari barkhamen-
dua, jaidura makhurrek herstua daukaten giristino
ari, garhaizia, atssegabetan dagon giristinoari,
Gozagarria.

1

Ontasun neurrigabeaz, zorion baztergabeaz,
Jainkoaz beraz gozatzera deithuakgare. Jainkoa
bera nahi da izan gure bihotzen gozagarri bakha-
rra. Horra zer daukum erakasten erlisioe sain-
duak. Hitzemaiten dauku, zerua bezain zabaleko
ontasuna, eternitate bezain luzeko zoriona. Eta
zorigaitz guri, ez baginu erlisioe saindua sines-
ten! zorigaitz guri ez baginu Jainkoaz beraz go-
zatzea igurikitzen! Jesu-Kristo hil da guretzat,
eta Jainko baten odolak balic du ene ustez eta
merezki du Jainko baten gozamina.

Bainan, aita, dautazue hemen erraiten: garen
bezalako bekhatoros izigarrientzat, nola ditake
horrenbertzeko sari miregarria? Ez othoi lotsa:
erlisioe sainduak, huna zer dautzuen erraiten.
Izan zazue bekhatuuen urriki egiazkoa, aithorzkita-
zue laicki, eta gero fidantzia osorekin iguriki
zazue barkhamendua.

Ezin gehiago itsusiak eta belzak dire egin ditugun bekhatuak? orduan emaiten dautzuen barkhamenduak gehiago baizik ez du goretziko Jainkoaren Misericordia. Egin ez dugun bekhatu motarik ez da: balira ere itsasoko are edo salbe bihia' bezain andana handian, edo zeruko izarrak bezain andana handian, Jainkoaren Misericordiak, absoluzione baten, ufatuko dicte gainera eta suntsituko ditu guzian, haizeak suntsitzen dituen bezala aireko hedciak.

Bainan oraidinco bizi guzia bekhatuan ereman dugu? khondatu dituzue Jesusek ichuri odol chopta guziak? neurthu duzue Jesusen gorphutzok⁸ zaurien barnatasuna? eta oroz gainera, izartu duzue Jesusen Bihotz sakratuaren zabaltasuna? Misericordia ez ote da guri buruz Jainkoaren perfetasunik handiena eta ageriena? Jainkoaren baithan ez da deus alferrik; zeruko lorian, Jainkoaren Misericordiak ez du deus barkhatzekorik. Justuentzat ere ez da an-hitz bat zerbitzatzeko. Lurreko justuek ez ote du te Jainkoa leialki zerbitzatzeko? eta orduan, nor zaizko gelditzen? bekhatoren dohakabeak.

Be, g.m., bekhatoseri buruz da Jainkoaren Misericordia zerbitzatzeko; bekhatoren dohakabez da urrikalzen; bekhatoren bihotzetara du ichurtzen barkhamenduaren gozoa. Nahia bezain andana handian eta belzak izan beste zuen bekhatuak; urriki egiaz koarekin hel egiten badiozue Jainkoaren Misericordiari, ez zaituztete galduko zaitzekete gal.

Zertako da Kain bat ifernuan? bere anaia hil duela? ez; bainan Jainkoaren Misericordian etsitu duela. (Major est iniquitas mea quae ut veniam meretur.) Zertako da errana Jhasen gatik: hobe zitakeen harontzat sekulan sortu ez balitz; bere Jainkoa saldu duela? ez; bainan etsimenduz bere burua urkhatu duela. Dohakabe! ezarri ba lu bere esperantza Jainkoaren baithan, Jesu-Kristok barkhatuko zizken bere belkeria, Jon doni Petri

berneaguak, Jon doni Pauleri bere tzarkeriak, santa Madalenari bere itsuskeriak barkhatu zizkaten bezala.

Jainkoaren Misericordiak ez nehor mehatchatzen, ekharria da, aitzitik, beharordu guzietan gure laguntzera. Ez du nehor gaztigitzen, bainan ekharria da huts guzietan barkhatzera. Ez du nehor baztertzen, bainan ekharria da guzie bilzera, guzie saristatzera. Ez erran beraz, Jainkoak barkhatu dazkunean bekhatuak, zer eginen dugu hainbertze jaidura tzarren erroak gure binotzetarik khentzeko? nola dugu zaphaturik atchikiko gure haragi tzarra? nola ditugu trenkatuko alde orotarik amarretuak atchiki gaiztuzten lokharriak? Huna zer dautzuen erraiten erlisione sainduak:

Jonas profeta botatzen dute itsasora. Uhaipean ithotzera doa. Bainan ez: Jainkoari hel egiten dio eta salbatzen da. Arrain izigarri batek iristen du, eta eremaiten bere sabelean itsaz he gira; han botatzen du leihorrera. Hiru gizon gazte botatzen dituzte labe gorritu baten barnera. Erre kichkailtzera doazi; bainan ez: Jainkoari hel egiten dicte, eta salbatzen dire. Suak erretzen ditu helen eskuetako burdinak, eta uzten heien gorphutzak minik gabe. Jon doni Petri preso da. Zerrapo Akheragarri batek hesten ditu hura dagoen presondagiko atheak. Soldado gaiste batzuek zaindua da. Eiharamuean hil behar dute. Bainan Jon doni Petrik Jainkoari hel egiten dio, eta salbatzen da. Aingeru batek idekitzen diozka atheak, trenkatzen diozka eskuetako burdin lokharriak, eta eskapatzen da nehor senditu gabe.

Horra zertak, g.m., lohikeriaren su garrak jauzten bazaizkitzue bihotzaren zolan, labe gorritu batetako su garren pare, hel egiozue Jainkoari; eta Jainkoak, bere grazietan ihintza, hilen ditu. ✓

Bainan ere orduandu erraiten Jesu-Kristokk Ni naiz phiztea eta bizia; Nisinenen naubenetarik bihi bat ez da hilen, bainan izanen du bethieroko bizitzea. Beha zerura, (sursum corda) egun batez han duzue kausituko galdu duzuen adiskidea, erra- han dautzue ere erlisione sainduak.

Ama gaioha, nigarrez zaude zure haur maitea galdurik. Erlisione sainduak igortzen dautzu ama dohakabeen Kontsolatzailea. Beha, Jesu-Kristo ur- rikalzen da Naingo ama dohakabeaz, eta bihurtzen dio bizirik galdua zuen haur bakharra eta jada- nik hil-herrietara zerematen. Beha beraz zeru- rat; Jesu-Kristok han dautzu bihurtuko bizirik galdua zinukan haur maitea.

Zuekere, aita bat, ama bat, galdurik atsegabo- tan zautzen umechurch gaioha! utz zazue erli- sione saindua zuen ganet kurbilzera, eta zuen na- higabeen pharte hartzera. Da atsegaboz minduak daudenen Kontsolatzailea. Ez ditu segur kodenat- zen zuen nigarrak eta ahenak, bainan bai benedi- katzen eta onnartzen. Beha othoi, zerurat, han di- tutzue kausituko egun batez sekulako bizitzeaz inguratuak.

Zuek azkenekotz, pobre, langile, errumas eta zaharrak, zuek bereziki zoazte erlisionearen besoetara? erraiten dautzue: Jesu-Kristo, pobre eta langilen adiskide handia da; Norentzat erran di- tu hitz hauk: Dohatsu pobreak! Dohatsu nigarre- tan daudenak! Beha othoi zerurat, han eginen zai- tuzte handi eta aberatsymundu huntan zuek bezala ttipi eta pobre izan den Jainkoak.

Bertzalde, g.m., izanen zinuzkete lurreko on- tasun guziak, atsegin eta chere guziak, ez usto izan hoiakin aseko zinuzketela zuen bihotzeko lehia guziak. Zertako? Lurra bere ontasan, atse- 3

III Bainan erlisionearen indarra urrunage doa. Ezitzen ditu oraino mundu huntako atsegaba- ak. Erraiten dauku guzietz; ez othoi arrangura zuen lanez eta nahigabeaz. Jainkoak ez otho gai- tu kondenatu Adamen haur guziak kopetako izerdi- aren gostuz irabazi ogiaren laterat? Luna gazti- gu bat da gizonentzat bekhatua munduan sartuz g- rozetik, edo hobeki da bekhatuez egin zorren paga- tzeko bide bat.

Bada hemen ere erlisione heldu zauku bere zerbitzuen emaitera. Munduko lan eta nekheen er- ditik beha zerura dauku erraiten. Ken ez da gehi ago lanik ez atsegaberik; han bethieroko esegua da.

Bertzalde, g.m., bekhatu egin dugu guziakgu- tiago edo gehiago; beraz zuzen da zerbaiz izan dezagun guziak pairatzeko. Eta zer? nahi ginuke khurützerik gabe izan Jesu-Kristo gure haurride eta gidaria, bereaz kargatua doan denboran? Zer? nahi ginitazke arrosa lorez khoronatuak izan, Jesu-Kristok berea arrantzezko khorenaz sarras- kitua deremanean? Zer? nahi ginuke ahoa ederi gochoz bethi busti, Jesu-Kristok berea khirastasu nez erreka duen denboran? Zer? nahi ginuke gure gorputza mila mainaz inguratu, Jesu-Kristok be- rea azote kolpez funditua duenean?

Ez dakizue bada, Jesu-Kristorekin behar dela mundu huntan pairatu nahi bada egun batez hare- kin gozatu zeruko zorionaz? Ez dakizue bada deu- sik ez direla mundu huntako atsegaberik handi- enak erlisione sainduak zeruan erakusten daukun zorionaren aldean? Zeruan nehorik ez du gehiago pairatzen, ez nigarrak ichurtzen, ez zauririk ek- hartzen.

Ah! dudarik gabe, nigar egin gabe adis- kide baten hobian, ezin zauzkete? ez naiz batere harritzen. Jesu-Kristok, adiskide guzistan hobe- renak, ez otho du nigar egin Lazaroren hobian? 2

Jaidura makhurren oldar eta zalapartek inharresten bazaituztote, oihu egizue, bihola apostoluek itsasoan galzera zozilarik oihu egin zuten bezala, erranez: Jauna, salba gaitzatzu, bertzenaz hilzera goaz. Jesu-Kristo berehala alchatuko da; erranen du, aski; eta izean duzue bakea. Et facta est tranquillitas.

Ifernuko etsalak ere balira zuen inguruan lehoi errabiatu batzuen pare, orduan ere hel eginez Jainkoari. Hara Daniel profeta. Botatzen dute goseak dauden lehoi batzuen erdira; bainan hel egiten du Jainkoari, eta lehoiak bildots bilhakatzen zaizkio, eta salbatzen da. Eta Lazaro, lau egun hetan hobi baten zolan ustelzen ari zena, ez ote zen alchatu Jesus bere adiskidearen boza entzutean? Oi beraz, g.m., nola nahikoak izan ditizen animako gaitzak, erlisione sailduak erraiten dautzue, ez lotsa; Jainkoaren graziazekin batean suziak ahal duzketzue; Jaidura makhurren zaphatzea, ahal dukezue; munduko galbide eta malzurkeriei eskapatzea, ahal dukezue; etsai gaistoaren oldareri ihardokitzea, ahalduezue.

Ba naski, zuen indar hutsetan behar bazinute khondatu, ikharan egon behar zinaizkete; hain gure jitez ahul eta fluchak! Gizonetan ere behar bazinute fidatu, ikharatzeko arraizoinik aski bazinute. Ete crainc; hain dire gizonen ganikako laguntzak huts egin errechak. Bainan erlisionesainduari esker baduzue laguntza hoberik. Erlisioneko urhatseri jarraikiz, Jainkoaren indarraz bethetzen zaizte. Ez dea egia, othoitz egin duzuenan, edo komunikone khartsu bat edo bertze egin duzuenan, errechki go zaphatu ditutzuela zuen Jaidura makhurrak, aiseago garhaitu etsai gaistak igorri tentamenduak; Erlisioneko urhatseri jarraikiz segura duzue gurtaile atheratzea bethi.

gin, eta ohere guziekin iraganen delakotz; eta iragaiten den gauzarik ez delakotz gai iragaiten ez denaren asetzeko, bethi bizitzeko egina denaren bethetzeko.

Gure bihotza bothe dezaKeen ontasuna, gure bihotzaren gai den zcriona, dio erlisione sailduak, ez da lurretik atheratzen, zeruan da sortzen, zeruan da gozatzen. Zer dio? ez du hastapenik, ez zedarririk, ez akhabatzerik. Jainkoaren ontasuna behar da gure bihotzaren bethetzeko.

Jainkoak egin gaitu beretzat, eta Jainkoaren gozama merezitzen da erlisioneko urhatseri jarraikiz. Eta munduan badau, erlisioneko urhatseri jarraikitzen den girstinoa bezain dohatsurik nehor? Ez; sailduak hor dire lekhuako. Atsegabeak hersten ditu alde erotarik, eta diote Jcn deni Paulorekin: zorionez gairi egina nagc ene atseguzien erdian. Kurutzearen kargak lehertzen ditu eta diote san Frantsesekin: Bozkarioz gairidzika bethetzen nau, hersturen kurutzoak zaphatzen nauenean. Erlisionearen etsaik saminki jazartzen zaizkote; eta diote apostoluekin: lorietan gaude dugunean Jesusen gatik zerbaiz jasaitako.

Eta ez da harritzeko: erlisioneko urhatseri jarraikitzen dena baithan, Jainkoak ez ote du egiten bere egoitza? Norbaitek maitatzen baneu, dio Jesu-Kristok, adi zazue: norbaitek sinesten baditu erlisioneko egia guziak, beiratzen menamendu guziak, bethetzen eginbide guziak, haron baithara jaitsiko gare, haren baithan eginen dugu gure egoitza. Ad eum voniemus et apud eum mansionem faciemus.)

Orhoit zaitzete, zerrorri zer zaitzuen egun artio gertatu. Zuen biziko egunik dohatsuenak, zeln izan dire? Erlisioneko eginbideak hobekie-

nik bethe ditutzuen egunak, ez dea hala? Ez zinez-
tena dohatsu zuen lehen komunioneke egunean? edo
hulako kofesio ona egin zinutenean? edo hulako
tentamenduari ihardoki zinutenean? edo hulako Bes
taburua sailduki iragan zinutenean? edo azkenean
hulako bekhata utzi zinutenean? Orduan Jainkoa
zuekin zintuen, eta Jainkoa berekin duenak ez othe
du paradisua bere baithan ekhartzen?

Beraz suharki guduka zaitezte mundu huntan
erlisioneke urhatseri bethi eta bururaino jarrai-
kitzeko. Atchik-aitzue azpitikzuen jaidura makur-
rak, beroki jazar zaKizkiote etsai gaistoari, ihes
egizue munduko galbideetarik, bihotz onez jasanz-
kitzue heldu zaizkitzuen atsegabe eta khurutzeak,
ongi borrokatzen denari hitzemanu zaio saria,
manamenduak bururaino beiratzen dituenari hitze-
mana zaio bethiereko bizitzea.

SINESTEA BEPAR DELA BAITEZPADA IZAN.

Sine fide impossibile est placere Deo.
Sinesterik gabeko urhatsik ez zaio Jainkoari ba-
tere gustatzen. Hebr. c. 8 ll, f.

Giristino maiteak,

Jainkoak egin gaitu fededun bataiatuak izan garenean. Bainan Jainkoak ez dauku eman sinestea alfer atchikitzeko. Nahi du balia gaiten gure a-
dimenduko ilhunpeen haizatzeko, gure borondate ahulen azkartzeko, eta gure bihotzeko cheden gar-
bizeko. Sinestarik gabeko obrarik Jainkoak ez du onhartzen. Sinesterik ez duenak ez daki deusere, gauzarik handienen gainean, ez dezake egin zeru-
kotzat deus onik; gau belzean bizi da.

1

Errazue, g.m., Jainkoaz zer zakiten gizonak sineztea izan aitzinean? deusere, edo belzkeria-
rik higungarrienak. Sinesteak erakusten dauku Jainko bakhar bat balzik ez dela, eta ez ditakela bertzerik izan. Aitzinean, erresuma bakhotchak, etche bakotchak, jende bakotchak, bazuen bere jain-
ko berezia; eta frangotan nolakoa?

Sinesteak erakusten dauku Jainko bakhar bat gauza guzleri begi daukana, gauza guziak guziak eskutik bezala gidatzen dituen, gure bihotzetako berri dakiena, eta bethidanik dena. Aitzinean, gizonak uste zuen gauzak bere buru zoazila, edo nun baitatikako bothere itsu batek zerabilzkala.
Sinesteak erakusten dauku egiatzko Jainkoa

neurrigabeki garbia dela, neurrigabeki zuzena, neurrigabeki ona, eta den gutieneko itzalik gabe per-fetasun guziak dituen. Aitzinean, gizonak nclako Jainkoak zituen adoratzen? btean lotikerian era-kusten duen Jainkoa, bertzean ohoitzalat sustatzen duen Jainkoa, orai iguzkia, sarri ilhargia, egun idi bat, bihar lehoi bat, eta bertze holako. Eta bardin eginen ginuela guk ere sorthu bagine heien erdian edo hoién mendean!

Eta holako itsuskerietan pulunpatu dire ez bakharrik eskola gabeko gizonak, ez bakharrik jende salbataik, ez bakharrik beren buruak aberetzat zauzkaten jendeak, baina oraino paganoen arteko gizonik argituenak. Izan dire, dio san Leon handiak, errege eta enperadoreak, zurezko, edo harrizko, edo burdinazko potret batzuen aitzinean belhau-nikatu direnak, heien aitzinean isentsua erre dutenak. Eta menturaz orobat eginen ginuela sorthu bagine sinesterik ez den tokian!

Sinesterik gabeko gizonak zer dakike oraino bere buruaz? Ikhusten du gaitzak alde orotarik inguratzen duela; eta ez daki zertako. Frogatzen du lurretikako gauza bihi batek ez diola bere bi hotza oscki bethetzen; eta ez daki norat joan bere lehien asetzera. Zerbaitek aditzerat emaiten diogorputza hilzearekin ez direla haren baitako gauza guziak hilzen; eta deusek ere ez dio zilhatzendenboraren eta eternitatearen arteko hedoi belza. Hots, sinesterik ez duen gizonak ez daki nundik heldu den, norat doan, eta zertako ezarria den mundu huntan. Sinesteak bakharrik erakats lezoke Jainkoa dela gauza guzien Egilea, eta gizona zerukotzat egin duela. Sinesteak erakats lezke oraino zer egin behar duen Jainkoak eman nahi dion zorionera helzako. Sinesteak erakats lezoke azkenean, zertako duen hainbertze pairatzeko, erran nahi baita bekhatuak ezarri duela gizonaren izalite guzia nahasirik.

Gizonak zer zakien oraino bere protsimo lagunaz sinestea errezebitu aitzinean? Aitari ez zitzailona haur bat gustatzen? hilzen zuen, edo oraino bere jainko falsuaren ohoratzeko suntsitzen zuen. Aita zahartu eta ezindu dea? haren hazteko lanik ez izaltea gatik, semeak hilzen du bere al-dian, botatuz edo itsasora, edo leze barna zeinbaitetara. Jende chehea alimalea bezala erabilia zen, jende beharra bazterrerat utzia zen edo itsaso baten zolara botatua.

Bainan sinesteari esker, gizonak ikhusten du bere idurikoan harride lagun bat, Jainkoaren haur bat, zeru bereko premu bat, Badaki Aita ber bat dutala zeruetan, bardin Jesusen haurride direla, eta sinestearen arabera prezatzen dueno bere protsimo laguna, ez dio kalterik egiten ez bere gorputzean, ez bere ariman, ez bere ohorean, ez bere ontasunetan. Horra, g.m. zer dakigun sinesteari esker, oraino eror ditakoen sinesterik ez denean, eta beraz sinestearen beharra zenbat den handia.

Bainan sinestea ez da bakharrik zerutikako argi bat, da oraino inder bat gure borondatea handizki azkartzen duena. Gizona hain da bere jitez ahula! Gizona bere gain utzia bada ez da gal bere jaiduren moldatzeko. Sinesterik gabe, gizonen borondatea, norat nahi itzul dadin, ezin gehi-ago erorkor eta fluch da. Nola nahi duzua ihardck dezan bethibere jite gaistoari? eta zer ar-razionez nahi duzue ihardck dezan? Berthutean bizitzeak bihotza gozoz bethetzen duetakotz? bainan emagun gizon bat bere jaidura makhurrek atse-gin lohietara azkarki herrestatzen dutena. Berthuteari darraikon gozoak nola nahi duzue hunki dezan holako gizon lohien bihotza?

Bertzalde, zer dugu ikhusten paganoen arteko gizonik zuhurrenetan? Lurreko gauzen ezdeuskeri-

az erakaspenik miragarrienak emaiten dituztela; eta gero berak lurreko ontasunen ondoretik harrapaka deazila, berak diruz ezin aseak direla. Fandizki gorensten dute lurreko atseginetarik beira-tzen den gizona, edo oraino neurritz gozaten dena; eta gero berak, lchikerian lephoraino pulunpatzen dire. Egiten zuten jenden aitzinean alegia ez maite ohoreak, bainan ohore gehiago baizik ez i. zaiteko chedetan. Bakhartasunean ezagutzen zuten egiazko Jainkoa, eta jenden bichtan ez zioten bihurtu nahi zor zaion ohorea.

Bainan lurrekotzat ere sinesterik gabe gauza on guti egin baditake, zerukotzat batere ez ditake egin. Gure indar hutsekin, eta sinesterik gabe ez dezakegu aipha ere Jesusen izen saindua bera. Gure indar hutsekin ez dezakegu izan lehia bakhar bat ere zerukotzat onik, gogoceta bakhar bat ere saindurik. Gure indar hutsekin, ez dezakegu egin Jainkari gustatzen zaionik deusere. Sine me nihil potestis facere. Joan 14, 6,

Zer diot? sinesteaz batzen ez dena Jesu-Kristori, moztua izanen da, aihon alferra bezala; ihartuko da eta errea izanen behiereko susan. Horra norat doan sinesterik ez duen gizona. Balitz beretzat gizonik garratzena, bertzentzat hoberena, sekulakotz hetsia egonen zaido zerua, zerua karitatearekilako obrekin delakotz idekitzen, eta karitatezko obra guziek galdatzen dutelakotz sines-tea.

Bainan sinestearen indarrak alcha beza gizonaren borondatea zeruko gauzetara? ah! orduan, suhartzen da; salbamenduko traba guziak errechki baztertzen ditu. Deusek ere ez du gehiago lotsatzen sinesteak azkartzen duen gizona. Gizonen balaknak, heien desafioak, heien agintza falsuak, kheinu batez baztertzen ditu. Lurreko atseginak niguntzen ditu, ontasunen zelateak trenkatzen ditu eta ohore eta handitasunak erdsinatzen.

Gure arbasoek, sinesteari esker, zer ez dute egin? Hara Noe justua: sinesteari esker bere den borako jenden trufak eta erasiak garhaitu ditu. Guk oribat, sinestearekin garhaituko ditugu gure adiskide eta hurbilekoen trufak eta laidokak nahi gaituztenean girstino urhatsetarik gibelatu. Abraham, sinesteari esker, bizi izan da arrotz bat bezala Jainkoak eman lurrean; gu ere sinesteari esker gozatuko gare munduko gauzez, Jainkoak nahi duen bezala. Moisek nahiago izan ditu bere popularekin atsegaberik handienak jasan, ezenez Faraonen khorlean atsegin lohietan pulunpatu. Guk ere sinesteari esker urrunduko ditugu atsegin lohiek, trenkatuko estekamendu galgarriak eta zaphatuko jaldura makhurrak. Sinesteari esker oraino, Moisek ukho egin du Faraonen haur izaiteko ohoreari; guk ere sinesteari esker, ukho eginen dugu munduko handi baten adiskide izaltari, ikhus-ten badugu ez dezakegula zerbitzu, Jainkoaren manamendu bat edo bertze ostikatu gabe.

Bertzalde, sinesteari esker zer saria ez dugu igurikitzeke zeruan? Laido bat uzten duzue arraposturik gabe? merezitzen duzue sainduekin batean Jainkoaren egun batez gozatzeko grazia. Ohore ezdeus bat uzten duzue? merezitzen duzue Jainkoaren haur izaiteko ohore paregabea lurre-rean, eta akhabatzerik gabeko zoriona zeruan. Ontasun iragankor bati ukho egiten duzue? merezitzen dituzue bethi diraute ontasunak. Jesu-Kristok ez othe du erran: Ene izenean baso ur emanen duenak izanen du sari bat zeruan.

Sinesteak galdatzen badauzku ere lan handiak, sari handiagoak hitzemaiten dauzku. Eta elgarrekin parekatzen baditugu Jainkoaren egin urhatsak eta Jainkoak ordainez hitzemaiten dauz-kun sariak, zenbat diren urrun batzu-bertzetariki Zer da mundu huntako ontasunez gabetua izaitea,

bethiereko ontasunez gozatzearen aldean? Zer dire lurreko atsegin iraganakorrak, zeruko sainduak gozatzen diren zorion paregabearen aldean? Deusere. Hala dio segurik Jon doni Paulok.

Eta oraino egia bada begia itzuli artean doan atsegin lohi batek merezitzen dituela sekulako oinhazeak, urgulua izanzen dela sekulako ahalgeaz estalia, mundu huntan irriz eta josteta dabilzanak, egonen direla sekulako nigarretan, aberats gaistoa egonen dela bethi ur chorta bat ten galdez, sekulan ardietsi gabe, nor da gogoeta hoik egin eta sinesteari jarraik ez litakeena, sinestearen arabera bizi ez litakeena?

111

Bainan sinesteak ez ditu bakharrik argitzen gure adimenduak, azkartzen gure borondateak, garbitzen ditu oraino gure bihotzak. Sineste bizia duenak ez othe ditu beiratzen Jainkoaren eta Elizaren manamenduak, bethetzen bere estatuko eginbideak, bihotzetik onhartzen mundu huntako atsegabeak, eta azkenean igurikitzen bertzeako atseginak? Sinestea ren arabera bizi den girstinoa Jainkoarentzat bizi da, haren nahi saindua bilhatzen du gauza guzietan.

Ohetik jekitzen dea? Jainkoari ofretitzen ditu lehen gogoetak eta egun guzietako egintzak. Othoitzean hasten dea? Khar bizi batekin egiten du othoitz. Lanari lotzen dea? bilhatzen ditu oroz lehen zeruko ontasunak eta gero lurrekoak. Mahai nes jartzen dea? bere aphairuotan hel egiten du zeruan hitzeman zaion akhabatzerik gabeko aphairuari. Solasean dagoia? bethi esker onekin mintzatzen da, eta bertzeri ongi egiteko moldean. Adiskide baten ikhustera joaiten dea? orhoitzen

da haratekoan, eternitateari buruz doala, urhats bakotchean hobira hurbilzen gabela. Lotan sartzen dea? gogoan derabilka loa herioaren itchura bat dela, eta gero jartzen da ongi hilzeko urhatsetan, erran nahi baita, eternitatean iratzartu behar balitz bezala.

Urrunago doa sinesteak derabilan girstinoa. Ez da urhats handi bihi bati lotzen sinestearen argiak izan gabe. Beraz erran behar duzue: zer erakasten daut sinesteak orai egitera ncan lanaz? Huna gizon gazte bat: bizi molde baten hartzera doa; behar du beraz erran: sinesteak zer chedetari nahi du loth nadin bizi molde berri horri? nahi othe du har dezadan lurrekotzat bakharrik bizitzeko chedetari? Ezkontzera doazinek behar dute erran: sinesteak zer saindutasun galdetzen dio ezkontzako estatuan bizitzera doanari? uzten othe nau nola nahi garbitasunaren eta modestiaren kolpatzera?

Bere haurren lurreko ona baizik bilhatzen duen aita familiakoak erran behar du: zer dio sinesteak ene haurren alchatzeko moldeaz? nahi othe du eneurhats guziak egin ditzadan, lanean lehortua ari nadin, heien lurreko ona bakharrik bilko? Sobera mundutarra den ama familiakoak erran behar du: sinesteak nola nahi du acha ditzadan ene alabak? erriten othe dio: zure alabak garbi atchik ditzazketzu utzirik ere munduko josteta eta urhatsetara, edo modarik itsusieneri jarraikitzen. Burhasoen alderat bihotz gogorrekoa den haurrak erran behar du: zer izan behar naiz ene burhasoentzat? sinesteak uzten othe nau esker gaistoa eta borthizki heideri mintzatzera? nahi othe du bazterrerat utz ditzadan laguntza beharretan direnean?

Beraz g,m, bizi zaitezte sinesteak erakasten dautzueten bezala; eta hortakotz eginzkitzue

maiz fedezko aktak, oroz gainetik orduak hersten zaituztenez; hala-nola fedezko egien kontrako duded tentatuak zaitzenez, galzeko hirrisku bat gerthatzen zaitzuzenez, eta bethi heriotzeko orenenez. Egizue zerukotzat, lurrekotzat bakharrik bizi den gizonak bezala.

Huna ohorez ezin asea den gizon bat: zer egiten du ohoretara helzeko? Begietan du hulako edo halako kargua, ohore bidea, bethi hura gogoa dagor; ~~herenizat~~ balzik ez da bizi; ez du urhats bat egiten, solas bat erraiten, handik edo hemendik kargu hartara ez doanik. Aratsetan hura gogoa lokhartzen da, eta goizetan hura heldu zaitio lehen-lehenik gogorat. Gauza bera erran ditake diru goseaz, eta jende lohiaz. Batzu eta bertzeak beren gutizia tzarraren asegarria gogoan dagozti bethi.

Zer egin orduan? sinestearen erakaspeneri jarraiki, eginez gauza guziak atsegabe guziak jasanez, eta bethez eginbide guziak, Jainkoari atsegin egiteko chedetan. Sinesteak argituko ditu zuen adimenduak, erakatsiz zer duzuen egiteko edo hobeki zor Jainkoari, girstino lagueri, eta zuen burueri. Sinesreak azkartuko ditu zuen borondateak, emenez aski indar manamenduen beiratzeke, bere estatuko eginbideen bethetzeko, eta zerukotzat merezimenduen irabazteko. Eta azkenean sinesteak garbituko ditu zuen gogotak, zuen lehiak, zuen solasak, eta zuen egintza guziak, sustatuz zuetarik bakotcha Jainkoarentzat bakharrik bizitzera, urhats guzietan Jainkoaren nahi sailduaren egitera.

Handwritten text at the top of the page, appearing to be a title or header.

Handwritten section header in the middle of the page.

First paragraph of handwritten text, starting with 'In this...'.

Second paragraph of handwritten text, starting with 'The...'.

Third paragraph of handwritten text, starting with 'The...'.

Fourth paragraph of handwritten text, starting with 'The...'.

Fifth paragraph of handwritten text, starting with 'The...'.

Final line of handwritten text at the bottom of the page.

Dominum Deum tuum adorabis et illi soli servies.

Zure Jainko Jauna adoratuko duzu eta hura bakharrrik duzu zerbitzatuko. L.4,8

Giristino maiteak,

Ez dugu nihun irakurtzen Jainkoak erran duela, saindu anhitz badela munduan; hala-hala erran du: zozoz leherria badela bazterretan. Eccl.I, 15. Emagun behako bat munduaren erdira.

Hara diru goseak: Zoroak! bethi sosa gogean dauda; eta ez dute ikhusten, menturaz uste baino lasterrago, aphur baten deskantsua izan gabe, beren sos guziak galduko dituztela.

Huna orai ohore goseak: ez dire gutiago zoro. Ohoren gibelean ez othe da zer nahi atsegabe mota gordetzen? ohoretan izaitiak ez othe du frangotan zer nahi jelosia suerte sor-arazten? ohorea ez othe da khea bezala suntsitzen?

Hara oraino jende arin eta jostagurak: hauk ere bardin zoro. Ergel eta harro, atsegabea aldean dute, menturaz gainean, eta oraino luzaz jostatatu gogoak, sekulako hobirat doazi.

Hara azkenean jende lohiak: zer zoroak! Beren atsegian eta garikeria guzien erditik, etsimenduzko boz bat zaiote alchatzen, eta ez dute aditzen, diola: mundu hau bere atsegian, ohore, eta ontasun guziekin, deusik ez da. Omnia vanitas.

Eta orduan, nor dire egiazko jende zentzudunak? Jainko Jauna adoratzan eta hura bakharrrik zerbitzatzen dutenak. Horra jende bezala, eta oraino gehiago giristino bezala, gizonak oroz lehen egin behar duena.

Lehenik jende bezala. Jainkoak egin ditu

gauza guziak; bainan egin ditu bere zerbitzuko. Zeru eta lurreko izaitze bakotchard Jainkoak erran dio: ohoratuko nauk; eta izaitze bakotchak bihurtzen bere ahalaran araberako ohorea. Iguzkiak bihurtzen dio bere ohore berezia. Jainkoaren manuari obeditzeko, egun guziaz heldu da zeru-larren argitzaera eta berotzaera. Lurrak ere bihurtzen dio bere ohore berezia; Jainkoak manatu bezala emaiten ditu jende eta animalien hazteko hazkurri suerte guziak. Itseak halaber bihurtzen dio bere araberako ohorea. Jainkoari obeditzeko egoiten da bere zedarrrien barnean.

Egiazki Jainkoa agertzen zaudu zeru lurreko izaitzen erdian, hala-nola ezrege bat bere erresumako azpiko guzien erdian, ohore eta laudorioz inguratua. Eta gizona? da gizona zer ari da izaitze hoikien artean? Jainkoak utzi othe du gizona bere buru? Zeru lurreko izaitzerik ttipienak bihurtu behar badio bere Kreatzailoari bere araberako ohorea, eta adorazioea, izaitze guzien buru ezarria denak deusik ez othe dio zor bere Jainkoari? Lurreko izaitzeak ahalzen dire, zerbitzari batzu bezala, gizonaren aitzinean, eta gizonak ez othe du ahaldu behar guzien gaineko Nausiaren aitzinean?

Ikhus-azue Jainkoa handia bere obra guzien erdian. Egin ditu zeru lurrak beren izaitze guziekin; zeru bere iguzki edo eta izer distiantekin; lurre bere haran, mendu, oihan, lore eta hazkurri gozokin; jauregi edo baten pare aphaizten du lurre gauzarik choragarrienez. Jainkoak, noizentzat egin ditu hoik guziak? Gizonarentzat. Gizona maitez, gizonari atsegian egiteko, Jainkoaren pihotza urthu bezala da amodioz. Jainkoak ezarri du gizona ohore suerte guziez inguratutik, edertasun guziez aphaizturik. Gloria et honore coronasti eum. Adimendu gabeko izaitze guziari erran diote: obedi gizonari, zuen nansia baita. Omnia subieciisti sub pedibus eius. Hots, Jainkoak egin du gizona bere obretan ederrean.

Eta gero Jainkoari, bere ongiegilerik handienari, gizonak deusik ez diola zor! Eta gizona izan ondoren Jainkoaz hainbertze ohoratua, hainbertze maitatua, hain gora alchatua; gizona bere inguruko izaitze guziak aditzean Jainkoaren laudorioak errepikatzen, egonen dela mutu, eta bere Kreatzaileari bihotz alchatze bat ere gina gabe, milesker bat ere erran gabe?

Bainan munduko izaitze guziak zer egin dezakete gizonaren arartekotasuna gabe? Gizona gabe, haren boza gabe, haren othoitza gabe, haren adorazionea gabe, haren bihotza gabe, mundua ichil eta belz gelditzen da; munduak ez dezake adi-araz bere laudorioa? Gizonak ez badiote apha-lagoko izaiteri prestatzen bere adimendua Kreatzailearen ezagutzeko; bere bihotza Jainkoaren maitatzeko; bere libertatea atsegin egiteko moldoan Nausiaren zerbitzatzeko; bainan sekulako ichiltasunean egon litazke?

Soinu joiteko tresna eder baten izaitzek zer balio du, ez badu joilerik? Bada zeru-lurreko izaitze guziak tronpeta batzu dire; eta soinu-laria, nor da? Erran duzue; gizona. Gizona Jainkoaren adoratzetik gelditzen dea? zeru-lurreko izaitze guziak dolu min batean bezala sartzen dire; nahasten bezala dire ez dakitela gehiago norat itzul eta zer egin. Gizona Jainkoaren zerbitzatzetik gelditzen dea? herioak jo balu bezala, gau belz batek bethetzen du mundu guzia.

Ez da beraz dudarik, Jainkoak egin zaituz-gizon haren zerbitzatzeko, eta ez bakharrrik jaiteko eta edateko, eta gurikerian bizitzeko. Bainan nola duzue Jainkoa zerbitzatzeko? Erlysioneko urhatseri jarraikiz. Jainkoa zuen Nausia da; zerbitzatzeko duzue beiratuz haren manamendu guziak. Jainkoa zuen Kreatzailea da, zerbitzatzeko duzue errespetatuz haren zuen guziak. Jainkoa zuen ongiegilerik handiena da; zerbitzatzeko duzue bi-

hurtuz eskerrik bizienak. Jainkoa zuen Aita da; zerbitzatzeko duzue maitatuz zuen bihotzako amodiorik osoen.

Ez duzue hola egiten? erran nahi da: ez duzue sinesterik Jainkoak orakatsi egietan, edo bizi zarete sinesterik ez bazinute bezala? Ez duzue atchikitzen Jainkoa zuen azken halburutzat; edo bizi zarete zerurik ez balitz bezala, gorputza hil eta oro akhabo balire bezala? Ez duzue Jainkoa bihotz guziaz maitatzen, edo bertze zerbaiz Jainkoa baino gehiago edo Jainkoa bezenbat maitatzen duzue?

Ez zarete sekulan belhaunikatzen Jainkoaren othoizteko, Jainkoari eskerren bihurtzeko? Ahalde zarete batzuetan Jainkoaren eta zuen sinestearen aithortzeko gizonen aitzinean? Jainkoaren izena nola nahi derabilkazue, edo zer nahi itsuskerien erdira botatzen duzue? Igande eta Bestaburuak nola nahi ostikatzen dituzte, meza saildua entzun gabe egonez, edo lan debekatuetan ariz, edo itsuskerietan iraganez? Jakizue, g. m. ostikatzen duzuela mundu huntan bethetzeko duzuen eginbiderik lehena, hertsiena, handiena.

Hitzes ez bada obrez, Jainkoari erraiten dionue bihola satanek erran ziona: Non serviam. Nik ez haut zerbitzatzeko; nik ez daia obedituko; nik ez haut othoiztuko; nik ez haut ene Jainkotzat ezagutzen; onetzat baterez bezala haiz. Mintzaira horrek harritzen zaituztete; desafio izigarri horrek lazurik ezartzen zaituztete; eta bizkitartean horra zer duen egiten erlysioneko urhatseri jarraikitzen ez den gizonak.

Gizonak, uzten duelarik erlysionea, alimalea ere baino beherago jausten da. Heiako idiak ezagutzen du bere nausia eta ongiegilea; bainan gizonak, uzten duelarik erlysionea, ukhatzen du bere Nausia, laidostatzen du bere ongiegilea. Ez da gehiago, ez gizon ez abere, da izenik ez duen mustro bat.

III

Bainan gizona ez da baxharrik jende; bathaioaz egiten oraino giristino. Gizon bezala ahalagoko izeiteak alchatzen ditu bere heinera; giristino bezala alchatzen ditu Jainkoraino. Gizon bezala, mundu ttipi bat da; giristino bezala, jainko ttipi bat. Beraz giristinoak behar du bizi Jainkoaren bizitzeaz. Bainan Gizona, zerk du hortarainoan alchatzen? Jainkoaren graziak. Graziari esker bizitzen gare Jainkoa bezala, eta egiten ditugu zerukotzat gai diren obrak.

Bainan huna gauza bat gogoan ongi hartu behar duzuen. Jainkoak eman nahi ditu grazia batzuek, eta graziarik baliosenak, grazia baitezpadakoak, erlisioneko urhatsei jarraikitzeari. Giristinoak bizi nahi denak behar ditu baitezpadak da erlisioneko eginbideak bethe.

Fedezko, esperantzazko, karitatezko obrarik egin gabe zaudezte? ez zarezte giristinoak bizi, eta oraino galzen dituzte Jainkoak akta hoikiari eratchiki dituen grazia guziak. Sakramenduetarik urrun zaudezte? ez zarete giristinoak bizi, eta oraino galzen dituzte Jainkoak sakramendueri eratchiki dituen grazia guziak. Othoitzik egin gabe zaudezte? ez zarezte giristinoak bizi, eta oraino galzen dituzte Jainkoak othoitzari eratchiki dituen grazia guziak.

Igande eta Bestaburuak nola nahi ostikatzen dituzte? ez zarezte giristinoak bizi, eta oraino galzen dituzte Jainkoak egun saindu hoieri eratchiki dituen grazia guziak. Erran nahi gizonak dituela salbatzeko behar jarraitzen ez den guziak. Uho egiten dio bere sekulako zorionari, sekulakotz hesten ditu bere aitzinean zeruko atueak, nahi ala ez badao, bethiereko oin hazen erdira. Ez da hor dudarik, fedea da hola zorrotxi mintzatzen.

Egin bitza bertza gainerateko obra on guziak; lagun bitza jende beharrak, ikhas eriak, egin amoinak; bardin munta du; ez da gutiago hobendun. Beharrena ostikatzen du, Jainkoaren zerbitzatzea. Eta holako obrak eginik doana Jainkoaren aitzinean, rat, eskuak hutsik doa; adituko du erraiten: zerbitzari alfer bat haiz, izana duk jadanik hire saria, hiretzat ez duk tokirik ene zeruan.

Zer diot? erlisionerik ez duen gizonak ez baxharrik ez dezake deusere egin zerukotzat, ez eta ere erran merezimendurekin Jesusen izen saindua, baiar oraino ez ditake nehola beita bekatu zietarik. Ezen graziarik gabe, nola ihardok bethi jaidura makhurren oldarreri? nola garhait etsai gaistoaeren tentamendu guziak? nola urrun munduko itsuskerien khutsutik? ezin ditake. Bainan grazia hori nola ardiesten da? erlisioneko urhatseri jarraikiz.

Ez othe dugu egun guzietz ikhusten othoitzik egiten ez duena, sakramenduetarik urrun dagona, erran nahi baita, erlisioneko urhatsak bazterrerat utziak dituen, nola nahi bekhatura lerratzen? Eta hala-hala erlisioneko urhatseri jarraikitzen direnak onheski eta giristinoak bizitzen, edo bederen bekhaturan ez luzaz egoiten?

Zerk egin ditu egundainoko saindu guziak? ez othe erlisioneko urhatseri jarraikitzeak. Zerk eman diote hainbertze martirei oin hazerik ikharagarri pairatzeko indarra? ez othe erlisioneko urhatseri esker ardietsi graziak? Zerk egin ditu denbora guzietako aita familiako on eta ama familiako khartsuak? erlisioneko urhatseri jarraikitzeak bethi. Eta azkenekotz, zerk egin ditu egundainoko gizon gazte eta neskatza gazteak, onhest eta jainkotziarrak? bethi eta bethi, erlisioneko urhatseri jarraikitzea.

Eta orai itzul gaiten bertze alderat. Zertako da hulakoa hain tzarra, halakoa hain bihotz gabes? Zihaur ere, zertako zarezte gehienetan bekhare lerratu? ez da dudarik erlisioneko urhatsak zango pean ezarri dituzuelakotz. Errotereko hirrisku-

an zineztelarik ethoitz egin bazinute, edo aitzinean komunioa eginez azkartu bazinezte, ihardokiko zinuketen tentamenduari, eta erori zarete, graziaren laguntza galdatu eskasean.

Ah! g. m. jende guziak has baleite zinez Jainkoaren zerbitzatzen, elizara joaiten, sakramenduetara hurbilzen, goitz-aratsetako ethoitzak erraiten, bertze molderik litakeela munduan! Ez segur, ez litake hainbertze desmasia jenden artean! karitate gehiago litake familien erdian. Ez lezakete lur hau hainbertze itxuskeriek zikhini!

Othoi! othoi! g.m. izan zaitzete erlisio-neko urhatseri jarraikiak. Grazia anhitzen beharra baduzue guziak; baina graziaren nasai izaitoko, zerbitza zazue zuen Jainko Jauna zuen adimenduaz, erran nahi baita, ofreituaz zuen goeta guziak. Zerbitza zazue zuen bihotsaz, erran nahi baita, emanez zuen amodio guzia. Zerbitza zazue zuen izaitte guziaz, erran nahi baita, haren goresteko eginez zuen urhats guziak.

Erlisio-neko urhatseri jarraikiz funski, zer ez duzue ardietsiko? Izanen zarete jasan-kor mundu huntako atsegabean erdian; egonen zarete azkar zuen sinestean; gogor zueh esperantzian; khartsu zuen karitatean.

Erlisioe sainduak, alchatuko zaitzete munduko gauza ezdeusez gorago; ezarriko zaitzete jaidura makhurren nausi, ifernuko eta lurreko etsai guziak baino ere azkarrago. Erlisio-neko urhatseri jarraikitzen denak, ez othe du Jesu-Kristo berekin; eta Jesu-Kristo berekin duenak, noren beldur izaiteko du? Omnia possum in eo qui me confortat.

Eta orduan, g. m. nork eta zerk gibelatuko

zintuzkete erlisio-neko urhatseri jarraikitzetik? Gaistoen beldurrak? adi zazue zer dion Jesu-Kristok? Zuen gorputzak ba, baina zuen arimak ez hil ditzazketenen beldur, ez batere izan. Beldur izan zaitzete bakharrrik arima eta gorputz ifernura herresta zaitzazketenen.

Balio baitu bardin: gure bizia ez dea hain laburra? gure urtheak ez othe doazi halako tarrapata gaitzean? Eta orduan ez othe da zuhurtzia maiz orhoit gaiten erlisioe sainduak erakusten daukun ethorkizunaz?

Heriotzeko orenean, zer baliatuko zauku izanik handi, aberats, gozameñ suerte guzien jabe, beharrena galzen badugu, erran nahi baita, salbamendua. Ez dugu irakurtzen Ebanjelio sainduan, deusik ez duela balio munduaz eta munduko gauza guzien jabe izanik, gero bere arima galzen bada. Beraz adora zazue zuen Jainko Jauna eta zerbitza hura bakharrrik. Adora eta zerbitza sinetsiz erlisio-neko egia guziak, beiratuz haren manamendu guziak, bethetz zuen estatuko eginbide guziak, bihotzez onhar-tuz Jainkoak igortzen daizkitzuen atsegabe eta gaitz guziak eta azkenean batuz zuen Jainkoari ahalik eta maizena komunioe sainduan.

Hola eginez, ardietsiko duzue zuen adimenduaren asetzeko neurrigabea den egia, zueñ bihotzaren bethetzeko bazterrik gabea den ontasuna, zuen izaitte guziaren asetzeko akhabatzerik ez duen zoriona.



...the ...
...the ...
...the ...

...the ...
...the ...
...the ...

...the ...
...the ...
...the ...

...the ...
...the ...
...the ...

...the ...
...the ...
...the ...

Qui perseveraverit usque in finem hic salvus erit.

Erlisoneko urhatseri bururaino jarraitzen dena, hura izanen da salbatua. Matt. AO, 22.

Eirstino maiteak,

Jaikoak akhulutzen gaitu eta denbora berean atchikitzen bere manamenduez. Akhulutzen ongiaren egitera; atchikitzen gaizkira lerratzetik. Zori-gaitzekin ez dugu bethi egiten Jainkoak manatzen daukun ongia, ez eta ere bethi ihes egiten debekatzen daukun gaizkiari.

Nahi zintuzketet lehi-arazi bururaino manabeiratzera. Hortarakotz zer egin behar duzue? Hiru gauza: zin-zinez Jainkoaren zerbitzatzeko chedetari jarri; manamendu guzien beiratzoko chede azkarra hartu; Jainkoaren zerbitzatzetik sokulan ez gelditu. Hitzeko gizonak balinbazaizte, hola duzue eginen edo bederen egin behar.

1

Jainkoari, zer diozue hitzeman behin baino gehiago? lehenik bathaiatuak izan zaiztenean? Hitzeman diozue aitabitchi amabitchien ahoz, hura bakharrik zinutela zerbitzatzeko. Bathaicko grazia handiaren bidez athera zinezten etsai gaitzoren aztaparretarik, eta egin Jainkoaren haur. Ifernurat kondenatuak zinezten, eta egin zarezte zeruko premu. Eta sobera othe zen Jainkoaren haur bilhakatzea, zeruko bidean sartzea, Jesu-Kristori jarraituzera lehiatuz? Jainkoaren manamenduen be giratzeko chedea hartuz?

Lehen komunioneke egun handian Jainkoari zer diozue hitzeman? ukho egiten zinutela satani

eta munduari; Jesu-Kristori bakarrik nahi zinezte. la jarraiki. Geroztik ere zenbat aldiz ez dituzue agintza berak erreborritu? hala-nola Beataburu bateanmisione bateanmedo kofesor batek biziz Ean birtzera herstu zaituztenean.

Urrikitzeko duzue agintza hoik eginik? Zuzen ez denik deusere hitzeman duzue? Jainkoaren kreaturak gare; Jainkoak gaitu bizirik atchikitzen; Jainkoak dauku emaiten egun guzietako hazkurria. Eta Jainkoak bereak balinbagaitu krestura bihi bihi bat gurea izan ez ditakeen bezala, zer belkoria ez litake haren ez zerbitzatzea, haren manamenduen ez beiratzea? Ez othe ginioke kontralat erran behar bihola Zamuel profetak erran ziona: Mintza zakizkit o Jauna, ekharria bainago zuk manatu guzien egitera. Loquere, Domine, quia audit servus tuus.

Eta oraino, zer diogu hitzeman gure onetan ez denik? Doazila lurreko handien zerbitzariak fagore eske; hau diru galdez, hura kargu galdez, bertze bat ararteko galdez, nik zer dakit? izanen othe dute galdatzen duten fagorea? menturaz ba menturaz ez, Nik dakitana da: Jainkoak saristatuko dituela haren choretan egin urhats guziak. Ba, g.m. Jainkoa zerbitzatzuz, haren manamendua beiratzuz, seguratzzen duzue bethiereko bizitzea, merezitzen duzue zeruko loria,

Izan zaitezte beraz hitzeko gizon. Mundu hundertako on zerbaite igurikitzen denean, deusek ere ez du jendea lotsatzen. Bere haur ttikisaren beilatzeak lotsatzen othe du ama bat @ soldadca ikharatzen othe da gerlako tokian? laborariak gogorrei hatzemaiten othe du udako nekhea eta berca ez naski. Eta girstinoak eginen lude gibeberat in-dar eta bihotz erakutsi behar lukeonean? gaitz-egi kausituko ginuke gure buruen gainera atzarriak egoitza, jaidura makhur baten zaphaturik atchitzeko? borihitzegi kausituko ginuke mondekatzeko

1
lehia baten ithotzea,etsai bati barkhatzeko? gorregi hatzemenen ginuke hulako bide tzarraren uztea bokhatutik beiratzeko?

Ez othe litake kontralat erran behar giristino naiz,beraz izanen naiz hitzeko gizon;beraz borrokatuko naiz ene jaiduren kontra;beraz hulako etohetik sekulakotz urrunduko naiz;beraz hulako lagun galgarria sekulakotz utziko dut. Orai artio lohikerian pulunpatu denak erran behar du:hemen-dik aitzina garbi biziko naiz;hordikerian erori denak:hemendik harat neurritako jan-edanak eginen ditut;othoitz egitera lazo izan denak:hemendik goiti khartsuago izanen naiz. Baina ez:hartu den chedea laster ahanzen da;eta gero bethi bekhatu beretara lerratzen da,bethi lehengo hura gelditzen da

11

Eta orduan,beran hitzean dauden giristinoak, zein dire? manamendu guziak bardin onhartzen ota beiratzten dituztenak. Erlisionoa zathikatzen duten giristinoak,erlisionetik nahi dutena har , eta nahi dutena utz dabilzanak,ez dire giristino osoak,ez dire Jainkoaren gostuko giristinoak.

Zer erran zinezakete ikhustean giristino bat orai belhaunikaturik othoitzean,sarri burho eta akrea dariola;egun bildu-bildua elizan,bihar ergel eta harro plazetan;goizean mahain sainduan, eta aratsaldean herdi arralla ostatu zokho batean. Hulako giristinoak itchura baizik ez lukeela giristinerik.

Ludarik gabe,manamenduak kolpa ditazke gauza dorphean bezala gauza arinean. Baina manamenduak beiratzten dituenak,gauza dorphean bezala arinean,ez othe du erakusten bihotz handiko gizon dela,eta Jainkoa amodioz zerbitzatzten duela? Eta manamendu guziak ez othe dire Jainko beraren ganik heldu? Bat beiratzuz eta bertzea hautsiz,ez

othe da Jainkoa bardin ofentsatzen?

Ah! giristino khartsu izaiten ahal balitz indar bat egin gabe,bera buruari ukho egin gabe, bere jaidura makhurreri jarraikiz,elhe ederreko gizon izanez,balltako orduan giristino khartsu frango bazterretan. Baina zerua ez baita giristino hilikientzat,ez giristino ahulentzat,oz eta makhila bi burutarik atchiki nahi dutenentzat,ez eta ere guriki bizi nahi diren giristinentzat.

Adi zazue Jesu,Kristo: Nahi zarezte salbatu? beira ene manamenduak;zerura heldu nahi zarezte?bortcha zuen buruak; niri jarraiki nahi zarezte?grhaia khurutzea;Jainkoaren haur izan nahi zarezte?barkha zuen etsaierl.

Zer bada erranen dautazue homen? salbatzeko behar othe da maitatu zer nahi tzarkeria egin dautana?jenden begietan belztu nauena? Zer? aditu behar othe da laidoa deusere ihardebsi gabe? Eta gero hanbateko gaizkia othe da kondenatzen dituzun solas hoikien atchikitzea?zafratzen dituzun josteta hoikietan pharte hartzea? zer go-goeta lohi bat,behatze lizun bat,kalomnia bat aski dola ene danatzeko? Erlisionea maite dut, nehor bezain giristino ona nahi naiz izan; baina oso atchikiz ene libertatea,gustatzen zaitan bezala beiratzuz manamenduak,ene par guziak iraganez,hots nik nahi bezala Jainkoa zerbitzatzuz.

Bertze batek ez du aski estakuru izanen igande egunen hausteko:nahi lituzke ba sainduki iragan;bainan behar baita bizi,familia alchatu,haur ttipiak zaindu,jendeak zerbitzatu,etcheari kasu egin;nik zer dakit? Bertze anhitz itchura guzian arabera saindutzat atchikitzen ahal litazke.

Bainan heien berthutek ez dute grazia izpirik;jitearen araberako berthuteak dituzte.

Beraz deusez berthute, hulakoa izanen da ezti eta baketiar, jite ahulekoa delakotz, halakoa izanen da amcina egile, jenden ikhustatea bilhatzen duelakotz, Menek barur eginen du, baina dirurik ez chahutzeko, Hura beiratuko da galdukeriatik, baina osasunaren ez galzea gatik, Bat urrunduko da lohikeriatik, baina desohorean eror beldur delakotz, Bortzea gibelatuko ohciutzetik, baina justizian eskuetara ez erortzea gatik, Holakotzatz Jainkoak erren du: (Receperunt mercedem suam, Izana dute beren saria,) Beraz beira manamendu guziak, eta beira Jainkoaren ohretan, Jainkoari atsegin egiteko; eta beira bururaino.

111

Bethikotz Jainkoarenak gare; bethi Jainkoaren beharretan gare; ez dezakegu Jainkoaren laguntza gabe urhats bat egin zerukotzat. Eta hortakotz, behar ditugu Jainkoaren zuzenak bethi errespetatu, haren manamenduak bethi beiratu, Bizia izen dugu eginbide handi horren bethotzeko, Baina nun dire girstino aski askarrak, girstino egiaz koak, bururaino eta bararik gabe Jainkoa zerbitzatzuz dutensk? Nun dire girstino aski osoak manamenduak bethi beiratzen dituztenak?

Anhitz ilhargia bezala kharbiatzen dire; haurrean izen dire jainkotiar, gaztean mundutar, adin zorhituan erdi jainkotiar erdi mundutar, zehartzean gehienak itzulzen dire Jainkoaren genat, baina ez direlakotz gehiago on ez gozatzeko ez laneko, Irina eman ondcan munduari, emanen dute Jainkoari zahia.

Chedeak hartzen dituzte ba manamenduen beiratzeke, Jende minkhorrak hartuko du chedeak, ezti izaiteko; egonen ere da ezti gauzak, gauza, guziak

bere gostura doazkino; baina sor dakiola traba bat edo bertze, berehala suminduko da, Jende jauzkorak hartuko du chedeak jasankor izaiteko; egonen ere da jauzi gabe, partida bat hatzemanen ez dueno; baina norbaitek traba dezala bere urhatsetan, berehala ohestuko da, Jende jeloskorak hartuko du chedeak bertzeen onaz ez ilhuntzeko; egonen ere da ilhundu gabe berak baditueno nahi dituen gauza guziak; baina ether dakiola atsegabe bat haren auzoa ongi doan denboran, berehala hasiko da erraiten; zertako ni, zertako ez hura, Jende jorralariak hartuko du chedeak girstino la gunari kalterik ez egiteko bere ohorean; biderik ez dueno egonen ere da haren kontra mintzatu gabe; baina kausi dadila hulako edo halako lagunekin, heien ahapaldi eta kalomniak gogotik entzuzunen ditu, beharrez ere emanen ditu onhartzen dituelako ezagutkariak edo frogak, eta holache, behin utziak zituzten jaidura makhurretara, berriz itzuliko diren.

Urrikalzeko direla girstino aldakor eta fluchak, Zuek, g.m., zaudezte gogorrago zuen chedetan, ongirako urhatsetan, Ez ibil alcha, erorka, norat haize harat aise, Ez da bethi errech; anhitz gostatzen da, Izaitza bethi bardin kharitsu, bethi bardin jasankor, bethi bardin laho, bethi bere buruaren jabe, bethi karitatez betha, bethi zuzenean: hori gaistcago da frangotan, martir ilhazea baino, Gaistoago ba; baina ere zenbat eder, zenbat ohoragarri, eta zenbat merezimenduen irabazbidea!

Bethi ongian dirauen girstinoak bere manean dauzka gauza guziak, Denborak suntsitzen ditu emeki-emeki mundu huntako gauza guziak; ontasunak, etcheak, gorphutzak, erresunak, jendeak, Gauza bakhar bat uzten du hunkitu gabe; berthutea Beha saiduak; bizien aitzinatrago eta kharitsuago zoazin; deusekere ez zituen lotsatzen, ez gizonen ganikako jazargoez, ez eritasunak, ez lurreko etasalek, ez eta ifemukoez.

Gogor zauden bethi abiatu sailari; bethi berotuz
 zoazin Jainkoaren amodioan; bethi leialkiago be-
 thez beren eginbideak. Ez zuten gibelerat behat-
 zen ikhusteko zer bide zuten eginik saindutasu-
 nean; baina bai aitzinerat ikhusteko zer bide
 zitzaizoten gelditzen egiteko.

Horra nori behar gitzalzkoten jarraiki.
 Egon zaitezte beraz gogor zuten hitzean; erran
 nahi baita hitzeko gizon. Fluchak gare, badaikit;
 baina Jesu-Kristori hel egiten badiogu, harek
 azkartuko gaitu, ego reficiam vos,

A
 Aldakorrak gare; badaikit oraino; baina Je-
 su-Kristo othoizten badugu, harek asentatuko gai-
 tu, harek finkatuko gaitu ongian; omnia possum
 in eo qui me confortat.

Hotzak gare; badaikit hori ere; baina Jesu-
 Kristoren ganat hurbilzen bagare, harek berotuko
 gaitu; Jesusen laguntzarekin batean, garhaituko
 ditugu gure jaidura makhurrak, bentzutuko lurre-
 ko eta ifernuko etsaiak, bihotz onez jasanen mun-
 du huntako atsegabekak, beiratuko manamenduak, eta
 betheko bakotchak bere estatuko eginbideak meta
 azkenean ardietsiko giristino khartsueri Jain-
 koak hitzemen sari bethierekoa.

Nola behar den Jainkoa maitatu.

Diligēs Dominum Deum tuum ex toto corde
tuo, ex tota anima tua, extotis viribus tuis.
Maitatuko dugu zure Jainko Jauna, zure bihotz
guziaz, zure arima osoaz, zure indar oros. Mat. 10,
27.

Giristino maiteak,

San Frantses Asisekoa mundutik athera ber-
ria zen. Ikhusiz anhitzen bihotzetan Jainkoaren
amodiorik ez zela, edo arras hostua zela, bazoan
egun batez, bidez-bide, mendiz-mendi, ziola: Amodioa
ez da gehiago maitatua; amodioa ez da gehiago mai-
tatua. Denbora berean gomitatzen ditu Jainkoaren
maitatzera zeru-lurreko izaitze guziak.

Gerochago Jainkoaren amodioa berriz hostu de-
larik munduan, Jesu-Kristo bera agertzen da serora
saindu, eta erraiten dio bere Bihotz sakratua era-
kusten diolarik: Huna Bihotz bat gizonak hainber-
tze maitatu dituen, gizonentzat hainbertze jasan
duena; eta gizonetarik ez du izaiten ordainez es-
kergabetasunik baizik, laidorik baizik, mersprezio-
rik baizik.

Giristino maiteak, ez gaiten izan esker-
gabe, hainbertze maitatu gaituen Jainko onari bu-
ruz. Zor diogu oroz gaineko amodioa, erran nahi
baita amodiorik osoena, amodiorik biziena, eta amo-
diorik azkarrena.

I

Dakizuen bezala, g.m. Jainkoak egin gaitu be-
tzat. Izaitze guzia galdatzen dauku. Arimako gogo-
eta guziak, bihotzeko amodio guzia, gure baithako
bothere guziak. Jainkoa bakharrik nahi da izan gu-
re bihotzaren nausi. Zorigaitz zueri zuen bihotze-
tan jasaiten baduzue Jainkoaren amodioa gaintitzen

duen amodio arrotz bat! zorigaitz zueri Jainkoa baino gehiago maite baduzue bertze zerbait!

Behere huntako kreatura bat nahi dea zuen bihotzaz osoki jabetu, zuen amodioaz bakharririk gozatu? Edo oraino kausitzen zareztea manamendu baten ostikatzeko bidean, edo bekhatuzko urhats batean? Jakizue, g.m. holako orduetan halanola bertze edozein kasutan Jainkoari zor duzuela zuen amodio guzia. Behar duzue zer nahi pairatu ezenez haren manamendu bat ostikatu, sekulakotz bekhatuzko okasionez utzi ezenez Jainkoa ofentsatu.

Bainan aditzen zaituztet: holako amodioak ez othe dauku galdatzen gauza guzien uztea? bada familiarak, bada etcheke lanak? amodio oso horren emateko, ez othe litake egon behar bethi elizan edo arrosorioak eskuetan? Ez; g.m. ez Jainkoaren bihotz guziaz maitatzeko ez munduaren uste beharrik. Huna nola den Jainkoa amodiorik osoenaz maitatzen:

Haur zare; zure burhasoak anhitz maite dituzu. Arras ongi, Jainkoak berak dautzu hori manatzzen. Bizkitartean bada norbait gehiago maitatu behar duzuna. Norbait hura Jainkoa da. Zure burhasoek manatzzen balantzute Jainkoaren manamenduen kontra doan zerbait, behar ziniokete, anhitz maite izana gatik, ihardoki eta desobeditu, ezenez Jainkoaren manamendua ostikatu. Nork ere maiteago baitu bere aita edo bere ama ni baino gehiago, ez da enetzat on dio Jesu-Kristok.

Burhaso zare; zure haurrak maite ditutzu bertze nehor baino gehiago munduan. Ongi; Jainkoak manatzzen dautzu. Bizkitartean bada norbait oraino gehiago maitatu behar duzuna. Norbait hura Jainkoa da. Sekulan galdatzen balaitzu zure haurra behar ziniokete ichil-ichila eman. Edo oraino nahiago behar zinuke zure haurra hilzen ikhusi ezenez bekhatu mortalaz Jainkoaren ofentsatzen.

Burhaso batek ni baino maiteago balinbadu bere semea edo bere alaba, ez da enetzat on dio oraino Jesu-Kristok.

Hulako presunarekin atchikitzen duzu, hulako tokian ibilzea lakhet zaitzu. Bainan presuna harekin aldi bakotch bekhatu egiten duzu, toki hartara joenez bekhatara lerratzen zare. Jainkoa ez duzu maitatzen. Beraz behar zare presuna haren ganik sekulakotz urrundu, etche hartara joaitetik beiratu. Jainkoa baino maiteago baduzu bertze zerbait ez zare enetzat on, dio bethi Jesu-Kristok.

Bainan nork egundaino eman dio Jainkoari holako amodiorik mundu huntan? hori on da zeruko sainduentzat bakharririk? nork maitatu duen Jainkoa hoinbertze mundu huntan? khonda ahak baino jende gehiagok; orai arte salbatu diren arima guziek.

Huna hogoi eta bortz urtheke gizon gazte bat. Deitzen da Frantses Asisekoa. Bere aitak nahi du Jainkoaren osoki zerbitzatzetik gibelatu. Beraz Jainkoak deitzen du alde batetik eta bere aitak bertzetik. Aita asarre gaitzean sartzen zatio; zanpatzen du. preso atchikitzen, madarizionez estalzen du. Bainan debaldetan; Orduan aita zikhaitzak galdatzen diozka Frantsesi dituen sos guziaz. Eta Frantsesek emaiten diozka ez bakharririk dituen sos guziaz, bainan oraino dituen soineko bakharrak, erranez: Ez dutanaz geroz gehiago aitarik lurrean, hemendik aitzina erran dezaket fidantzia osoarekin: Gure aita zeruetan zarena. Eta orai galdatzen diot: Frantses bainan zertako holako sakrifizioa? ihardetsiren lakiket. Hori egin dut, Jainkoa maiteagoz.

Huna orai aita bat. Seme bakharra du. Seme horren arrazatik behar da athera munduaren salbatzailea. Badoazi biak mendi bati gora. Eta zertara? Jainkoak erran dio Abrahami; sakrifika zadak

hire semea. Eta Jainkoari obeditzeko hara nun sakrifikatzerara doan bere seme baikharra. Jadanik be-soa alchatua du jotzeko, baina aingeru batek ar-rasten dio. Galdatzen diot beraz: zertako sakri-fikatzerara zinoan hain maite zinuon semea? Abraha-mek ihardetsiko laikit: Jainkoa maitez.

Ama khartsu batek er erraiten dio bere seme-ari: ene haurra nahiego hinduket hila ikhusi ezen ez jakin bekhatu mortal batez hobendun haizela. Zertako da hola mintzo amahori? Jainkoa maitez. Eman behar diozue Jainkoari amodiorik osoena, ba eta ere amodiorik biziena.

II

Jainkoaren amodioa az dagoke alfer. Maitatzen banauzue, zion Jesu-Kristok bere dizipulueri, eta heheri erraiten giristino guzieri: maitatzen banauzue beira ene manamenduak. Joan. I4, I5. Nor-baitek maitatzen banau, eginen ditu manatu diozki-tan guziak. Joan I4, 23. Edo oraino: badakizue nork mantzen nauden? ene manamenduak ezagutzen etale-ialki beiratzen dituenak. I4, 2I. Beraz Jainkoaren maitatzea, zer da? Jainkoak nahi dienenaren egi-tea. Eta Jainkoak zer du nahi? Haren manamenduak beira ditzagun.

Eta orduan nahi duzue jakin Jainkoa egiaz-ki maite duzuenez? Ikhus azue nola dituzten be-thetzen Jainkoaren eta Elizaren manamenduak? De-baldetan joko zinuzkete zuen buruak odoleraingo; debaldetan atchikiko zinuzkete zuen gorputzak zurdatz pean; debaldetan egon zinuzkete zuen bizi guzia barurean; debaldetan ariko zinuzkete gau osoak othoitzean; manamendu bat edo bertze ostikatzen baduzue, ez duzue Jainkoa egiazki mai-tatzen.

Jainkoak zer dauka mantzen? adi zazue: Aithortuko nauzue gizonen aitzinean eta maitatuko

croz gaineko amodioaz; ene izen saindua bethi er-respeturekin erabiliko duzue; igande eta bestabu-ruak sainduki iraganen ditutze. Hola duzue egi-ten g.m.? Jainkoaren alde daukazu bethi eta num-nahi? Jainkoaren izen saindua bethi errespeture-kin derabilkazue? Igande eta bestaburuak bethi sainduki iragaiten ditutze, meza deboki entzuez, lan debekatuetarik beiratuz, eta itsuskerietarik urrunduz? Manamendu hoietarik bat edo bertze ostikatzen baduzue, Jainkoa ez duzue maite.

Jainkoak mantzen daukoraingo: maite giristi-no laguna zuen buruak bezala ene amoreagatik; ez egin bertzeri kalterik ez beren ariman, ez beren ohorean, ez beren gorputzean, ez hitzez, ez obraz. Atohik-aitzue arima eta gorputza garbi, beiratuz lehia tzarretarik, elhe lizunetarik, eginta lohie-tarik. Manamendu hoik bethi beiratzen dituzue? bat edo bertze ostikatzen baduzue, ez duzue Jain-koa maite.

Eta orai, g.m. Jainkoa egiazki maitat-zekotz Jainkoaren manamendu guziak behar badire beiratu, iduritzen zaitzue Jainkoa zinez maitatzen dutenen andana handia dela munduan? iduritzen zai-tzue giristino guziak beiratzen dituztela mana-menduak? Ez othe da gehiago aurkhitzen Jainkoaren aithortzeko ahalgez dauden giristinorik bazterre-tan? Ez othe da gehiago aditzen ez juramenturik, ez sakrerik, ez burhorik? Ez othe da gehiago Igan-de eta bestabururik ostikatzen? Giristino laguna ez othe da gehiago ez belzten, ez jorrazten, ez kol-patzen? Iduritzen zaitzue giristino guzien berthu-terik maiteama dela garbitasun saindua? ez othe dituzte gehiago beren gutizia tzarrak asetzen? ez othe da gehiago elhe tzarrik erraiten? obra lizunik egiten?

Ah! g.m. egundaino menturaz ez da ikhusi bizi garen mendean bezenbat itsuskeria bazterre-tan, tzarkeria jenden artean. Eta egia balinbada manamenduen bethetzetik dela ageri Jainkoa maite

den ala ez, bakharrak direla Jainkoa egiazki maitatzen dutenak, anhitz direnaz geroz haren manamenduak ostikatzen dituztenak.

Anhitzek uste dute ba Jainkoa maite dutela zenbait manamendu dituztelakotz beiratzten. Baina Jainkoak ez baitu onhartzen bihotz erdizkatuak, ez amodio zathikaturik. Baina nehorik ez baitezazke bi nausi betan zerbitza? baina manamendu bakhar bat ostikatzen duena bertzeak beiraturikan ere bardin hobendun baita Jainkoaren begietan? Eta bizkitartean anhitz bizi direla ilusione hortan!

Etsai zaharrak ditu enganatzen. Erraiten dituen bihotzak ez baite izan arras eneak ez eta arras Jainkoarenak. Ez zaitezela izan arras haragikoi baina ere ez arras minbera. Zoazte elizara, baina ere ez utz hulako tokia. Zoazte predikuen entzutera, baina ere ez izan minberegi hulakoaz edo halakoaz mintzo zaizkitzuenean. Horra zer itzulikak derabilzkan debruak gure bihotzen nolazpeit beretzeko. Baina Jainkoak ez baitu holako phartamenik onhartzen; guzia edo batiere horra zer duen nahi Jainkoak, eta horra zer dioten eman egundainoko giristino khartsu guziak. Egiazko giristinoaren amodioa bizia da, manamendu guziak bardin onhartzen ditu, eta aitzinera heldu zaizkon traba guziak bazterzen ditu, Ezen Jainkoa behar dugu oraino maitatu amodiorik azkarrenaz.

III

Ba, g.m. Jainkoa zinez maitatzen duenak ez du nehoen beldurrik. Guziak baino azkarrago da. Ehor beizkie tentamendurik borthitzenak, jazaw beikio mundua mehatchurik handienak eginez, janz daizkiola haragiaren jaidura makhurak bekhatura

herostatatu nahi dutela. Guziera ihardokitzen du. Beharrez sartuko dire san Franses Asiseko bat bezala elhorrizko sasi batean larru huts; edo san Bernat bat bezala ziphu hormatu batean negu bihotzean; edo oraino odoleraio zafratuko dute beren gorphutza, edo azkenean itghindi gorri bat hartuko dute eskuetan tentatzailearen urrutzeko, Eta zertako dituzte jasan holako pairamenak? Jainkoa suharki maite zutelakotz, Jainkoaren amodioak sustatzen zituelakotz.

Bada g.m. holako amodioak sustatzen othe ditu gure bihotzak? Chedetan gare lehenago atsegabe eta desgrazia suerte guzien jasateko, munduko ontasun eta ohore guziera erramteko: Usten zaitezte guziak; manamenduak ostikatuz zuetaz gozatu baino nahiago dut apha eta errumes bizi eta Jainkoa oroz gainetik maitatu.

Chedetan zarezte ihardokitzeko ez hulako edo halako tentamenduari bakharrak, ez horrenbertze denboraz bakharrak, baina tentamendu guziera, errecheneri hala nola borthitzeneri, eta hoi heriotzeraio? Jon doni Paulok bezala erraiten ahal othe dugu: Norik khenduko dauku bihotzetik Jesusen amodioa? Norik geldi-araz gitzazke Jainkoaren maitatzetik? Nehorik sekulan, deusek ere. Ez atsegabeak, ez gabeziak, ez goseak, ez lanjerak, ez jazar-goek; hoik guziak bentzu ditazkegu. Jainkoa zinez maite badugu ez heriotzeak, ez bizitzeak, ez aingeruek, ez ifernuko etsalek, ez krestura bihi batek ez gaitu geldi-araziko Jesusen maitatzetik. Rom. 8, 35.

Ba baina dautazue erraiten: hemen diotuna apostolu, saindu, eta perfeten amodioa da? Ez giristino maiteak ez: hor da guziek izan behar dute amodioa. Etsai batek kalte zer bait egin dautzue? mendekatzeko chedetan zarezte? ez dazue Jainkoa maitatzen. Erreka jotzeko phonduan zarezte,

Arras ez erortzeko zuzenkontrako bide zerbait gogoan derabilkazue, eta bilhatzen duzue. Ez duzue Jainkoa maitatzen. Munduko handi baten ganik fegore zerbaiten ardiesteko, Jainkoaren manamendu bat edo bertze ostikatzeko chedetan zarezte? ez duzue Jainkoa maitatzen.

Bainan goseak hilen nau, gabeziarik handienera eroriko naiz ez badut huleko manamendua hausten. Orduan bederen ez dezaket manamendu hura kolpa? Ez segur. Bainan ez badut huleko erlisionearen etsaia laguntzen, ez badut huleko orduan ene kontzientzia salzen, chahu naiz, galzen dut ene bizipide bakharra, galzen dut ene irabazbide bakharra? Deusere ez du munta: doala bizitzea, ethor dakizula heriotzea, beira manamenduak horra zer nahi kasutan zure egiteko bakharra. Ez dakizu zer dion bada Jesu-Kristok Ebanjelio Sainduan? Bilha oroz lehen Jainkoaren erresuma eta harateko zuzenbidea; gaineratekoak Jainkoak emanen dauzkitzu nasei.

Benediziona eta bethiereko bizitzea, mazarizona eta sekulako heriotzea zuen eskuetan dituzte. Izanen duzue benediziona eta bethiereko bizitzea Jainkoa bihotz guziaz maitatzen baduzue, beiratuz haren manamendu guziak; eta berriz mazarizona eta bethiereko heriotzea Jainkoa baino maiteago baduzue bertze norbait edo bertze zerbait. Zein duzue hautatzen?

Guziek diozue benediziona eta bethiereko bizitzea. Hortakotz nahi duzue maitatu zuen Jainko Jauna. zuen bihotz guziaz, zuen arima osoaz, zuen indar guziez, erran nahi baita amodiorik osoenaz, bizienaz eta azkarrenaz.

E S P E R A N T Z A R E N A B U S U A Z .

Spes impiorum peribit.Prov.IO,28.
Gaistoen esperantza,heiekin galduko da.

Giristino maiteak,

Bakharrak dire salbatzea arras etsitzen dutenak;bakharrak esperantza arras galzen dutenak. Baina bada anhitz beren salbamendua bethi gero-
rat igorritz bizi direnak. Anhitz giristino tzar, Jainkoa ona delako estakuruan, Jainkoak galdu nahi ez dituelako aitzakian,belkatura nola-nahi lerratzen dire eta finkatzen esperantzazrik galgarri-
enean.

Gerora danden giristino hoieri nahi nizaiote mintzatu. Diotet: handizki hobendun zarezte, Jainkoari laidorik belzema egiten diozue, eta nahi ala ez sekulako galpenera zoazte.

I

Ba naski Jainkoa neurrigabeki ona da. Izaitte guziak maite ditu,baliosenak bezain ongi ar-
rujtenak . Jainkoaren Probidentziak ez du nehor ahanzten ez beresten. Khondu dauka handienez bezain ongi ttipienez,halanola belhar phiruz,aire-
an dabilan ulitchaz edo lurrean herrestaka doan harraz.

Bainan bere eskus egin obra guzien artean,bere obrarik maiteenaz eta lehenaz, erran nahi baita gizonaz da Jainkoa amulsukienik orhoitzen. Gizonari egiten dio bertzeri ez bezalako ikhustate berezi bat, Ez othe du gizonarentzat egin munda?ez othe ditu lurreko gauza guziak egin gizonaren zerbitzuko? Eta Jainkoa zenbat ona dan gizonarentzat hoik guziak ez othe dute aski gora erakusten?

Bekahtorosa bera,laidoka ari zaion bekahtorosa bera, Jainkoak ez du baztertzen.

Jainkoak igortzen du bere ihintza onen landetara bezain ongi gaistoen funtsetarat, iguzkia onen argitzera bezain ongi gaistaginen argitzera. Mat. 5, 45 Zer diot? Bainan bekhatorosentzat ditu ikhustaterik bereziak? Zertako da jautsi zerutik lurrera? bekhatorosen salbatzeko. Zertako du hartzen esklaboaren itxura? bekhatorosen libratzeko. Zertako du eremaiten lurraren gainean bizitzerik garratzena? bekhatorosen chode hobetara itzul-arazteko. Zertako da hilzen khurutze baten gainean? bekhatorosen erosteko. Zertako ditu egiten sakramenduak? bekhatorosen saildutzeko. Eta Eliza ama saildua? bekhatorosen argitzeko. Zer behar da gehiago Jainkoa zenbat den ona bekhatorosentzat erakusteko?

Bizkitatteen, g.m. nehorik ezin neurtua izana gatik, Jainkoaren ontasunak, eta urrikalmenduak baditu guretzat bere mugak. Ez ditake muga hetarik urrunago joan, eta joan baladi ez litake gehiago ontasuna bera izanen. Jainkoaren ontasunak zer du nahi oroz lehen? Gizonaren salbamendua. Eta zein da Jainkoaren ontasunak iragan ez dezakeen zederra hori? bekhatorosaren thoma gaistoa, gaizkirako atchekimendu tzarra.

Jainkoa neurrigabeki ona da, bainan ez gaitu gu gabe salbatzen, are gutiago gure borchala. Utzi du gizona bere libertate osoan. Utzi du libro nahi bada bizi, nahi bada hil; nahi bada bekhatuan pulunpatu, nahi bada ongian erabili; nahi bada jaidura makhurreri jarraiki, nahi bada itatu manamenduak beiratu. Hanbat hobe hautatzen badu ongirako bidea; hanbat gaistoago gaizkira balinbadoa. Jainkoak emanen dio egun batez merezi duen saria: sekulako zoriona ongian egon bada, bethiereko gaitigua bekhatuan bizi eta bekhatuan hil bada.

Bada zer du egiten esperantza galgarrarian bizi den bekhatorosak? Jainkoak deitzen du mila bizidex biziz Khanbiatzer, hertsatzen du bekhatutik

lehenbailehen atheratzerara; gomitatzen du chode hobetara itzulzera. Eta bekhatoros mota horrek zer du egiten? Jainkoari obeditzeko orde baliatzen da Jainkoa ona delakom estakuruaz bere chode tzarretan egoiteko, bekhatua-bekhatuaren gainean metatzeko. Bah! dio bere baithan, Jainkoak ez nau egin galzeko, eta orduan zertako oz goza? Jainkoa neurrigabeki urrikalmondutsua da; egin dezadan bekhatu gehichago edo gutichago, bardin barkhatuko daukit.

Biziz Khanbiatzer? ba segur egun batez oginen bainaz; bainan ordu arte bizi dut griharik gabe, bilhatuz lurreko gozaman guziak, aseaz one gutizia guziak. Fruamar bonis. Ez othe dugu bethi asti biziz Khanbiatzerko? izanen ahal dugu heriotzeko orenean boderen absoluzione laster baten izaiteko denbora. Horra zer derabilkan gogon presompzionez bethea den bekhatorosak, eta nolakoa den haren esperantza.

Holako bekhatoreak, g.m. ez othe du itsuski laidostatzen Jainkoaren saildutasuna, ostikatzen haren justizia, eta mersprezatzen haren urrikalmendua?

II

Jainkoak higitzen du bekhatua saildutasuna bera delakotz, eta higitzen du sekulako herarekin. Zer diot? Bekhatuaren gatik, Jainkoak hastiatzen du bekhatorosa bera ero. Odio sunt Deo impius et impietas ejus. Sap. I4, 9. Nun nahi aurkhi dadin, Jainkoak maderikatzen eta hastiatzen du bekhatua. Ez du behatzen zer bekhatu mota den, zer jonde motak egina den. Kondenatzen du zeruko aingeruetan, halanola lurreko jenderik aphaletan. Bere Seme barkhara agortzen zaio bekhatuaren itchuraz jauntzia, gizonen bekhatuez kargatua. Hori bera aski saildutasuna bera den Jainkoa Seme horren kontra asarre gaitzean ezartzeko. Eta ez dio barkhatzen Seme horri ongi gaitigatu duen artio.

harritzeko heriotzea jasan-arazi dion arte khurutze baten gainean.

Horra, g.m. norainokoa den saindu Jainkoa. Saindutasuna bere delakotz, horra nola duen hastiatzen bekhatusa, nola duen zafretzen bekhatorosa. Eta Jainkoa horren ohtasunaz baliatzen da presompzioez bethea den bekhatoroa tzarkerian aiseago egoitoko, Jainkoaren izen saindua nola-nahi erabilzeko, haren manamenduen nola-nahi ostikatzeke, haren erlisionearen desohoratzeko, bere jaidura makhurren asetzeko. Eta gero bizi da Jainkoaren ganik barkhamendua erreski ardietsiken duelako ustean

Bainan nor dela dauka Jainkoa esperantza izigarri hortan bizitzeko? Uste othe du aments Jainkoak ez duela senditzen egiten dion laidoa? Uste othe du Jainkoari bardin saiola bere kreaturak obedi ala inardiok dezon? izan dadin bekhatus kargatua ala berthute suerte guziez aphaindua? Uste othe du bardin saristatzen dituela jende onak eta gaistoak? Bainan Jainkoaz holako gogetak derabilzkanak, ez othe du ukhatzen Jainkoak bekhatuarentzat duen herra bizia? Nahi othe luke aments ezarri Jainkoa bere tzarkerietan parتيالier? Nahi othe luke Jainkoa ere izan dadin munduko belzkeriez hobendun? Bere bizitze tzarraz hala du erakusten. *Servire me fecistis in peccatis tuis.* Isai. 43, 24. Bada egin ditake laido belzagorik Jainkoaren saindutasunari?

Zer eginen dio Jainkoak holako bekhatore thematuari? Gaitz suerte guziak igorriko diozka gainera. Grazia galduko du, bethireko agorrerriak joko du, bekhatusan gogortuko da bere jaidura makhurrek norat-nahi herrestatuko dute. Eta noiz eroriko da holako zorigaitzera? Jainkoak dio Dabid erregearen ahoz: bekhatoreak ez dezala uste izan mendekioen egun lazgarri hori oraino urrunduela. Ez gaitzigu aldean du. Ez pataren chorros-tera noa; ezarriko dut chimista bezain sarkor;

bihurtuko dut horrari herraz, etsaigoari etsaigoaz.

Baratzen naiz, g.m. eta galdatzen dantzet zer diren dichidu lazgarri hoik? zer diren mehatchu hoik guziak? Alegiazko dichiduk othe dire? edo ondoriorik gabeko athermaldi batzu? Hola uste izaitza, hola erraitza, ez othe litake Egia bera den Jainkoaren laidostatzea, belstea?

Bizkitartean bada norbait hola dela uste duena, holako dichiduez futitzen dela aditzerat emaiten duena; nor da hura? Presompzioez bethea den bekhatorosa. Edo sinesterik ez du batere Jainkoaren justizian, edo sinestoa balinbada, truffatzen dela erakusten du. Irri egiten du Jainkoaren dichiduez eta mehatchuez. Uste du ba tronpa Jainkoaren justizia, uste du eskapa justizia horren kolperi, gainera heldu zaizkola ikhusiko ditusnean; hortakotz du menturaz beldurrik gabe desafiatzen Jainkoa bere itsuskeria eta belzkeriaz.

Bainan tronpatzen da; Jainkoak ez dezake utz ongi zafratu gabe holako presompzioe ikharagarria. Bere ohorearen gatik, bere saindutasunaren eta justiziaren gatik, Jainkoak behar du noizbait gaitzigu presompzioez bethea den bekhatorosa. Zer diot? behar du oraino gaitzigu bere urrikalmendua gatik.

Jainkoaren urrikalmendua edo miserikordia ere azkenean laidostatua izanaren bortohaz, itzulzen da bekhatoros gogortuaren kontra; gaitzitzen da harentzat barkhamendu eskatzetik, gaitziguaren urruntzetik. Jainkoa ona delako estakuruen bekhatu egiten duenak, edo hobeki, Jainkoak barkhatuaren diolako aitzakian bekhatura nola-nahi lerratzen denak, zer duegiten? Ostikatzen Jainkoaren urrikalmendua eta ontasuna.

Mila miletan izan du urrikalmenduaren bisi-

ta bere bizi tzarreko denbora guzian, jarraiki zaio bere itsuskerien erdiraino. Zenbat aldiz ez du jo heren bihotzeko atsean nahi hura urrikitan sar-arazi, eta urrikiaren bidez graziazko estatutara itzul-arazi. Abertimendu, erreporchu, bihotzmin kontseilu, erakaspén, suerte on, suerte txar, zigor, herio, jubilan, misione, Jainkoaren miserikordia zerbitzatu ez den biderik ez da bekhatoros thematuaren graziazko estatuta itzul-arazteko. Baina guziak debaldetan, beñi ihardoki dio; ez oraino, orainik ez; gerochago, gerochago; jaidurak hoztu zaiztanean, aski ontasun bildu dutanean, ongi jostatatu naizenean; bertze hitzez; belskeriek aski unhatu nautenean, atseginez aski gozatu naizenean, zahartu eta gehiago deusetako on ez naizenean.

Horra bekhatoros gogortuak nola dion Jainkoaren urrikalmenduari ihardesten. Gerochago? Baina gero hori izanen othe du? Eta emagun ethortzen zaiola; baina orduan ohede hobetan izanen doa? Jainkoak eginen othe dio grazia? Heldu da egun bat, ordu bat, bekhatuan thematzen dena, bekhatuan gogortzen baita, urrikalmendua urruntzen baitzaio. Orduan bekhatorea bere gain utzia da. Rom. I, 28. Ikhusten ditu berak ez dakiela nola Jainkoaren gatziguak bere gainera jausten. Baina orortzen da, dio Jon doni Paulok, loheria hilgarri batea. I Cor. II, 30.

Gaizkirako bidean itsutua eta gogortua, kontzientziaren oihurik ez du gehiago aditzen; edo kontzientziaren boza estaliaren bortzahaz hil du bere baithan. Deskantsuan bizi da bere bekhatuan erdian; herio gainean duela ikhusteak menturaz inharrosiko du aphur bat. Baina nork daki hean abisatuko duen. Heriotzeak bertze zenbait bezala jotzen badu ohar gabean, heldu zaiola erran gabe, norat doa? sekulako oin hazen erdira. Uzten badio astia bere baithan sartzeko, bere estatu dohakabearen senditzea, ah orduan hel eginen dio menturaz

Jainkoari. Ordu arte beñi mersprostatu, beñi laidostatu, beñi zhentzi duen Jainkoari erranen dio Grazia Jauna! othoi urrikal nitaz! Eta Jainkoaren urrikalmenduak erranen dio: hainbertzetan deithu haut, eta beñi bazertu nauk; hainbertze grazia egin daiat, eta guziak ostilkatu dituk; hainbisu eman daukiat, eta guziok futitu haiz; voca vi et renuisti. Prov. I, 26.

Egun deitzen nauk, nahi hukoeene adiskidantzan sarthu ez baitezpada ni maitez, baina ene gatziguari eskapatzeko. Baina orai ene aldi: Nik ere baztertzen haut, nik ere irri egiten daiat, trufatzen nauk hitaz; hil hadi bizi izan haizen bezala; erain duk tzarkeria, izanen duk orai gatzigua. Ene ontasunaz eta urrikalmenduaz trufatu haiz, orai ene urrikalmendua ere hitaz trufatzen duk. In interitu vestro ridebo vos et subsanabo vos. Prov. I, 26.

Horra g.m. egia handi eta lazgarriak. Antioqus erregearen heriotzeaz orhoitzen zarete. Hilzera dot. Anhits itsuskeria oginik dago eta barkhamendua estatzen du Jainkoari; baina ez bihotzetik, ez egiazko urrikiarekin, eta hortakotz hilzen da barkhamendurik gabe bekhatuz kargatua. Baina Jainkoak ez ditu bekhatoros gogortuatzat bakharrik erran ogia ikharagarri hoik guziak. Guzientzat erran ditu; ez du nehor beresten; ezanor nahi izan gaiten badugu guziok biziz Khanbiatzearen beharra. Guziok badugu gutienean jaidura makhur bat bederen zapatzeko, itzal bat bederen gure baitharik khentzeko, berthute baitezpadako bat bilzeko. Guziok egin dugu gutiagodo gehiago bekhatu; baina egin dugu bekhatu hoientzat aski penitentzia? Zor handitan jarri gare Jainkoari buruz, baina zer egin dugu gero zor hoien pagatzeko?

Izpiritu sailduak, hura zer dankun erraiten guzieren egun: Zuen kontzientziak egun aditzen badu Jainkoaren boza, erran nahi da, bihotzaren zolan aditzen baduzue Jainkoaren mintzoa, ez zaitzuela hets eta gogor zuen bihotzak. Nolite obdurere corda vestra. Ez erran gerochago izanen naiz khartsnago, gerochago sakramenduetara jarri raikiago, gerochago othoitz egileago. Gerochago horrok anhitz tronpatu du denbora guzietan, Ez beraz erran gerochago eginen ditut obra onak, gerochago hasiko maamonduen zinez beiratzon, gerochago utziko dut arras bekhatua, eta lothuko naiz bizitze sailduari. Orai g.m. orai da denbora bizitze sailduari lotzeko, orai da denbora obra on agiten hasteko. Jainkoak, dio Elizako aita batek, Jainkoak hitzemaiten du barkhemendua, baina ez danku biharanunik hitzemaiten. Qui penitentiam veniam promisit, peccanti diem crastinum non promisit.

Ez khonda beraz geroaren gainean, orai beretik sar zaitzete esperantza egiazkoan, esperantza sailduan bizi hobera deitzen zaituzten esperantzen. Holako esperantzak ez zaituzte tronpatuko, ez mundu huntan ez bertzean. Holako esperantzari zait hitzeman mundu huntako eta berteko zordona, holako esperantzarekin bizi denak du iguniritzeko Jainkoak oneri hitzeman dioten sari bethierekoa.

ESPERANTZA SAINDU AZ.

Quaerite primum regnum Dei et omnia
adjicientur vobis. Matt. 6,33.
Bilha lehenik Jainkoaren erresuma, eta gaine
ratoko gauzak izanen ditutzue nasai.

Giristino maiteak,

Gizonaren bihotza lurraren gainean deusek
ere ez du hale azkartzen, deusek ere hanbat ez-
tatesunez bethetzon, hola esperantza sailduak.
Onekotik eta hobiraino esperantza saildua bethi
aldean dohako.

Bainn berthute hori ez da guñe baitharik
etherstizen; sinestea bezala zeretik da jausten
gure baithara. Eta esperantza sailduak, zer dau-
ka hitzemaiten? Lehenik sekulako goriona bertze
munduan, eta lurrean behar dugun bizitzeko guzia.
Horra esperantza sailduari esker zer dugun igu-
rikitzeko.

I

Aditu duzue Jainkoaren hitza. Bilha lehe-
nik Jainkoaren erresuma. Gure esperantza finka-
tzen da Jainkoak berak eginikako agintzen gai-
nean. Eta badakizue g. m. Jainkoak zer daukun
hitzemaiton bere erresumaz mintzo delarik? Bora
dela giristinoek iguriki behar duten saria.
Gen. 15, 1.

Ba g. m. Jainkoa zeruetako erresumaz min-

tzo delarik edo oraino bizien lurraz, gozamen o-soaz aihu duenean edo gure lehia guzien asetzaz hitzemaiten dauku phartallier eginen gaituela bere zorion bethierekoan. Baina hortarakots zer dauku galdatzen? adi zazue beraren ahotik. Dohatsu gogoz pobre direnak! Dohatsu bihotzez eztiak! Dohatsu baketiar eta karitatez betheak! Dohatsu bihotzez garbiak! Dohatsu zuzenbidearen gatik jazargoak pairatzen dituztenak! Ahanzten othe ditu bekhatoros dohakabeak? ez segur.

Jenderik galduenak urrikitan sartzen direa? bekhatoreak chede hobetara itzulzen direa? Jainkoak orduan barkatzen diozkate beren bekhatu guziak, ahanzten ditu heien itsuskeriak. Ps.50,13. Eta ez bakharrik diote hitzemaiten bekhatuen barkhamendua, baina oraino ditu bere agintzak batzu eta bertzeri miletan errepikatzen eta finkatzen zin eginez, Hebr. 6,11,3. Jainkoak zin egiten du bere burua berme ezarri, egiazki biziz kharbiatzen, egiazki haren ganat itzulzen den bekhatorea, salbatuko dela. Eta graziazko estatuan buruaino iraun dezan, Jainkoa laguntza guzien emaitera haletan zaido leniatzen, ez baitu laguntza hoik gabe sekulan utziko, zinez eta leialki galdetzen badizka, erran nahi baita, laguntza hoiez baliatzeko chedeten balinbada.

Eta badakizue g. m. Jainkoa bethi zinez da mintzatzen. Jainkoa ez da aldaatzen behin erran duen hartarik. Egin duen ongi ez du sekulan dolurik. Gizona badabil norat iguzki harat buruzki. Jainkoa sekulan. Jainkoa egia bera da. Jainkoa neurrigabeki botheretsu da. Jainkoak hitzemaiten duena atchikitzen du. Ez othe da gauza guzien Egilea eta Nausi oroz gainekoa?

Hitz bat erraiten du, eta zeru-lurrak ez-deusetarik atheratzen ditu. Zerua bere iguzki,

izar eta bertze argi oderrekin; lurra bere mendi, oihan, zelhai eta fruitu suerte guzietan.

Jainkoa neurrigabeki ona da. Nahi du erran dezogun- Gure Aita- Aita deituz egiten diogu at-seginik handiena. Othe da aitarik Jainkoa bezain Aita denik? Nemo tam Pater ut Deus. Eta aita batek ahantz othe ditzazke bere haurrak? Galdutak ginen guziak; eta Jainkoak ez dauku igorri bere Seme bakharra gure salbatzera?

Jainkoak ez gaitu sekulan bazterrera utziko. Baina Jainkoaren ganik guzien igurikitzeke se-gurtamena balinbadugu, guk emanen othe diogu bethi galdatzen daukun guzia? Ez othe da beldur izaitzeko Jainkoari huts egin dezogun gure aldetik? Hitzemaiten dauku Jainkoak bere zeruko erresuma, audarik gabe, baina gure aldetik zerbaite eginen dugulakoan, erran nahi baita, haren graziari jar-raikiz, manamenduak beiratuko ditgulakoan.

Zorigaitzez Jainkoaren graziari ihardok dezokegu. Hain gare ahulak, jitez gaizkirat ekharriak, Frangotan ere hain gare gaistoak, ihardokitzen ere baitiogu. Horra zertako ikhara saindu batean bizi behar garen bethi. Ez dakigu chuchen bizi othe garen Jainkoaren amodioan ala herragoan. Ecc.9,1. Ez dakigu othe goazen zerurat ala ifernurat. Gogor eta fermu garaia aste dugun orduan, nor daki ez othe garen erortzeko hirrisku minean?

Baina gure indar hutsekin ez badezakegu merezi ez zeruko erresuma, ez Jainkoaren grazia, bada norbait bat eta bertzea merezitu daukuna. Jainkoaren Seme bakharra ez othe da gizon egin gure salbatzeko; ez othe da hil merezi ez ginitzazkeen grazien ardiesteko? ez othe da igan zerurat egun batez gure errezebitzako?

Be g.m. Jesu-Kristok utzi ditu bere merezimendu guziak gure eskuko, gure egin ditu. Eta Jesu-Kristoren merezimendu hoik ez othe dire aski baino gehiago grazia suerte guzien ardiesteko? Fori eskor dugu, batzuek graziazko estatuaren oso atchikitzeke botherea? bertzek biziz Khanbiatzeko grazia? guziek azken hatseraino Jainkoaren amodioan irauteko grazia? Jesu-Kristori esker, ez dea hala? Grazia hoieri ez badiotegu ihardokitzen bekatutik atheratzen gaituztelarik, edo bekatutik urruntzen, edo oraino ongirat sustatzen, nahi bezain ahulak izan gaiten sortzez, ez othe da segur barkhamendua ardiesten daukute-la, saindutezko bidean ezartzen gaituzte-la, salbamendua segurutzen daukute-la?

Ez uste izan g.m. justuek bakharrik behar dutela izan Jainkoaren baithan holako esperantza handi eta azkarra? bekhatorosek orobat izan behar dute, balira ere tzerrenak, eta bekhatuan gogortuenak. Hortarakotz zer behar dute? urrikia izan eta hartu bekhatuaren uzteko chede egiazkoa. Ez dio Jainkoak, ez dut segur nahi bekhatorea gal dadin, bainan bai itzul dadin graziazko estatura, eta bizi dadin; garbi ditsan bekhatuaren thonak, eta has dadin ongiaren egiten. Orduan bekhatorosaren arima balitz ere khederra bezain belza, ezarriko nuke elhurra bezain churi; balitz ere lurpeko harra bezain gorri ezarriko nuke iguzkia bezain argi; balitz ere lohiz gaineraino zikhindua, ezarriko nuke itharriko ura bezain garbi.

II

Bainan giristinoak, Jainkoaren genik ez ditu bakharrik iguriki behar bertze munduko ontasunak, graziazko laguntzak, behar ditu oraino

iguriki mundu huntuako gauzak, eta behar-orduetako laguntzak. Hori dauka adituzerat emaiten, dionean: gainerateko gauzak izanen ditutze nasai. Et omnia adjicientur vobis. Homen bertze gauzetan bezala, Jainkoak nahi du haren baithan ezar dezagun gure fidantzia, gure esperantza osoa.

Adi zazue nola zaukan mintzo: Jainko behar da izan hola mintzatzeko. Erraiten dauku profeta baten ahoz: Eman zaitzte osoki Jainkoaren eskutan eta berak haziko zaitutete. Ps. 54, 23. Ez izan griñarik, dio bere Semearen ahoz, num hatzemanen duzen bizitzeko hazkurria, eta soineko bat zuen gorputzen estalzeko. Matt. 6, 25. Biziak ez othe du balio hazkurriak baino gehiago, eta soinekoak baino gehiago gorputzak? Eta bat eman dautzuenak, uzten anal zaituzte bertzea ere eman gabe?

Eta gure esperantzaren azkartzeko eta beharrez phizteko, dio aitzina: Beha zeruko hegastineri? deusik eraiten dute? deusik ustutzen edo bilzen dute selharuetarat? deusero. Zuen aita zeruetan denak bakharrik hazten ditu. Zenbat gehiago ez zuek ez zaituzte haziko? ez zarezte haren Probidentzia bereziaren haurrak?

Beha orobat landetako lillieri? nork ditu hola handi-arazten? nork ditu hoin ederki aphaintzen? Berek ez dute hortarakotz lanik egiten, az eta ere iruten. Eta aithortzen dautzuet, Salomon erregea bera bere urgulu eta ohore guzien ordian behinere ez da aphaindu lili hoietarik bat bera bezain ederki?

Eta Jainkoak hartzoñ badu hoinbertze artha landetako lilliez, egun ba eta bihar ez direnez, zer ez du oginen zuen gatik, sineste aphurreko gizonak? Ez beraz bururik hauts paganoek eta sineste gabeko jenlek bezala holako griñetan.

Zuen Aita zerukoak badakizka zuen behar-ordu gu-
ziak. Neurrigabeki ona delakotz ez zaitzate utzi-
ko deuseren eskasean. Bilha zazue lehenik Jain-
koaren erresuma eta harateko zuzenbidea, gaine-
rateko gauzak izanen ditutzue populu.

Bizkitatteen, g.m. ez uste izan hitz hoietaz
Jainkoak deitzen gaituela bi oskuak sakelan edo
alfer egoitora. Ez, ez; Jainkoaren laguntza ardi-
etsi behar da ongi bermatuz merezitzera. Deusik
egiten ez duenak, ez du izanen deusere. Lanik ga-
beko saririk ez da.

Croz gainetik, ez ofentza Jainkoa. Bekha-
tuaz ez jar Jainkoaren etsaigoan. Gero loth zai-
tezte zinez lanari; onets-azue Jainkoak bakotcha-
ri eman dautzuen bizipidea. Balia zaitzete zuen
buruaz eta zuen eskuez; ez ditutzue izan alfer
atchikitzeke Jainkoak eman onez zerbitza zaitze-
te zuhurki eta zuzenki.

Baduzue bizitzekoa baino gehiago? sobera-
kin hori ez oharu nola-nahi. Gainerateko horre-
kin lagun zaitzue beharretan direnak, eginzkitzue
obra onak. Jainkoak ere orduan ez dautzue huts
eginen. Dei-doia bizitzekoa duenak, ezar beza be-
re fidantzia guzia Jainkoaren baithan. Aditu du-
zue behinere Jainkoak baztertu duela haren bai-
than sainauki eta haur baten pare fidatu dena?
Sekulan, dio Dabid erregeak, sekulan ez dut ikhu-
si Jainkoak bazterrerat utzi duela jende zuzena,
eta jende zuzenaren haurrak beren ogiaren eskat-
zera borehatuak izan direla.

Sainduen bizia hor da hitz hoien lekhu-
ko. Jainkoak igortzen dio bati ogi erdi bat egun gu-
ziaz bele baten mokoan. Bertze baten ganat igor-
tzen du eingeru bat zaretto bat eskuan jateko
bethea. Bertze zenbaiti ogia emendatzen zaitote

oskuetan. Eta azkenskotz, bere molsako dirua a-
mainetan bethi emendatuz doako bertze bati.

Horra zer den gerthatu iragan mendetan.
Jainkoaren baithan zuten esperantza handiak, horra
zer dioten merezitu anhitz saindueri. Ez Jainko-
ak ez dauka sekulan huts eginen; hitzemaiten du-
enaren atchikitzeke neurrigabeki zuzena da alde
batetik, eta bertzetik neurrigabeki botheretsua
bethetzeko. Ez gaitu sekulan trompatuko; egia be-
ra da; ez eta sekulan bazterrerat utziko, neur-
rigabeki ona baita.

Beraz g.m. zer nahi egin dezazuen, zer nahi
hi paira, zer nahi gutizia, ezar-azue zuen espa-
rantza guzia Jainkoaren baithan. Mundutarrek fi-
da beite beren buruetan, munduko agintzetan; zu-
ek orhoit zaitzete Jainkoak laguntzen ez bagaitu
gabezia gorria dukegula lurlean eta sekulako be-
harrezia bertze munduan. Ikhusiko ditutzue anhitz
beren abilezian fidatzen, bertze anhitz beren on-
tasunetan khondatzen, batzu beren osagarri onean
pausatzen. Hoik guziak izan beite zuentzat ez-
deskeria batzuen pareko. Badakizue aphur baten
buruan, aberastasun, ohore, atsegin eta gaitz gu-
ziak iraganen dire guretzat. Munduak enganetzen
gaitu; Jainkoak egiazki saristatzen. Eta gero,
arranguratuko zinalzketek Jainkoak eman dautzuen
bizipideaz?

Bertzalde, g.m. guziak, nor nahi izan gai-
ten, aberats ala pobre, handi ala ttipi, nausi
ala sehi, guziak ez ohar gaitu bathaioak errege
batzu egin? Ez naski laster suntsituko den erro-
sumako errege, bainan bai alchabatzerik izanen ez
duen erresumako premu.

Behere huntan anhitz gaitzek hersten gai-
tuzte alde guzietaririk. Izanikan ere ontasuna

frango sekulan ez gare osoki aseak. Baina kont-
sola gaiten; ezen diot harriz ere, akhabatzerik
ez duen erresumak igurikitzen geitu hobiz bertze
aldean. Eta erresuma hartan zer dugu izanen? be-
thiereko bizitzea, pare gabeko ohorea, neurriga-
beko zoriona, hitz batez, on suerte guzien nasai-
zia eta bethetasuna.

Eta gero ez ginuke aski bihotz izanen gure
burnen aphur bat bortchatzeko? ez ginitazke aphur
bat bermatuko gure baitako jaidura makhurren
zaphatzera? eta herrapaka lothuko ginitazke lur-
reko ontasun ezdeuseri?

Bihotz puska bat g.m. Bilha lehenik Jain-
koaren erresuma eta harateko zuzenbidea; erran
nahi da, berma zaitezte Jainkoaren eta Elizaren
manamenduen leialki beiratzera, berma bakotchak
bere estatuko egindibideen bethotzera. Ez arangura
Jainkoak igerri gaitzez, aitzitik jasan gogo onez
muru luntako atsegabent. Ginerateko gauzak izan-
nen aitzizue nasai; erran nahi da, izanen duzue
bizitzeko behar duzuen hazkurria, gorphutzaren
estaltzeko behar duzuen jauntzia, zuen burnen ge-
rizatzeko behar duzuen atherbea; zer nahi zinu-
kete gehiago?

SINESTEAREN GOFAKI AITFORTZEAZ.

Qui me confessus fuerit coram hominibus
confitebor et ego eum coram Patre meo.

Nork ere aithortuko bainau Ni gizonen aitzinean, Nik ere hura aithortuko dut ene Aita zerukoaren aitzinean. Math. 10, 32.

Giristino maiteak,

Badire jende batzu sineste handiko giristino direnak, baina nehorik ikhusten ez dituelarik bainau beren etche chokhoan. Ez baita ordian hari aski bethi. Ordu batzuetan, fededun behar da agertu ez beharrik bere etche chokhoan, bainau oraino jenden aitzinean. Etchean zareztelarik, Jainkoarentzat egin duzuen, bertze molde batean egin behar duzue gizonen aitzinean. Ba, g.m., gizonen aitzinean behar duzue sinestea aithortu, Jainkoaren ohoreak galdatzen dautzuen aldi guzietz, ba eta ere giristino legunaren arima galzeko lanjeretik salba dezakezuen aldi guzietz.

1

Lehenik Jainkoaren ohoreak galdatzen dautzueten aldi guzietz. Badakizue, g.m., Jainkoak berretzat egin gaitu. Omnia propter semetipsum operatus est. Prov. 16, 4. Gure eginbide lehena, handiena, hertsiena, da arima eta gorphutz Jainkoaren oheratzea eta zerbitzatzea. Jainkoak ez gitezake nahirik ere eginbide hortarik gibela. Berretzen ez badugu, ez da guretzat ez salbamendurik

ez bethiereko onik.

Bainan egun batzuetan eta suertatze zenbaltetan, Jainkoa behar da ohoratu eta zerbitzatu, bere sinestea erakutsiz, ez bakharrik bihotzez, bainan oraino agerian.

Muna Igande edo Bestaburu bat. Jainkoaren manamenduak, nahi ala ez, hertsatzen zaituzte egun saindu hoietan zuen sinestearen goraki aithortzera. Eta nola hori? Meza saindua entzunez, eta ahal delarik bezperetan aurkhituz; lan debekatuetan ez ariz, ego itsuskeriazko egintzetarik beiratuz. Jainkoari egun saindu hoietan zor diozuen ohoreak horiarat zaituzte hertsatzen.

Ez eginez, erran nahi baita, zuen faltaz meza entzun gabe egonez, edo beharrik gabe lan debekatuetan ariz, edo oraino itsuskeriazko egintzetan pulunpatuz, ostikatzen duzue Jainkoaren manamendurik handiena, ukhatzen bezala duzue zuen sinestea. Bada jakizue Jesu-Kristok ere bere aldiari ukhatuko zaituztela bere Aita zerukoaren aitzinean.

Ah! g.m. uste duzue ez zinuketela atsegin gehiago zuen bihotzean, Igande eta Bestaburuak saiduki iraganez! Ba segur: egun hoik orduan, izanen litazke zuentzat eta zuen familientzat, egun alegerak, izanen lituzkete biharamun hobeak; ez litake zuen familietara hainbertze desmasia eror!

Gauza bera erran behar nuke sakramenduetara hurbilzeaz. Jesu-Kristok gomitatzen gaitu guziak Handiak gomitatzen ditu ttiplak bezain ongi, pbreak bezain ongi aberatsak, emazteak bezain ongi gizonak, zaharrak bezain ongi gazteak. Jesu-Kristoren gomitua baztertzen dugu? sekulakotz besten dauzku bere zoruko atheak.

Gomitatzen gaitu Eliza ama sainduak: edoio-gu inardesten urthoan behin bederen, erran nahi baita Pazko donboren; mehatxurik ikharagarriak egiten dauzku. Gomitatzen gaitu gure baitako beharreziak; zenbat ez gare gure jitez ahulak eta fluchak! ez bagare komunione saindua maiz eginez azkartzen errechki lerratuko bekhatura. Eta azkenean, beharra balitz erran nezake sakramenduetara gomitatzen gaituela Erlisicneari egi-na zaion gerla izigarriak. Egungo egunean ikhusten, aditzen, eta egiten diren tzarkerien erdian, ezin ditake egon chutik sakramenduetara maiz hurbildu gabe.

Komunione sainduak baino gehiago, zerk du du azkartzen gizona? Komunione saindua egiten duonak zer graziak ez ditu ardiesten? eta denbora berean zer onorea ez dio Jainkoari bihurtzen? zer erakaspen ederra ez du bere giristino laguneri emaiten? Mehaiu saindua jondea maiz hurbilzen balitz, sinestezk bertzo indarrik lukeela bazterretan? karitate gehiago litakeela jenden artean? eta bake hobe munduan?

Nola da oraino bere sinestia goraki erakasten? Emagun bicean zoaztela. Khurutzatzen duzue Jainkoaren minchotro bat sakramenduekin dcala. Holako bat suertatzen zaitzuenon, egon zaitzekete ezachol? sinesteak ez dautzue deusere galdatzen? Zuen eginbidea orduan, hau da: kapelua khendurik Jesusen adoratzea; ez duzue egiten, kasurik ere egin gabe bazozte aitzina? edo oraino jenden ahalgez bazozte erlisicneko urhats hori bethie gabe? ukhatzen duzue zuen sinestea, ostikatzen holako orduetan Jainkoari zor dituzuen ohorea. Jesu-Kristok ere egun batez, ukhatuko zaituzte bere Aita zerukoaren aitzinean.

Bertze ordu batez, aurkhituko zarezte behar bada lagun andana batekin aphairu batean. Orduan

ere, zer bide ederra zuen sinestearen erakusteko? Nola hori? Jaten hasi baino lehen othoitz bat eginenez edo bederen khurutzearen seinalea. Badae deus zuzenagorik? Ez othe daitzue Jainkoak emaiten hartzora zoazten jatekoak? eta jan dezazuen, ala edan dezazuen, ala bertze zer nahi egin dezazuen, ez otheduzue gauza guzietan bilhatu behar Jainkoaren ohorea?

Bainan ahalgez edo bertzela, mehainean jaritzen zarezte alimaleak mañateraren aitzinean bezala? ez zabilzate jende bezala, oraino gutiago giristino bezala; ez duzue zuen sinestea aithortzen, ez duzue Jainkoa ohohratzen. Bertze zenbat kasutan ez da oraino bere sinestea goraki erakusten? Angelusean, sagara aditzoan, khurutze baten aldean iragaltean, elize baten aldetik doalarik eginez khurutzearen seinalea. Egizue hola, eta Jainkoak ere egun batez aithortuko zaituztete zuen sinestea saristatuz. Bainan ez zaituztete Jainkoari zor dizuen ohoreak bakharrik hertsatzen zuen sinestearen goraki aithortzora; behar zarezte orain fededun agertu giristino lagunaren arimako onak galdatzen dautzetenean.

AA

Huna zer dioten Liburu sainguek: Jainkoak eman dio gizon bakotchari bere giristino lagunaz artha hartzeko kargua. (Mandavit unicuique de proximo suc. Eccl. 17, 12.) Eta noraino doa eginbide hori giristinoentzat? Jon doni Jueni apostoluak erranen dauka: (Et nos debemus pro fratribus animas ponere. 1 Joan. 3, 16,) Cuk ere behar orduan ez dugu bizia guphidetsi behar gure haurriden salbatzeko.)

Nik ez dautzuet hortarainokorik galdatzen.

Zer bada? Solas bizi bat, arrapostu on bat, erakutsiko duena zer chedetakoak zarezten, zer simoste duzuen. Ritz hótz erran behar duzue giristino lagunaren arima lanjorean dela ikhusten duzuen aldi guziez.

Huna erlisionearen etsai bat. Zer nahi bada-rasa Jainkoaren kontra, Elizaren kontra, erlisioneraren kontra, aphezen kontra. Cauzarik sainduenez trufatzen da, erlisioneoko egia-rik handienak gezurstatzen ditu. Bere aditzaileak nakhaizten ditu bere ahapaldi tzarroz. Bainan ez dute kopetarik bihotzean higuntzen dutenaren agerian Kondenatzeko. Alcha bedi orduan beldurrik gabeko gizon bat; ahulak ere phizten dire harekin batean, eta guziek guziek boten kondenatzen dute tzarkeria errailea eta tapatzen diote ahoa. Eta hoiachet, khentzen dio bati tzarkerien erraitoko gutizia, eta bertzeri sinestearen ukhatzeko hirriskua. Ahala duzue guziek, g.m. hola egin behar duzue, eta ez da munduan nehor eginbide horren bethetzetik gibela zaitzakete-rik.

Huna orai mihi lohiko gizon bat. Ez derasen solas zikhinik ez da. Bere atheraldi zikhinez, okhazaturik ezarri ditu bere aditzaile guziak. Bainan ahalge zozo batek dauzka deuserre erran gabe haren ichil-arazteko. Ichilzen dire beraz, eta ichilik egonez aditzerat emaiten diote onhartzen dituztela haren ahapaldi tzarrak.

Bizkitartean zer behar litake aditzaile hoi-en salbatzeko? Arrapostu bizi bat, fedezko hitz bat. Fori bera aski litake frangotan mihi lohiaren ahalgez gorritzeko eta aditzaileen kontziencia lokhartuen emarazteko. Erraiten ahal eta ez duzue erraiten hitz salbagarri hori? Calzerat uzten dituzue zuen haurriden arimak, eta zihaur ere heiekin batean emaiten zarezte galdeteko hirrisku minean.

Huna orai alegia khartsuak, alegia giristinoak. Beron mihian paregabeko giristino batzu dire. Herriko Jaun Erretora bera ez da hok baino khartsuago. Jaun Aphezpikua bera baino giristinoago dire. Aita saindua ere ez da hok baino katolikago. Itchuraz aihenetan daude ikhustean sineseta ttipituz dcala. Bainen ez da jenden falta. Diote aho bethez, aphezak dutela egiten kalterik handiena erlisioneari. Aphezak egoiten balire beren elizetan ez litake segur hainbertze makhur bazterretan. Eta gero beren alegiazko khar hortaz zenbat jende laño ez dute tronpatzen, eta ilusitzen? Egiazko otsoak ardi larruz jauntziak, hoien bentutzeko ahalean denak utz ditzazke holako tzarkeriak jenden artean hedatzera deusere erran gabe? Nork erran ez dala hor craino giristino lagunaren alderateko eginbide hertsia eta handia?

Bertze behin, adiskide eta lagun andanatto bat badocazi hirirat edo merkaturat. Jgande eguna da. Mezako tenerea hurbilzen ari da; behar litako harateko urnatsetan jarri. Bai dio gutienek grinatsu denak: ez dugu astirik; bertze aldi batotez joanen gare. Meza baton galzeak ez ahal gaitu ifemurat igorriko.

Edo craino mehe eguna da. Gizenetik behar litake beiratu. Bainen hemen ere aurkhitzen da bere gisako teologo bat, kontzientziak aisoan ezartzeko. Zer? jan behar othe da ogia hutsik? lekhu huntan haragiak bertzerik ez dute zerbitzatzten. Eta gero denetik jan behar da. Etchean bagine, ez ginuke segur gizen eginen; bainen piadiaz denean, ez da hain minbera izan behar.

Bertzalde, egiten da tokian tokiko gisa, eta azkenean bertzek bezala egin behar da. Ea, bertzeak urerat balinbadocazi zu ere heiekin butean joanen zare. Estakuru hoik guziok funts guti dukete bainen nahi bezain ahulak izan diton, arrapostuz

rik gabe uzten badire, bethi kasik aditzalle gehienak beretuko dituzte. Bada, g.m. jakizue, fededun egiazkoak, bere lagunak bekhatueta phartalier jarri nahi ez denak, heiekin sekulakotz galdu nahi ez denak, dezakeen aldi guziez, behar dituela bere lagunak bekhaturik urrundu eta lagundu salbatzen.

Erlisionearen etsaiak beren idurikoeekin aurkhitzeak ditu maizenik azkartzen. Sendi badute partidak hatzeman, toki tcharrean mintzo direla, ichilzen dire edo erbiak bezala eskapatzen. Holako orduetan ager zaitezte beraz fededun; galtoerl buru atchik-ozute; dudarik gabe izariz bainen beldurrik gabe, oroituz Jainkoaren esku aldea daukazuela, eta Jainkoak handizki saristatuko zaituztela.

Hola egin dute denbora guzietako sainduak eta giristino azkarrek. Holako orduetan ichilik egon baino, nahilago izan dute hil, frangotan oin hazerik ikharagarrienen erdian. Teatament zaharrea bazen gizon saindu bat Eleazar deitzen zena. Adin handira heldua zen. Eta haba nahi diotela Jainkoaren Legeak debekatu haragietarik jan-arazi. Bada lausengu, bada mchatchu, zer nahi egiten diote, bainen baldetan. Guzineri ihardokitzen du, erranez, ez duela sekulan Legeko manamendu bat ostikatuz erakaspn tzarrik utziko bere ondokoeri. Beraz hilzen da bera. Legeari leial egon delakotz.

Mendekoste egunetik, apostoluek goraki era kusten dute Jesu-Kristo egiazki phiztu dela, Jesu-Kristo egiazki Jainko dela. Preso ezartzen dituzte, azotatzen dituzte, nahiz ichilik atchikarazi. Bainen baldetan; diote goraki: nahilago dugu Jainkoari obeditu, gizonari baino; eaa guziak hilzen dire beren sineseta goraki aithortu dutelakotz.

Zuek ere izan zaitetzte sailnduen eta martiren eskualdekoak. Ikhusten duzuenen bekkatore bat bertzen galzen ari dela, errozue bihola Jon doni Batistak Herodes Iohiari erran ziona: (non licet) Ez zaitzu zilhegi holako eskandalaren emaita. Edo oraino aurkhitzen baduzue bertze norbait elherik tzarrenak erraiton, errozue: non licet) Ez zaitzu zilhegi holako elhe lizunen erraita, holako itsuskerien erraita, Ikhusten baduzue, azkenean bertze bat liburu edo kazeta tzar bat eskuetan errozue bethi: non licet) Ez zaitzu zilhegi holako irakurte tzarren egitea.

Hola egin dute, diot berriz ere, egundaino.. ko sailndu eta giristino Khartsu guziek. Menturaz zuen sinestea goraki eta bururaino aithortzen duzuelakotz, munduak higunduko zaituztete, mundostikatuko zaituztete. Bainen huna zer dautzuen erraiten Jesu-Kristok: Ni zuek baino lehen ostikatu nau munduak, ez ordian garhaitu; Nik dut azpiratu mundua. Zuek orobat eginen duzue. Ez beldur izan zuen gorphutzak hil ditzazketenen, bainen bai arima eta gorphutz ifernura herresta zaitzazketenen.

Beraz zaudezte gogor zuen sinestean bururaino. Jakizue behar duan mintzatzen, eta behar balitz pairatzen. Gehiago: Jainkoak nahi balu, jakizue haren oharatzeko eta giristino lagunaren salbatzeko biziaren emaiten, galzen duzuen bizi iragankorraren ordain izanen duzue bethiereko bizitzea zeruko dohatsutasunean.

F E D I Z K O B I Z I T Z E A Z .

Justus ex fide vivit. Galat. 3.11.
Giristino zuzena sinestearen arabera
bizitzen da.

Giristino maiteak,

Bi nausi badabilza gure ondotik, gutarik
bakothha beretu nahiz, Satanek, haragiaren arar-
teketz, bere ganat deitzen gaitu. Jesu-Kristok
berriz, sinestearen bidez, bere ganat alchatzen
gaitu. Nor dugu hautatzen nausitzat? Guziek er-
raiten dautatzue, Jesu-Kristo.

Ongi: bainan jakizue, g.m. Jesusi jarraiki-
tzeketz, behar da egin harek egin duena, erran
nahi balta, behar zarezte haren erakaspeneri jar-
raiki. Behar ditutzue Jesu-Kristok bezala, mun-
dua eta munduko urhatsak arbulatu, eta gero gau-
za guzietan bälhatu Jainkoaren ohratzea. Fola
egiten duena da sinestearen arabera bizitzen,
zinez giristino khartsu agertzen.

1

Bathaiko grazia handiak zer egin gaitu?
Jainkoaren haur, Jesu-Kristoren haurride, zeruko
premu. Bathaioak eman dauku aski ahal Jainkoaren
arabera bizitzeko, gure egintza guziak Jainko-
aren ganat alchatzeko, Gerotik ahalgo ere behar
gintazke haragiaren arabera bizitzeko.

Bertzalde, zorigaitz, bere jaidura makhur-
reri jarraitzen dena! hilen baita. Dohatsu ber-
riz, haragiaren gutizia tzarrak zaphatuz, sines-
tearen arabera bizitzen dena! biziko baita. Jain-
koaren izenean, horrazer dion Jonacni Paulok.
Rom.c.6, 6-7.

Eta orduan, g.m. nor dire sinestearen arabe-
ra bizitzen? nor dire Jesus maiteari zinez jar-
raitkitzen? ez da dudarik, haragia bere gutizia
tzarrek in zaphatzen dutenak, bekhatu handi eta
tipietari beiratzten denak, sainduki bizitzera
bermatzen, hitz batez, bizitzen mundu huntan,
mundukoa ez balitz bezala, arrotz eta piaiant
bat bezala.

Jainkoak ez othe gaitu egin zerukotzat? eta
zer behar da gure bihotzeko beharordu guzien oso-
ki bethetzeko? zeruko ontasunene nasaizia, Jain-
koaren dohatsutasuna bera. Zorok orduan lurreko
gauza ezdeuseri bihotzez estekatzen direnak! Eta
oraino, Jainkoak hitzemaiten daukan ontasunen
aldean, zer dire mundu huntako bozkaric eta atse-
gabeak? lurreko irri eta nigarrak? deusere; den-
bora ez doa hain laster? munduko bizitza ez doa
amets bat bezala?

Zer egin orduan? Jainkoari bakharrik hel;
Jainkoaren baitan bilhatu bakharrik gure bihotz-
zeko bakeaz gure sosegua, gure zoriona. Jesu-
Kristok ebanjelio sainduan ez du bertzerik era-
ksten. Ezen nor dauzka zinez dohatsu Jesu-Kris-
tok? ohoretan bizi direnak? aberatsak? lurreko
atseginetan pulunpatzen direnak? ez segur: hola-
koen gatik ez othe du erran: zorigaitz zueri,
izana baituzue zuen saria, nigar eginen baituzue!

Lurreko ontasun iragankorreni atchikiak di-
renak, ez othe dute maiz gogotik galzen beren
eternitateko helburua? ez othe dute errechki a

ahanzten Jainkoa oroz lehen adoratu eta zerbitza-
tu bohar dutela? ez othe dituzte errechki ostika-
tzen Jainkoaren manamenduak, ostikatzen beren
eginbide handienak? Jesu-Kristok nor ditu beraz
dohatsutzat atchikitzen? Adi zazue: Dohatsu lur-
reko ontasunentzat amodiorik ez dutenak! dohatsu
bihotzez garbiak! dohatsu jende eztiak! dohatsu
bertzen atsegabeez urrikalzen direnak! dohatsu
nigarretan daudezina! dohatsu zuzenbidearen ga-
tik gaizki erabiliak direnak! Horra egiazko do-
tsuak. Hoik eta holakoak dire sinestearen arabe-
ra bizitzen; hoiek dituzte zaphatzen beren jai-
dura makhurrak; hoiek dute beren lehia, solas,
eta ogintza guziez Jainkoa ohoratzen, eta bilha-
tzen Jainkoari atsegin egitea biziko urhats gu-
zietan.

Eta Jesu-Kristok berak zer du egin? Jainko
da, eta egiten da gizon bere Aitari obeditzeko
gauza guzietan. Zeru eta lurraren Nausi oroz gai-
nokoa da, eta heia tchar batean scrtzen da. Abe-
rastasun suerte guziak bere eskuan ditu, eta bi-
zitzen da gabeziarik handienean. Dohatsutasun
mota guzien jabea da, eta iragaiten da lurrean,
atsegabe suerte guziez herstua.

Gizonen laguntzeko eta salbatzeko baizik
ez da bizi; eta ordainez gizonetarik zer du izai-
ten? eskergabetasun frango, laidoz leher. Eta
halarik ere bere etsaeri barkhatzen diote, bere
hilzailentzat othoitz egiten du.

Erakaspen horren aitzinean, nor da bere bu-
ruari ukho eginen ez liokeena? bere jaidura ma-
khurren zaphatzea gaistoegi hatzemanen liokeena?
lurreko gauza ezdeusak higunduko ez lituzkeena?
haragiaren atseginak zango pean atchikiko ez li-
tuzkoenak? Edo oraino, nor nahi litake munduko
urhatseri jarraiki eta denbora berean girstino-
tzat iragan?

Munduko urhatseri jarraitzea eta eta sinestearen arabera bizitzea ez othe dire elgarren etsai? Zer? sinesteak erraiten dauku: bilha lehenik Jainkoaren erresuma; eta gero lurreko ontasuneri harrapaka lotzen denak izanen luke kopeta erraiteko, ni sinestearen arabera bizi naiz, nor nahik bezenbat maitatzen dut Jesu-Kristo. Dohatsu atsegabeak hersten dituenak! eta gero, deusere jasan nahi ez duenak, atsegabeak mila intzirina eginez pairatzen dituenak, izanen luke behkokia erraiteko, ni Jesusi narraiko, ni sinestearen arabera bizi naiz.

Sinesteak erraiten dauku: gauza guzietan egizue Jainkoaren nahi saindua, bilha zazue haren ohoratzea; eta gero bere par guziak iragan nahi dituenak, bertzen erranera bortchaz erortzen denak, guziera manatu nahi lukeenak, izanen luke kopeta erraiteko: ni Jesusen urhatseri jarraitzen naiz, ni sinestean bizitzen naiz. Ah! g, m. sinestearen arabera bizitzen direnak bakharak direla munduan!

Egitekorik arrutenak berak, nola dituzte anhitzek bethetzen? Zer gogoz emagun ari dire anhit lanean? Lana guzien eginbidea da. Jainkoak egin du lanaren manamendua guzientzat, beharrentzat bezain ongi aberatsentzat. Deusere ez du munta lana izan dadin eskuetakoa, ala burukoa ala karitatezkoa.

Ba, Jainkoak guziera manatzen du lana; ez bakharrik bakoitxak kopetako izerdiaren gostuz irabazi behar duelakotz bere egun guzietako ogia, baina oraino lanaren manamendua bethez egin penitentzia. Lana ez othe da egiazko penitentzia?

Lanak ez othe gaitu bekhatu anhitzetarik beiratzen? lanak ez othe gaitu handizki laguntzen sain dutasunera helzen?

Beraz Jainkoaren manamendu hori nola dugu bethetzen? anhitzek ez othe dute ozinbertzez pairatzen? anhitz ez othe dire. shalik eta gehiena eskapatzen? Eta lana eskor onez hartzen dutenetan, gogotik lancan ari diroretan, zerk ditu anhitz lanora sustatzen? Ortasun goseak, edo chedo tzarragoko zorbaitzek. Dударik gabe anhitzek bil hatzendute lanaren medicz gauza onhostagcrit; hala-nola familiaren ohorezki alchatzea, haurreri bizitzeko segida baten uztea, zahartze dohatsu baten iragaiteko bidean jarzea.

Bainan heien chedeak ez dira gorago alchatzen? ez ditu sinesteak sustatzen; ez dute lana girstino bezala egiten. Ezen Jainkoaren oroitzapena bere loretik kampo daukanak, bere lanaz Jainkoaren ohoratzea bilratzen ez duenak, alferretan du lana egiten, debaldetan ditu arima eta gorphutza akhitzen, zerukotzat ez du deusere irabazten.

Zer chedetan egiten dire oraino egun guzietako aphairuak? Jon doni Paulok nahi du egin ditzagun Jainkoaren ohoratzeke chedetan. Bainan zer dute anhitzek bilhatzen beren aphairuak? Gorphutzaren ongi asetzea, deusere bertzerik.

Dohatsu ginitazkocla oraino sinestea kausitzen baginu baitezpada galdatzen duten urhatsetan! Jainkoaren ohorea eta bere arimaren salbamendua behar du bilhatu girstinoak gauza guzietan. Bainan urhats batzuetan sinesteak behar du baitezpada sustatu girstinoa. Mintzo naiz erlisioneke urhatseri jarraitzeaz. Asma ditake erlisione sainduan sinesterik gabeko urhatsek?

Huna meza saildua: sekulan bada mezaren entzuteak du galdatzen sineste, eta ez tipia. Baina sineste luko meza sailduan aurkhi litakeenak usiaz bakharrik? mozako denbora guzian egonen litakeenak gogoia norapeit barraiatua? gorputhez elizan eta bihotzez nurbait? Meza sailduan hola aurkitzen denak, zer ohore dio bihurtzen Jainkoari? batere edo arras guti.

Sakramenduetara hurbilzeko ez da sineste gu tiago behar. Baina sinesteak othe ditu sustatzen girstino guziak kofesiora eta mahain saildura? Zer ohore bihurtzen dio Jainkoari bethi bekhatu berekin doanak kofesatzer, eta mahain saildura, jenden begietan khartsu agertzea gatik? edo bertze zerbait chede gogoan?

Beharordu batek bortcha gitzazke bideari lotzera, adiskidegoak susta gitzazke lagun maite bati ikhns-aldi baten egitera. Goseak hertsia gitzazke jatera. Urhats hoik egin ditazke sinestearik gabe, edo sinesteaz orhoitu gabe. Baina erlisioneko urhats bihi batek ez du balicrik sinestearik gabe. Jainkoak sinesteari esker ditu onhartzen gure egintza guziak, sinestearikin ditugu erlisioneko urhats guziak girstinoki bethetzen eta merezdun ezartzen.

Fededun izaitza zer da funtsera eta? Jainkoa bere aitatzat eta nausitzat ezagutzea. Bada zuen Jainkoa balinbanaiz, dio Jaunak, nun dire bihurtzen daiztatzen ohoreak? ubi est honor meus. Mal. 1, 6. Sinestearik gabeko ohoreak eta eskerrak bihurtzen badaiztatze, zertako dituzket holako ohoreak eta eskerrak? Atchikitzen ditut laido batzuen pareko, botatzen daizkitzuet aitzinera nautelakotz okhaztatzen ongarri ustel batek bezala. (Et disperdam super vultum vestrum, stercus solennitatem vestramm. Malach.

Zertako ez zugu bada sineste gehiagoc erakusten erlisioneko urhatsetan? Jon dñi Paulok erraiten dauku: Animalis homo non pepercit ea ruae sunt Spiritus Dei. 1 Cor. c. 2, 14, Aberetzen delarik, gizonak galzen du jainkozko gauzetarako gogo guzia. Jainkoa gauza guzietan eta oroz lehen ohotzekotz, Jainkoarentzat baizik ez bizitzekotz, bere gogoeta, lehia, eta egintza guziez Jainkoaren ganat alchatzekotz, ez da munduari atchiki behar, ez da bere haragia mainatu behar, baina bai zaphatu, ez da bere nahi ezdeus eta gaistoa bilhatu behar, baina bai ukho egin bere nahiari, ez da hitz batez luureko gozamenik bilhatu behar, baina bai zerukoeri hel egin bakharrik.

Baina zenbatek dute hola egiten? San Kristostomok erraiten du haren denberak paganok ikhusten zutelarik girstino bat bekhatura lerratzen, erraiten ziotela: edo haiz falsu tzar bat, edo haiz erho bat. Girstino izan eta ez bahaiz hire sinestearen arabera bizitzen, falsu bat haiz. Eta sinesten baduk badela sternitatu bat, ifernu bat, eta halarik ere bekhatuan pulun patzen bahaiz, erho bat haiz. Egungo girstinoren erdian ere ez othe litake hatzeman erho eta falsu frango? Anhitzek ez othe lukete merezi erreportchu beraren aditzea?

Girstino maiteak, bizi zaitezte othoi be-riotzeko orenean Jon dñi Paulok bezala erraiteneko gisan. Azkarki jazarri naiz ene arimako etsai guzien kontra. Debrua nahi ninduen galdubere tentamenduez, munduak enganatu bere gezur, agintza eta mehatchuez, haragiak ilusitu bere jaidura makhur eta gutizia tzarrez. Baina sinesteari esker, debrua bentzutu dut, garhaitu mundua eta haragia zaphaturik atchiki.

Ba, ongiarentzat, beroki naiz gudukatu, gaizkia-
ri azkarki nizaio jazarri. Bonum certamen certavi.

Eta hola, girstino urhatsetan egon eta ibi-
li naiz; bilhatu dut oroz lehen, enetzat etaaber-
rentzat, zeruetako erresuma; bihotz onez khar-
ratu dut khurutzea, lanak ez nau lotsatu, seku-
lan ez naiz ene kalteten pausatu, ahal oroz dut
girstino laguna bere arimako eta gorphutzeke
leharorduetan lagundu; orai denbora akhabatu zait
eta ezagutzen dut oneak egin duela, piariaren bu-
rura heldua naizela. Cursum consummavi.

Bainenaithortzen dut hilzera ncala, sinetsi-
rik erlisioneke egia guziak, beirathrik manamen-
tu guziak, betherik one estatuko erribide guziak,
bitz batez, sinestean iramnik azken hatseraing.
fidem servavi.

Zer gozoa sinestean bere biziaren akhabat-
zea. Fola hilzen denarentzat, zer da heriotzea?
paizt suerte guzion akhabantza, eta on suerte
guzion hastapena; holako heriotzea, bainan da
sariarik handiena. Mori lucrum.

Ba, Jainkoa juje zuzena delakotz, fidantzia
osoarekin igurikitzen dut hitzeman dautan saria;
segur ez nauela tronpatuko. Sinesteari esker,
Jainkoarena izan naiz bizian, Jainkoarena naiz
oraino hilzean, eta Jainkoarena izanen naiz,
eternitate guzian.